

«Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak.» (Axular).

«Euskarak ez du errurik,
nik ez diot ezarriko,
euskarak ez du errurik.
Neu naiz errudun euskara
indartu ez zaidalako,
su-arma ez dudalako,
eskutan hartu ta zirt-zart
ez darabilkidalako
nonahi ta zernahitarako.»

(B. Gandiaga)



leopoldo zugaza, editor

Mikel Zarate-Euskal Literatura II



9

Euskal Literatura II

Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak

Mikel Zarate



Mikel Zarateren lehenengo idazlanak itzulpen batzuk izan ziren: GURE MEZA DEUNA (1959), GURE SALBAZIÑO EGINTZA (1967), MEZA LIBURU TXIKIA (1968).

Gero BIZKAIKO EUSKAL IDAZLEAK (1970) idatzi zuen. Ta ordurik hona etengabe ari izan da idazten: HAURGINTZA MINETAN (1972), urte beratan «Txomin Agirre saria» irabazitakoa; IPUI ANTZEKO (1975); IPUIN ANTZEKO ALEGI MINGOTSAK (1975), urte beratan «Resurrección María de Azkue saria» irabazitakoa; INFLUENCIAS DEL VASCUENCE EN LA LENGUA CASTELLANA A TRAVES DE UN ESTUDIO DEL ELEMENTO VASCO EN EL HABLA COLOQUIAL DEL CHORIERRI (GRAN BILBAO) (1975); EUSKAL DEKLINABIDEA (1975); EUSKAL LITERATURA (1977); EUSKAL ORTOGRAFIA (1978); BIZIPENEN BULTZADAZ (1978); HIGIDURA BERDEZ (1978), 1975. urtean «José de Artechè» saria irabazitakoa, eta BILBO IRRIBARREZ (laster argitaratzekotan).

Oraingo hau lehen idatzitako EUSKAL LITERATURA liburuaren jarraipen bat da, boskoitza izango denaren bigarrena.

Berebiziko liburua gure euskal literatura eza-gutzeko ta idazleak «haurgintza minetan» jartzeko.

c/31

Euskal Biblioteka Labayru



1006305

COLECCIONES / N. 292

v.2



MIKEL ZARATE

EUSKAL LITERATURA, II

Arterbideak, Aztergaiak, Azterketak



LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
DURANGO



BIZKAIKO AURREZKI KUTXA'ren
Kultur Ekintzaren laguntzaz

© MIKEL ZARATE
LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
AVDA. MONTEVIDEO, 11 - DURANGO (Vizcaya)

I. S. B. N. 84-7406-035-4

Depósito Legal: BI - 1297 - 1978

Impreso en La Editorial Vizcaína, S. A.
Carretera de Bilbao a Galdácano, 20
Bolueña-Bilbao

*Bi eginak eta hiru gogotan
bost egiteko asmotan
ari naiz, Ritxar kutun,
gure euskal literatura
extizko elikatura
izan dakizun*

LIZARDI, EUSKAL LIRIKAREN EZAUGARRI

«Euskal poesia modernuaren haserak, ezpairik gabe, 1930 eta 35 artean ezarri behar dira. Eta hiru izenon inguruan: Lauaxeta, *Bide Barrijak* (1931); Lizardi, *Biotz-begietan* (1932); Orixe, *Barne muinetan* (1934); Lauaxeta berriro, *Arrats beran* (1935). Poeta landuak hirurak, *poeta doctus* esaten zena. Eta hirurak elkarren eragile ta ikas-irakasle.» (J. Azurmendi, *Zer dugu Orixeren alde*, Arantzazu (Gipuzkoa), 1977, 178. orr.).

Lauaxeta ta Lizardi izan dira, batez ere, euskara goimailaratu ta «noranahikotu» gura izan duten aitzindariak.

«Baña nik, izkuntza larrekoa,
nai aunat ere noranaikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.» (1)

Azken urteotan egin den antzera (orain berrogei ta hamar urte ta aldi hartako giroan), Lauaxeta ta Lizardik eginahalak egin zituzten euskal olerkia gai, egitura ta adierazpide aldetik «gohien gradora» jasotzeko, Etxepareren *Kontrapas*-aren ametsetan.

(1) Lizardi, *Biotz-begietan*, 3. arg., Zarautz (Gipuzkoa), 1970, 166. orr.

Gazterik hil zen Lizardi, gazterik hil zuten Lauaxeta; baina fruitu ugari iraunkorrek eman ondoren biak. Penagarria ta pozgarria!

Aldian aldiko izanik, Frantziako sinbolisten eraginez, Nikaraguako Rubén Darío-ren modernismo giroan eta Espainiako «27.eko belaunaldiarekin» batean, Aitzol, Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Loramendi ta gainerako olerkarien gogoak bizkortu ta erdiminetan jarri ziren. Lizardirena, batez ere.

«Gure gaitz ori, gure axkure edo dalako zer ori, gure «erdibearra», beingoan esateko, eztezuete ezagutzen? Inork, eri danik, eztu bein ere osasuna maite izan guk gere miña, gere zauria, gere legena, guk gere erdibear ori aña. Askotan etsita gaude eztitula inork bere baitan ari ditugun asmakuntza aiek egonarriz irakurriko. Baña... ekin alarik ere! Nork daki-ke, olerkari ezpada, zein bearrezko degun gure lasapenerako, ta zein gogarako, erditze ori? Ta, maizenik, naiko larri ta estu erabiltzen gaituala...» (Lizardi, *Itz-lauz*, 2. arg., Donostia, 1972, 28. orr.).

Lizardiren «erdibear» horren ondorioa olerki sorta bikain bat izan zen, euskal literatura goimailarantz jaso zuen lirikatasun garbi eder jatorra.

«Gurean, beste nonnahi bezala, ez dira asko izan egiazko lirikoak. Lotsarik gabe aitor dezakegu. Eta norbait autatu beharrean, Lizardi hautatuko ganduke askok, inori ezer kendu gabe, euskal lirikaren ezaugarritzat.» (K. Mitxelena, *Mitxelena-ren idazlan autatuak*, Bilbao, 1972, 175. orr.).

Lizardiren olerkiak irakurri ta gero, *Bultzi-leiotik* aukeratu dut aztertzeko. Irakur dezagun, ba, behin eta berriz, azterketa egiten hasi baino lehen.

«Bultzi-leiotik

Oi, lur, oir, lur!
Oi, ene lur nereaa...!
Oi, goiz eme,
parre gozoz ernea...!

Arto musker,
mendi, baserri zaarrak;
ale gorritz
abailduta sagarrak;

oro, laño
mee batek estalia,
urrez oro
eguzkiak yantzia...

Nekazari,
gizandi bat iduri
soroan zut:
beyondeizula zuri...!

Zure bazter,
gurazko aberria,
doa zoro
(ta bertan ni) bultzia...

Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta
zure sariz aseaa...!

Bañan... ezin:
beeko bear goriak
narama... Agur,
soro, sagar, mendiak...!» (1)

Sarritan erabili izan da literaturan trenaren ikuspegi berezi ibiltaria paisaje bat adierazteko. Baita (bizitzaren, denboraren joatearen...) sinbolo bezala ere erabili izan da trena.

Frantziako poeta sinbolisten aitzindari izan zen Verlaine-k erabili izan omen zuen lehenengoz poema batean trenaren gai hori. «...él es el primero que hace la poesía del viaje en tren, que tendrá tan buenas muestras en Antonio Machado, Juan Ramón Jiménez... El medio de viaje entonces nuevo tiene ya, con toda naturalidad, su ciudadanía lírica cuando Verlaine habla de los paisajes de la ventanilla y los postes de telégrafo, sintiendo que mientras tanto el dulce nombre y la visión de la amada se mezcla «au rythme du wagon brutal, suavement.» Martín de Riquer-José M.^a Valverde, *Historia de la literatura universal*, t. 3, Barcelona, 1971, 219. orr.).

(1) Lizardi, *Biotz-begietan*, Zarautz (Gipuzkoa), 3. arg., 1970, 94. orr.

Lehenengo ta behin, ikus ditzagun, bada, argibidezko konparaketa bat egiteko, trena gaitzat harturik idatzi izan diren literatura texto batzuk:

VII

«Le paysage dans le cadre des portières
Court furieusement, et des plaines entières
Avec de l'eau, des blés, de arbres et du ciel
Vont s'engouffrant parmi le tourbillon cruel
Où tombent les poteaux minces du télégraphe
Dont les fils ont l'allure étrange d'up paraphe.
Une odeur de charbon qui brûle et d'eau qui bout,
Tout le bruit que feraint mille chaînes au bout
Desquelles hurleraient mille géants qu'on fouette;
—Que me fait tout cela, puisque j'ai dans les yeux
La blanche vision qui fait mon coeur joyeux,
Puisque la douce voiz pour moi murmure encore,
Puisque le Nom si beau, si noble eta si sonore
Se mêle, pur pivot de tout ce tournoiement,
Au rythme du wagon brutal, suavement.» (1)

VII

«Las cosas que miramos
se vuelven hacia atrás en el instante
que nosotros pasamos,
y conforme va el tren hacia adelante,
parece que desandan lo que andamos
y, a sus puestos volviéndose, huyen y huyen
en raudo movimiento
los postes del telégrafo, clavados
en fila a los costados del camino,
y como gota a gota, fluyen, fluyen,
uno, dos, tres y cuatro, veinte y ciento,
y formando confuso y ceniciento
el humo con la luz un remolino
no distinguen los ojos deslumbrados
si aquello es sueño, tromba o torbellino.» (1)

(1) Paul Verlaine, *Poesía completa, tomo I / Edición bilingüe*, Barcelona, 1975, 156. orr.

(1) Ramón de Campoamor, *El tren expreso en Los 25.000 mejores versos de la lengua castellana*, Madrid, 1963, 333. orr.

El tren

(Guipúzcoa)

«El techo del vagón tiene un albor (¿de dónde?),
y los turbios cristales, desvanecidos, lloran...
Fuera, entre claridades que van y vienen, hay
una conjuración de montaña y de sombra.

Los pueblos son de niebla bajo la madrugada;
es como un sueño vago de praderas humosas;
y las rocas (¿enormes?) están sobre nosotros,
inminentes, perdidas las cimas en la hora.

No para el tren... Tras unos cristales alumbrados,
a través de la lluvia cansada y melancólica,
una mujer confusa, bella, medio desnuda,
nos dice adiós...

—¡Adiós!

El agua habla, monótona.» (1)

«La campiña se descubre ante nuestros ojos; todo es verde bajo la lluvia fina en un cielo nuboso. De tarde en tarde, en un paso a nivel, una campesina se nos muestra inmóvil, con un pañuelo rojo en la cabeza; luego, en las estaciones, vemos los mismos pañuelos rojos; más tarde, en un campo, en un camino, otra labriega hace resaltar sobre el verde el pañuelo rojo de su tocado. Y nuestro espíritu va hacia estas campesinas; se detiene con ellas; quisiera —hechizado por la voz escuchada antes en la estación— charlar con ellas, oír las esta parla tan dulce, reposar un instante en una de estas casitas que tan fugazmente aparecen y desaparecen al paso del tren, dejándonos una impresión de algo que no podríamos definir.» (2)

(1) Juan Ramón Jiménez en la antología poética seleccionada por Gerardo Diego *Poesía española contemporánea (1901-1934)*, Madrid, 1974, pág. 589.

(2) Azorín, *El paisaje de España visto por los españoles*, 4ª ed., Buenos Aires, 1953, 27. orr.

Trenaren ritmoz batzuk eta trenaren ritmorik gabe beste batzuk, horien antzeko beste asko daude, bai hitz neurtuz eta bai hitz lauz, frantsesez, espainolez eta euskaraz (3).

Irakur dezagun berriro Lizardirena ta konpara ditzagun.

Literatura textook bere olerkia egin baino lehenago argitaratuak izan zirenez gero, ezagutu ote zituen Lizardik? Ba liteke, trenaren ikuspegitik ikusten den paisaje inpresionista ta sentitzen diren bibentzia bereziak adierazten bai dituzte guztiak. Baina emakume maite edo maitagarriak agertzen dira denetan (Campoamor-en *El tren expreso*-n ere bai, nahiz eta hemen jarri dugun zatian agertu ez), eta Lizardirenean ez. Hona hemen Lizardiren lehenbiziko orijinaltasuna: Lizardiren maitea paisajea bera da, euskal lurra, Euskal Herria.

«Oi, lur, oi, lur!
Oi, ene lur nerea...!
Oi, goiz eme,
parre gozoz ernea...!»

Lizardiren *Bultzi-leiotik*, gainera, «maitearekin» (hari agur esateko) egiten duen elkarrizketa samur mingarri bat da. Hona hemen Lizardiren olerkiaren bigarren orijinaltasun garrantzitsua. Elkarrizketan ari da Lizardi euskal lur maitearekin, behinolako Etxapare euskararekin bezala.

«Heuskara,
Ialgi adi mundura!
Legoajetan ohi intzan
Estimatze gutitan;
Ora! aldiz hik behar duk
Ohoria orotan.»

Izadia literatura bidez birsortu ta edertu zuten erromantikoez bezala.

«Agur, agur, herria! Agur sorlekua!
Agur nere hurreko leku maitatua!
Jainkoak aditurik haur baten oiua,
Hiregana duk haur bat egun hurbildua.»

(3) Ikus, adibidez, euskaraz. Txillardegi, *Leturia-ren egunkari ezkutua*, Bilbao, 1957, 111-112. orrialdeetan eta Gorka Trintxerpe, *Zorion baten zainak*, Bilbao, 1972, 82-84. orrialdeetan.

Mendiaren hegitik hartuz zeharrera,
iduri xingola bat, aldapa beheara,
Bidexka, hi xuxen haiz jausten zelaiera,
Xuxen ereman nezak ahaiden artera.

Bide egiko haitza, zenbatez hurrean,
I gandetan mezatik etxera sartzean,
Zenbatez ez nauk jarri, amaren aldean,
Hire adar lodiak egin itzalean!

Baratze gibeledko elorri xuria,
Beti duk begiratzen hurreko tokia.
Hik bezala zertako, aldaska garbia,
Ez diat sorlekuan higatzen bizia?»

(J. B. Elizanburu)

«O lac, l'année à peine a fini sa carrière,
et près des flots chéris qu'elle devait revoir,
regarde, je viens seul m'asseoir sur cette pierre
où ta la vis s'asseoir.»

(A. de Lamartine)

«Olas gigantes, que os rompéis bramando,
en las playas desiertas y remotas:
envuelto entre las sábanas de espumas,
¡llebadme con vosotras!

Ráfagas de huracán, que arrebatáis
del alto bosque las marchitas hojas:
arrastrado en el ciego torbellino,
¡llebadme con vosotras!

Nubes de tempestad, que rompe el rayo,
y en fuego ornáis las desprendidas orlas:
arrebatado entre la niebla oscura,
¡llebadme con vosotras!

Llebadme, por piedad, a donde el vértigo
con la razón me arranque la memoria...
¡Por piedad!... ¡Tengo miedo de quedarme
con mi dolor a solas!»

(G. A. Bécquer)

Lizardik ere pertsonalizatu egiten du izadia ta, bere amonarekin bezala, «ele gozoka» ari da harekin.

«Nik amestean bezela
ote aiz, mendi-gaño?
Goi-yauregiko malla?
Gotzonen urbilgo...?
Egiz, Yaungoikoaren
esku ta aunditasuna
ote dituk or goitik
sumatzen bertago...?»

(*Mendi-gaña*)

«Arbaso pakezale agurgarri orrek
iflorentzat onginaia besterik izan ez dek.
Betidanik, eskale labur, emale eder:
ire bizi guztian, txarkeri bat al duk ager?»

(*Zuaitz etzana*)

«Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta
zure sariz asea...!»

(*Bultzi-leiotik*)

Baina, gainera, Lizardiren «maite hori» sinbolo bat da: baserri kulturaren sinboloa. Hona hemen, *Bultzi-leiotik* olerkiaren hirugarren orijinaltasuna. Baserria ta baserriko jaun nekazaria oso maite ditu Lizardik («gurazko aberria»), oso maite ditu baserriko euskara ta baserriko kultura.

«Asaba zaarren baratza,
untzadun ormek esia,
eguzkiak leen maitea...
Otzaldi zoro baten itzuli,
yoka nagokik atea.»

(*Asaba zaarren baratza*)

«Eder aunagu, mintzo yoria,
eder, benetan, garoz yantzia;
larre-loretik ezta,
basotik euskal mamia
laister sortzen aal duk, Olerkaria!»

(*Eusko bidaxtiarena*)

«Leiotik, ogei baserri,
mendiaren apaingarri;
zenbait zabal ditun ageri;
zenbait erdika nabari.

Batak besteak adiña
keea guziek urdiña...
Susmo niñan zeru goxoa
keeok ote zen egiña!»

(*Etxeko keea*)

Hala ere, agur egiten dio trenetik (aurrerapidearen irudi den trenetik) baserri ta baserri kulturari. Hiri kulturaren sinbolo den «beeko bear goriak» egiten dio bultz, hiri kultura sortzeko gurari biziak darama, gure hizkuntza ta herria ere beste kultura ta herrien pareko goimailan jartzeko.

«Nire Tabor mendi; nire
baratz zaarraren antzalde!,
egi, mami, biur adi:
leenaren muñak aldatu beza
baratz zaarra baratz berri!»

(*Asaba zaarren baratza*)

«Iri nagusi, giza-erlauntza:
zorapenezko aruntz-onuntza,
sumabearra, yakintza,
sal-eros ekurugaitza,
gure elkar-indarrak itzuli bitza!

Ortzi oro ta egute oro
yaso, ikus-ala, ta abes gozoro...
Apaindu zernaitarako;
agi gai adirazteko
gizaki guzien alderdi ta asmo.

Ta, beeko gaiok agor-ezkeroz,
Iguzkik ezin urtuzko egoz
(Ikar-ek ez bezelakoz)
goazeman zerura igoz,
izar urdifietarañoko asmoz!»

(*Eusko bidaxtiarena*)

Larre hizkuntza bakarrik zen euskara, kale hizkuntza (hizkuntza kulto) bihurtu nahi zuen Lizardik, larre kultura bakarrik zen euskal kultura kale kultura ere izan zedin.

Orain egiten ari garen hiriko hizkuntza, hiriko kultura, sortu nahi izan zuen Lizardik duela berrogei ta hamar urte. Horrexegatik dute bere olerkiak, beste balioez gainera, betiko gaurkotasan bat.

Eta konparabidez olerkiaren itxurazko gaia ta barneko gaia azaldu ondoren, goazen orain olerkiaren egitura aztertze-
ra. Ba du orijinaltasunik asko, hontan ere, *Bultzileiotik* poemak.

Lehenengo ta behin, Oihenartek bere maiteari egindako poema batean agertzen diren antzeko ahapaldiz josten du Lizardik olerkia.

«Margarita,
ba daidita
ote huts zin egitez
begiz urdin
bezain gordin
zapela zur'egitez?»

Baina moztu egiten ditu. Hain zuzen ere, Oihenarteren ahapaldiak 4-4-7-4-4-7 silabako bertsoz hornituak daude; Lizardirenak, ordea, 4-7-4-7 silabako bertsoz, trenaren ritmoaren gisako arintasun eta bizkortasun higidura berri bat sortuz.

Zergatik jarri ote ditu Lizardik zazpi ahapaldi bere poeman, trenaren zazpi bagoi bezala? Sinbolisten eraginez jarri-
riko Euskal Herriaren («Zazpiak bat») sinbolo bat ote da? Ez dakit. Dena dela, bere adiskide kutun eta bultzatzaile izan zuen Orixeren *Euskaldunak* poemako bertso batean agertzen denez,

«Zazpi aizparen gai dan oiala
ebakirikan erditik,
alde batera iru soñeko,
utzirikan lau bestetik.
Guraizakin bereizi arren,
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oil batekin.»

eta Lizardiren *Biotz-begietan* bertan agertzen denez

«Bai bainun amona xaar bat
zazpi begiko baratzei.»

zazpi ahizpak Euskal Herriko zazpi probintziak dira eta zazpi begiko amona xaar baratze-zaina, Euskal Herria.

Treneko ikuspegitik ikusten duen kuadruaren lekutzea baino besterik ez da lehenbiziko ahapaldia, maitasun senti-
menduz lekutzea, bere lurrean eta goizean.

«Oi, lur, oi lur!
Oi, ene lur nereaa...!
Oi, goiz eme,
parre gozoz ernea...!»

Bigarren eta hirugarren ahapaldietan, lurrean eta goi-
zean ikusten duena pintatzen du. Baina inpresionisten erara:
bere barne-sentimenduen eraginez, dibujo zehatzik gabe («oro
laño/mee batek estalia»), kolore mantxak multzokatuz
(«arto musker», «ale gorritz», «urrez oro»), izadia paisa-
jetuz, paisajea asmatuz.

Laugarren ahapaldian, kuadruaren erdi-erdian, lurraren
jauna, baserritar bat (barne-inpresiozko pintzeladaz beti)
pintatzen du («Nekazari,/gizandi bat iduri»). Eta bosgarren
ahapaldian, baserritarraren bazterrean eta kuadruaren bazte-
rrean (Lizardik maite duen baserri kulturazko «gurazko abe-
rriaren» ondoan), bera daraman trena ta bera jartzen ditu,
trena ta olerkaria bera ere paisajeratuz.

«Zure bazter,
gurazko aberria,
doa zoro
(ta bertan ni) bultzia...»

Zoro ta arin doa trena... Osotu duela dirudi Lizardik
kuadrua. Eta baserrimezko bihozkadaz ematen dizkio, sei-
garren ahapaldian, azkenengo ikutuak.

«Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta
zure sariz aseaa...!»

Bai, egina da kuadrua. Baina aurrera ta aurrera doan
tren ibiltarian sartu denez gero, aldatu egin zaio paisajea ta

kuadru berri bat egiten hasi behar «beeko bear gorian» kale artean, goimailako kulturaren ametsetan.

Zazpigarren ahapaldia da bigarren kuadru horren hasiera edo, hobeki esanda, lehenbiziko kuadruaren hedadura (*Bultzi-leiotik* bera gure herri poesiatik poesia kultura egin den hedadura izan den legez). Eta hedadura horren hasiera adierazteko, kolore hutsunetxo bat du kuadruak bere ertz aldean («Bañan... ezin»), hau da, eten egiten du Lizardik poemaren ritmoa, trenbidea aldatzerakoan trenaren ritmoa eten egiten den antzera.

«Bañan... ezin:
beeko bear goriak
narama... Agur,
soro, sagar, mendiak...!»

Adierazpide aldetik, azkenez, aitzindari jakintsu dugu Lizardi euskal letretan.

Lehenengo ta bat, behin eta berriz jartzen ditu etendura puntuak, esateko erdi-adieraziz sakonkiago esateko, irakurleak ere parte hartu dezan poeman, poema berreginez. Hau ere inpresionisten jokera dela esan behar. Hain zuzen ere, inpresionisten urruneko ikusmiratik ez du Lizardik gauzen inguruko ertz zehatzik ikusten, kolore masak baizik. «El punto de vista se ha retrasado, se ha alejado del objeto, y de la visión próxima hemos pasado a la visión lejana, que, en rigor, es aún más próxima que aquella. Entre los cuerpos y la pupila se intercala el objeto más inmediato: el hueco, el aire. Flotando en el aire, convertidas en gases cromáticos, en flámulas informes, en puros reflejos, las cosas han perdido su solidez y su dintorno. El pintor ha echado su cabeza atrás, ha entornado los párpados, y entre ellos ha triturado la forma propia de cada objeto, reduciéndolo a moléculas de luz, a puras chispas de color. En cambio, su cuadro puede ser mirado desde un solo punto de vista, en totalidad y de un golpe. La visión próxima disocia, analiza, distingue — es feudal. La visión lejana sintetiza, funde, confunde — es democrática. El punto de vista se vuelve sinopsis. La pintura de bulto se ha convertido definitivamente en pintura de hueco.» (J. Ortega y Gasset, *Sobre el punto de vista en las artes en La deshumanización del arte*, 5.ª ed., Madrid, 1958, 187. orr.).

Modernisten eta 27.eko belaunaldikoen gogoko ziren sinestesiako izenlagunak erabiltzen ditu Lizardik ere (euskaraz oraintsura arte oso gutxitan erabili izan direnak), hau da, barne-sentimenduen eraginez deslekturiko izenlagunak. Esate baterako, «pertsona etsia» jarri beharrean «min etsia» jartzen du Lizardik (berez, izatez, minak sentimendurik izan ez arren, gizon minduak baino), eta pertsona etsiaren mina «min etsia» dela iruditzen zaiolako jartzen du horrela; «bekaitza duen gizon zimela» esan beharrean «bekaitz zimela» esaten duenean, izenlaguna deslektu egiten du bere barneinpresioaren eraginez (berez, izatez, bekaitza ez baita ez zimela, ez guria, ez gordina, ez hezea). Adierazpide berezi hauek aparteko indar ta edertasun berri bat ematen die adierazpenari.

Bultzi-leiotik olerkian, «goiz eme», «parre gozo», «arto musker» ta «bear gori» maisukiro ta ederkiro sinestesiak deslekturiko izenlagunak ditugu.

Anaforak (errepetizioak) ere oso gogoko ditu Lizardik expresibide legez.

«Gau luzea, gau latza,
gau izar gabea.»

(*Euskal pizkundea*)

«Oi, udaberri goizez
mendiaren gallurra...!
Oi, aren ametsezko
zorakortasuna...!
Zein ezkutuzko indarrez,
zein atsenden-egarriz,
zein gorago-yoranez
narakark igana...?»

(*Mendi-gaña*)

Bultzi-leiotik olerkiaren lehenengo ahapaldia (eta azken aurrekoan ere anafora berdina darabil) anaforaz josita dago. Eta bigarren bertsoan («Oi, ene lur nerean»), Lizardik bere lurrari dion maitasun sutsua adierazteko, anafora, hiperbaton eta pleonasma adierazkorra multzokatzen ditu.

«Oi, lur, oi, lur!
Oi, ene lur nerean...!
Oi goiz eme,
parre gozoz ernea...!»

Hirugarren ahapaldian, adierazpide berri indartsu bat ezarriz, anafora ta kiasmo (gramatika egituren gurutzadura) elkartu egiten ditu.

«oro laño
mee batek estalia,
urrez oro
eguzkiak yantzia...»

Etendura gabeko bertso-elkarketak ere (encabalgamien-
to, enjambement) egiten ditu Lizardik higidurari irauaraz-
teko (elkarketa suabea) edo higiduraren etendura hobeto
adierazteko (bapateko elkarketa). Hona hemen, *Bultzi-leio-
tik* hartuta, elkarketa mueta biak. Lehenengo zati biak elkar-
keta suabearen adibideak dira eta hirugarrena bapateko elkar-
ketarena.

«ale gorritz
abailduta sagarrak.»

«oro laño
mee batek estalia»

«beeko bear goriak
narama...»

Aditz-erak ere adierazpide bihurtzen ditu Lizardik ba-
tzutan. *Asaba zaarren baratza* olerkian, adibidez, «nor zara
zu?»-ren ordeztu «nor zaitut?» jartzen du, *zaitut* hori hitz adie-
razkor bihurtuz, hau da, maitasunezko hurbiltasun eta xamur-
tasun amoltsu bat adierazteko erabiliz. Aztertzen ari garen
olerki hontan ere ez du «banintz zerea» jarri «baninduzu
zerea» baino, aditz-era hori adierazkor bihurturik eta lurra
pertsionalizatuago eginik.

Rima aldetik, rima osoa darabil (nerea / ernea;
zaarrak / sagarrak; estalia / yantzia; iduri — zuri; aberria —
bultzia; zerea — asea; goriak / mendiak). Egokiro aukeratua
da bere erraztasunean. Hirugarren ahapaldiak rima doblea du.

Bere olerkietan sarritan agertzen diren hitzak aukeratu
ditu *Bultzi-leiotik* olerkirako ere (gero behin eta berriz poesi
mailan erabili izan direnak): *eme, musker, urre, oro...*

«—Iñoren itz emeak
entzuten ago,
geldi-geldirik eta
bular ez-tian baño
pozago...?»

(*Xabiartxoren eriotza*)

«Beste *erpin musker* bat or baita agiri,
maldan gora zaizka zuaitzak geldi.»

(*Baso itzal*)

«Gure inguru lurra lurrun-yario,
urre urtuzko yasak baitaragio.»

(*Baso itzal*)

«*Ortzi oro ta egute oro*
yaso, ikus-ala, ta abes gozoro...»

(*Eusko bidaztiarena*)

Horra hor, ba, Lizardi, euskal lirikaren ezaugarri. Ira-
kur ezazu berriz, astiro astiro, *Bultzi-leiotik* eta Lizardiren
trenean aurkituko zara zu ere.

«Xabier Lizardiren poesia ez da pasako. Gaurko egoe-
ran, eta ur nahasi hauen erdian pixka bat ilundurik badago
ere, urte guti barru, eta beti aitortu zaizkion merezimenduen
neurrian, sekula baino indartsuago berbztuko da. Lizardiren
poesiari denboraren perspektiba guztiz onuragarri izango
zaio; denborak, pasio politiko eta nahasmendu harrigarri asko
desegin eta urratu egingo baitu, eta Lizardiren benetako balio
poetikoak ur-gainera agerrera ziko. Lizardi ez dute, ez, irakur-
tzen ez duten intzentsulariek edo lurperatu nahi luketen ban-
piroek, ez jainkotuko, ez desegin. Lizardi, guretzat eta
euskal kulturarentzat zorionez, ziztrilkeria horiek ziprztindu
ez dezaketen gailur batetan baitago: poesiaren gailurrean,
hain zuzen.» (X. Lete, *Xabier Lizardi edo poesia gailen*,
Xabier Lizardi, olerkari eta prosista liburuan, Oinati (Gipuz-
koa), 1974, 43. orr.).

Niretzat, behinik behin, hortze zaude, Lizardi: poesiaren
gailurrean. Eta delarik

«Hitz neurtuen txalet,
hotsen musika
ta ritmoaren balet
zure lirika...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

Edermin gogoa,
begiak ernai
ta gure txokoa
zure eder gai...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

Zure idatz aro
garbi itoak
zuregan oparo
frutu gozoak...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

Eguzki bañekoi
laino herioz
ta ederlanen goi
ondorengo poz...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

Bihotz begietan
asaben herri,
lorategietan
arnasa berri...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,

zure udaberriz
nire udaran.

Bihotz begietan
asaben herri,
lorategietan
arnasa berri...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.

Poeten eredu
zure gaitasun,
hilezkorren dedu
zure zutasun...,
zurekin ari naiz
amets hegaran,
zure udaberriz
nire udaran.» (1)

(1) M. Zarate, *Higidura berdez*, San Sebastián, 1977, 34. orr.

LIZARDI TA PROSA LANDUA

Euskal prosa landu barik dagoela oraindik esan ohi da. Ba liteke. Baina, hala ere, bakarka eta taldeka, ahalegin handiak egin izan dira eta beharrezkoa dugu ahaleginon ondorioa ezagutzea euskal prosa gero ta gehiago lantzeko.

Prosa lantzeko ahalegin handiak egin zituenetariko bat Lizardi izan genuen. Olerkigintzan ezezik, prosagintzan ere maisurik onenetakoa dugu. «Su prosa es también original, casi tan original como sus versos. Agil, descriptor tan certero como rápido del mundo exterior y del mundo interior, de humor intencionado y amable, está siempre lleno de sorpresas, tanto de fondo como de forma.» (L. Michelena, *Historia de la literatura vasca*, Madrid, 1960, 147 orr.).

«1933. urteko *Kirikiño Saria*-rako aukeratua» izan zen lan batetik hartu dugu aztertzeraz goazen testoa. *Etxe-barne bizia*-ren zati bat da. Bere adiskide bati egindako karta baten antzera dago idatzita.

«Atarian illun, ta leioan txingor ttuntun-otsa diranean, goxoa oi dek etxeko sutondoa. Ala bart, gurean. Ta etxebarrutik aur-zarata balebil, areago: ordun, adiskide; suaren garrak argiago ziruditek; dardara giarragoz ibilli zebiltzak, goia miatzatu beharka... I mutilzar gogortua ago, ta ez bide dek azken ori sinisten. Erruki aut, gizona! Etzak parre-rik egin.

Baiña itxon orain: dagoaneko begi-aurrean diagu nere mutiko zaarrena. Bost bat urte dizkik. Alki batera igo, egu-tegiari eguna kendu, ta bazetorkidak. Galderaz josiko na-

txiok... ea an zer jartzen duan; ea zergatik ura jartzen duan; ea zertarako jarri duan ura, ura jarri duanak; ea urrengo eguna igandea dan, ta ea zergatik igande ta (ez ostiral); ea zenbat lo eginda sartuko dan Orrilla —Maiatzari ala esaten ziotek orain—... Jakiña, azkenetako, zakurraren ipurdira bialia bear izan diat.

Ez dek samurtu. Etxean barrena an ziak orain, Tolosako ifñauterietako jo-aldi zoro aietarik bat joaz: *Tún-pa tún-pa tun, tarápatatún, tarápata túun-ta...*; eta abar: badakik zein esaten dedan. Alako zalapart eramangarri ezpaita, berriro oiú egin bear izan ziot, ixiltzeko. Luzaroko ez, noski.

Nondibait dabillen bitartean, ikusak bigarrena. Mutikoa, hau ere. Arako muxugorri begibeltx ura dek. Begira akiok: aurpegi biribiltxoan, bi kilker diruditela zeuzkak begiak, kantari. Au barexeagoa dek bestea baiño, zalaparta gutxiagokoa. Bere buruaz jolasten bazekik, eta ez dik ori jakite makala. Arkatz aundi-bat —*lapitzari* esaten ziotek arkatza— eskuan, eta aoan ere maiz, ingia (papera) lur gainean zabal, marrezka ziarduk. (*Dibujatzen*, alegia: ik euskera berria egoskaitza dek eta, argatik argibideok... O!, atsegin zeok umeokin, euskal-ikastolara dabiltzanez gero!...). Baiña, ara: oraintxe zutitu dek gure *dibujantea*: tatartxoia izanagatik, erroen biurri-antxak eta ibilkera aundizkoak alako gizon-tankera parregarria ematen ziotek. Tottelmotelko mintzoz, ingia eskuan dakardala, ala zio: —Aita! Dixonara iratzi: anttak e baritu!...

Ori esanda, berriro bere txokora joan dek, «dixon asto iraztera». (*Idatzi*, zerari... *eskribitzeari* esaten ziotek).

Baiña, ontan, emen zetorrek ixilka zaarrena, biurrikeri berriren bat asmatuta. Tiragoma eskuan dula, *dixon*-egilleari ogi-mami bildu bat kazkora irauzi nai litxioketek. Bearrik, garaiz iritxi nauk, eta kazkarreko bat emanaz or bialia diat berriz ere etxean zear.

Ikusi bezela, mutiko ttennte, xurigorri, piña diat; begiak aundi, gozo, pakezkoak dizkik: arkume otzanarenak bezain... Baiña, itxuraz bestez, eziñegon urduria dek. Aren aldamenean, iñor etxegokek geldirik.

Baiña ixo, gazteok: oraintxe zetorrek eta, sukaldetik igesean, danetan biurriena; neska, alabearrez... (*Porkuanto-bós*, esango ukek ik). Ikusak orain atean: begiaundi, xudur-piporta, gaixto-irri zetorrek, oi bezela, arentzako ainbat

pixa-oial sortzerik ezpaitago kristau-etxeetan. Bazetorkidak, eta berriketa luze bat egin zidak. Ik ulertu al diok? Nik ere ez. Esperanto-modu bat asmatua dik, eta arekin aritzen dek. Bereala, eldu zidak eskuko beatz lodia, nagon alkitik derriorean jaikiarazi, ta an naramatzik zuzen-zuzenean «berak dakian xoko batera»... Gozo-ontzitik azukre koxkor bat atera ta eman izan ez banio, aundia gerta zitekekan gure etxean!... Arrapatzen nauen bakoitzeko eginbearra diat ori. Badakik, mutilletan ere, neskaxa gazteentzako bigunbera samarra nindukan...

Azkenik, seaskan esna, guzior jardun ta ots artean, beti parre-antza, beti jaramon-eske, beti larde-jario, ta beti titirako pronto, or zegok aurtxoena; gure begi-alai, buruzuri txikia: urte erdi doi-doi betetako gizontxoia.

Ontan, berriro zetorkiguk zaarrena, berak egindako mozorroa arpegiari txistuz itsatsita, buruan ingizko ginbail aundi bat dula. Esan diat, bere txotxolo arpegi ta guzi, au etxean dagon arte pakerik ez dagola.

Ez-uste batean, or zijoakiok baxterrean «dixonak irazten» ari uanari. Jotzen dik besoan, beraizik, eta, jakiña, «dixon»berri eginerdiari «antta» samurtu. Samurtu dek ertilaria ere ta asi dek karraxika, estea sabeletik xintzilika baile-rión. Or naasi dituk biak, ukabilka. Alderik alde, elkarren eskera ta elkarri eskainka egiñalean dabiltzala, jo ta ankaaz gora bota ditek nexka gaxoa; ta, txikiaren seaska ere iraultze-arrenean jarriz, etxe osoa bete ditek marruz, iskanbillaz ta dunbateko gaitzez.

Eskuak eta ipurdiak, elkarrekikoan, oi duten ots berezia ere aguro asi uan, ala bear ere, ta maiz samarka arranoak ez badu; ta nekez bederik, noizpaitetan, batzu erdi errenka ta bestetzu oso narrazka, zuzendu nizkian danak sukaldaruntz.

Oeratu ziranean, orratik, gure pakea!... Josapat-zelaiean epai ondorengo zirudiken. Aterruna ari gogoa atxikita, leen erauntsiaren oroitzez artean aundiak ere ixilik geundela, sugarren gorabear kizkurrari begiak josita, nere buruari ala nitxion: —Ta, alaz guziaz ere, koxkor hoiek bein ere ez azitzea nai nitek! Nere esku balego, gurasook zaartu arren, oiei gaurkoxe tamañan eutsi nai nitxiotekek...» (1).

(1) «Lizardi», *Itz-lauz*, San Sebastián, 1972, 16-19. orr.

Hizkuntzaren funtzioak, hizkuntza erabiltzeko mailak, hizkuntzaren espresio formak eta adierazpideak aztertzeko texto egokiagorik ezin dezakegula aukeratu esango nuke.

Lehenengo ta behin, nahiz eta reflejoki ez ezagutu, praktikoki oso ondo ezagutzen ditu Lizardik hizkuntzaren funtzioak. Begira:

1) Hunkipenak, sentimenduak adierazteko erabiltzen du (*adierazkor funtzioa*): «Erruki aut, gizona!», «O!, atsegin zeok umeokin», «gure pakea!».

2) Ideiak, pentsamenduak adierazteko erabiltzen du (*erakuspen funtzioa*, funtziorik inportanteena): «dagoaneko begi aurrean diagu nere mutiko zaarrena», «alako zalaparta eramangarri ezpaita», «bere buruaz jolasten bazekik».

3) Irakurleari zerbait oharrarazteko erabiltzen du (*dei funtzioa*): «itxon orain», «baiña ara», «ixo, gazteok», «ikusak bigarrena», «begira akiok».

4) Idazlea (Lizardi bera kasu hontan) ta irakurlea elkarganatzeko erabiltzen du (*lotura funtzioa*): «ordun, adiskide», «erruki aun, gizona!», «esan diat», «badakik».

5) Pentsamenduak eta sentimenduak literatur adierazpideen bidez adierazteko erabiltzen du (*estetika funtzioa*): «txingor ttuntun-otsa», «dardara giarragoz ibilli zebiltzak, goia miatzatu bearka...», «bi kilker diruditela zeuzkak begiak, kantari», «karraxika, estea sabeletik xintxilika baile-*rion*», «elkarren eskera ta elkarri eskeinka».

6) Hizkuntzari buruz zerbait adierazteko, hizkuntzaz hitz egiteko ere erabiltzen du, azkenik (*metabizkuntzazko funtzioa*): «lapitzari esaten ziotek arkatza», «Idatzi zerari... *eskribitze*ari esaten ziotek».

Hizkuntza erabiltzeko mailak ere (naturala ta artifizia) berehalaxe ikusten dira texto hortan. Hara:

1) Familiakoen artean edo lagunuen edo ezagunen artean erabiltzen den elkarrizketa mailako euskara bizi indartsu adierazkor herrikoia darabil batzutan Lizardik: a) Hikako aditzak erabiltzean: «goxoa oi dek», «argiako ziruditek», «ibili zebiltzak», «gogortua ago», «erruki aut», «etzak parerik egin»... b) Esakeretan: «Zakurraren ipurdira bialiar izan diat», «arentzako ainbat pixa-oiak sortzerik ezpaitago», «beti *lerde-jario*», «eskuak eta ipurdiak», «arranoak ez

badu»... d) «Fonologiatik kanpo» dagoen haur hizkuntza berezia erabiltzean: «*Dixona iratzi: anttak e baritu*»... e) Diminutiboetan: «aurpegi biribiltxoan», «tatartxoia izanagatik», «gizontxoia»... f) Hotsitzetan: «*Tún-pa tún-pa tún*», «*tottel-motelko*», «*dunbateko*», «*kazkarreko*»...

2) Herri maila hortatik sorturiko goimailako literatura hizkuntza ere ba darabil Lizardik: a) Literatura adierazpidez baliatzen denean (laster ikusiko ditugu zeintzuk diren). b) Elkarrizketako zabarkeriarik ez erabiltzean: «adiskide» (ta ez «aiskide», «orain» (ta ez «oain»), «gutxiagokoa» (ta ez «gutxigokoa»)... d) Mitologiako, historiako, herri-jakin-tzako... kulturgaiak erabiltzean: «Tolosako inauterietako joldi zoro aietarik bat joaz», «berak dakian xoko batera» (Elizanbururen *Besta biaramuna*-ko «berek dakiten xoko batian» eratuz)... e) Herrian gutxi erabili ohi diren hitz berri edo kultoak erabiltzean: «egutegia» (kalendarioa), «esperanto-modu bat», «gozo-ontzi», «ginbail» (sonbrero), «ertilari» (artista) (baileion) (dariola balu bezala), «iraultze-arrenean» (irauli aginean), «gaurkoxe» (gaur gaurko)... f) Adierazkor funtzioaren ugaritasunean: «ibilli zebiltzak», «muxugorri begibeltx», «xudur-piorta», «neska gaxoa»... g) Hitz joko ta joskera berriak sortzean: «gaizto-irri», «yaramon-eske», «...antta» samurtu. Samurtu dek ertilaria ere», «elkarren eskera ta elkarri eskainka», «iraultze-arrenean yarriz» eta abar.

Literatura hizkuntza horren espresio formarik behine-nak ere (deskripzioa ta narrazioa) maisuki moldaturik agertzen dire *Etxe-barne bizia*-n; inpresionisten erara moldaturik, bere olerkietan bezalaxe.

Manet-ek eta Renoir-ek pinturan, Debussy-k eta Falla-k musikan, Maeterlinck-ek, Mallarmé-k eta «Clarín»-ek literaturan, banaka, isolaturik jarritako pintzeladen, akordeen eta hizkuntz elementuen bitartez kuadrari, sinfoniari ta idazlanari barneinpresio bat sortzen duen forma bat, osotasun bat ematen diote beste inpresionista askoren antzera. Berdintsu egiten du Lizardik ere, sentiberatasuna adierazten duten hitzak, diminutibo hizkiak, bustidurak, galderak, exklama-zioak... isolaturik pilakatuz, kolore mantxa ta akordeen antzera: «goxoa», «mutiko», «neskatxa gazteentzako bigunbera samarra», «gizontxoia», «barexeagoa», «muxugorri begibeltx»,

«Erruki aut, gizona!», «O! atsegin zeok», «Ik ulertu al diok?», «koxxkor oiek bein ere ez azitzea nai nikek!»... eta abar. Baina banan azter ditzagun deskripzioa ta narrazioa.

1) Lehenengo ta bat, deskripzio mueta berezi bat agiri da Lizardiren texto hontan, euskal olerkietan eta prosan gutxitan ikusi ohi dugun deskripzio mueta: literatura argazkia. Hona hemen Oihenarteren olerkietatik eta Daskonagerren *Ateka gaitzeko oihartzunak* nobelatik (lehen euskal nobelatik) jasoriko bi adibide:

«Izena du Graziana
graziaz bet'izana;
dihulatez nerok
harraz maitatu izana.

Ezta gupi, ez zehar, ez,
bana xuxen bizkarrez,
zehe-batez lait-izar
gerri hori meharrez.

Adats ikustekoa,
aztaleranokoa,
leunez, baitare mehez,
zetaren gainekoa.

Ederrenen bardina
(ezpadohat'aintzina)
da begitartez, eta
diskret oboro ezina.

Ahoño, mihi ozena,
hortzik den aratzena,
begi bizi, so hutsaz
maitarazi diroena.

Lepo arrai miratzeko,
goxo besarkatzeko,
bolarr'ask'ilunbean
argi zerbitzatzeko.

Oina, kaizuz, nolako?
Ikusten gogarako:
ukaraia, besoa,
aran-lil'itxurako.

Esku eta zango biak
xuri bezain gutiak,
eri mehe, gaineti
zilarztatu iduriak».

«Huna euskaldun gizon gaztea: ederra da kantarben seme guziak bezala; gapelu erdin bat dauka buruan, erdi eroria eskuineko beharritat; maipolisa sorbalda batean, gorputza lixto eta xuxen gerriko batez inguratua; soineko atorra elurra baizen xuria du; birazka zilarrezko botoinek dauzkate haren atorra mahukak eta batek fola; zangotan espartañak gurutzekara zinta gorriak amarratuak; makila bat eskuan dabilka, noizetik noizerat itzulikatuz *Tambour-major* beko-kiarekin.»

Euskal idazleok egin dituzten bezala, literatura argazki batzuk egin ditu Lizardik ere. «Emaztea ta guziok onik gaudela esatea atsegin zaidak. Nere koxxkorak ezagutzen ez ditukela-ta aien argazki (erretatu) bat eskatzen didak. Ni ortan, orde, zabar-samarra nauk, eta erretatuz etxeon ez gatxeok orreïn ornituak. Baña, dana dala, eure begiz nexka-mutikook ezagutu bitarteko, neronek egingo diat, nere eskuz, argazki...ta, ia zine ere esateko natxegok: «etxe-barne bizi» bat egingo diat, erderaz *bodegón viviente* esango ba-genduke bezela. Bart-arratseko ordu-erditxo bat dibujatuko diat...» (X. Lizardi, *Itz lauz*, San Sebastidu, 1972, 16. orr.).

Lehen esan bezala, inpresionisten erara egiten ditu Lizardik literatura argazkiak, kolore mantxa bizi isolatu adierazgarri. Ikus ditzagun, banan banan, literatura argazkiok:

a) Seme zaharrenarena: «dagoaneko begi-aurrean diagu nere mutiko zaarrena», «bost bat urte dizkik», «galderaz josi-ko natxiok», «bere txotxolo arpegi ta guzi, au etxean dagon arte pakerik ez dago», «mutiko ttennte, xurigorri, piña diat; begiak, aundi, gozo, pakezkoak dizkik: arkume otxanarenak bezain... Baiña, itxuraz bestez, eziñegon urduria dek. Aren aldamentean iñor etzegokek geldirik.»

b) Bigarren semearena: «ikusak bigarrena. Mutikoa au ere. Arako muxugorri begibeltx ura dek. Begira akiok: aurpegi biribiltxoan, bi kilker diruditela zeuzkak begiak, kantari. Au barexeagoa dek bestea baiño, zalaparta gutxiagokoa. Bere buruaz jolasten bazekik, eta ez dik ori jakite makala», «tarttxoa izanagatik; erroen biurri-antxak eta ibilkera aundiz-

koak alako gizon-tankera ematen ziotek. Tottelmoteltxo mintzo».

d) Alabarena: «danetan biurriena: neska, alabearrez...», «begiaundi, xudur-piporta, gaixto-irri zetorrek, oi bezela, arentzako ainbat pixa-oil sortzerik ezpaitago kristau etxeetan», «esperanto-modu bat asmatua dik, eta arekin aritzen dek», «gozo-ontzitik azukre-koakor bat atera ta eman izan ez banio, aundia gerta zitekean gure etxean!», «arrapatzen nauen ba-koitzeko eginbearra diat ori».

e) Hirugarren semearena: «Azkenik, seaskan esna, guzian jardun eta ots arteon, beti parre-antza, beti jaramon eske, beti larde-jario, ta beti titirako pronto, or zeok aurtxoena; gure begi-alai, buruzuri txikia: urte-erdi doi-doi betetako gizontxo».

2) Nahiz eta deskripzio berezi horiek agertu, narrazio bat da, gehien batean, Lizardiren *Etxe-barne bizia*, fikziozko edo benetako adiskide bati egindako kontaketa idatzia. Deskripzioa narrazioaren osagarri bat da, kontaketa argigarri.

Lizardiren denborako pelikula mutu baten sekuentzia bat dirudi *Etxe-barne bizia*-k (Charlie Chaplin-en pelikularen batena, esate baterako). Lizardi ta beronen adiskidea sekuentzia hori ikusten daude, ta Lizardik, «of» ean dagoen ahots bezala, azaldu egiten dio adiskideari. «Ia zine ere esateko natxegok». Hona hemen zer ikusten den sekuentzia horren hasieran: Lizardiren etxeko atari iluna ikusten da babazuza zaparradaren artetik. Etxe barruko suaren garrak argitu egiten du leioa, ta leihotik Lizardi ta bere seme-alabak ikusten dira. Alki batera igo, egutegiari eguna kendu ta Lizardirengana doa semerik zaharrena. Zerbait esaten ari zaio...

Hona hemen zer esaten duen, bien bitartean, Lizardik: «Atarian illun, ta leioan txingor ttuntun-otsa diranean, goxoa oi dek etxeko sutondoa. Ala bart, gurean. Ta, etxebarrutik aur-zarata balebil, areago; ordun, adiskide, suaren garrak argi-ago ziruditek; dardara giarragoz ibilli zebiltzak, goia miaztu bearka... I mutilzar gogortua ago, ta ez bide dek azken ori sinisten. Erruki aut, gizona! Etxak parrerik egin. Baiña, itxon orain: dagoaneko begi-aurrean diagu nere mutiko zaarrena. Bost bat urte dizkik. Alki batera igo, egutegiari eguna kendu, ta bazetorkidak. Galderaz josiko natxiok... ea an zer jartzen duan ura, ura jarri duanak; ea urrengo eguna igandea dan,

ta ea zergatik igande ta ez ostiral; ea zenbat lo eginda sartuko dan Orrilla...»

Narradore baten kontaketa bat da *Etxe-barne bizia*. Baina, hala ere, elkarrizketa kutsua du narrazioak: a) Bigarren pertsonan egin delako gehien batean (Lizardi ta bere adiskidearen arteko elkarrizketa bat balitz bezala): «badakik zein esaten dedan», «*Porkuantobós*, esango ukek ik», «Ik ulertu al diok?», «Esan diat... b) Gainera, zuzenetara edo zeharretara, elkarrizketa batzuk (Lizardi ta bere umeen artekoak) aipatzen direlako: «ala zio: —Aita! Dixona iratzi: anttak e baritu...», «Galderaz josiko natxiok... et an zer jartzen duan; ea zergatik ura jartzen duan; ea zertarako jarri duan ura, ura jarri duanak; ea urrengo eguna igandea dan», «ixo, gazteok».

Elkarrizketa kutsua duen bakarriketa luze hortan, gainera, narradoreak bere artean egiten duen bakarriketa bat ere agertzen da: «nere buruari ala nitxion: —Ta, alaz guziaz ere, koakor oiek bein ere ez azitzea nai nitek! Nere esku balego, gurasook zaartu arren, oiei gaurkoxe tamañan eutsi nai nitxio tekek...»

Bai deskripzioan eta bai narrazioan, inportantzia handia du hitzen hautaketak.

Deskripzioan (izakien egoera *leku* batean) sustantibo eta honen inguruan doazen izenlagun kalifikatzaile adierazgarriak, konparazioak eta esaldi enuntziatiboak dute inportantziarik handiena. Begira nola aukeratzen dituen Lizardik: «*Atarian ilun, ta leioan...*, «*etxeko sutondoa*», «*Arako muxugorri begibeltx ura dek*», «*aurpegi biribiltxoan, bi kilker diruditela zeuzkak begiak, kantari...*», «*mutiko tente...*», «*ezinegon urduria dek*», «*or zegok aurtxoena*».

Narrazioan (izakien ekintza *aldi* batean) aditzak du inportantziarik handiena. Eta orain aldi idazteak, lehenengo ta behin, gaurkotasun bat ematen dio narrazioari, narradorea eta irakurlea denbora batean jarriz: «*dagoaneko begi-aurrean diagu nere mutiko zaarrena*», «*ikusak bigarrena*», «*oraintxe zutitu dek*», «*gizon-tankera parregarri ematen ziotek*», «*gaizto-irri zetorrek*... Lehen gertaturiko gauza bat azaltzen ari da Lizardi, «*bart-arratseko ordu-erditxo bat*». Eta, jakina, lehen aldi idatzirik dago *Etxe-barne bizia*, kontaketa gehienetako antzera: «*Ala (izan zen) bart, gurean*», «*ots berezia aguro asi uan*», «*zuzendu nixkian danak sukalderruntz*»,

«*oeratu ziranean*», «*epai-ondorengoa zirudiken*», «*ixillik geundela*», «*nere buruari ala nitxion*». Baina hasieran eta amaieran bakarrik darabil lehen aldia, kuadruaren marko bezala, narrazioa bere aldian eta lekuan jartzeko bakarrik. Erdian, gehienez, orain aldia darabil (presente historikoa) lehena oraingotuz ta narrazioari aparteko bizitasun ta bizkortasun bat emanaz. Gainera, haurren ezinegonari dagokion bizitasuna ta bizkortasuna adierazteko, mugimenduko aditzak aukeratzen ditu: «*ibilli zebiltzak*», «*bazetorkidak*», «*an ziak orain*», «*begira akiok*», «*marrezka ziarduk*», «*oraintxe zutitu dek*», «*ingia eskuan dakardala*», «*emen zetorrek*», «*el-du zidak*», «*or ziyoakiok*», «*botaditek*»... Eta bigarren pertsona erabiliz, irakurlea bera ere bereganatu, narrazioatu egiten du Lizardik.

Hasieran esandakoa berriz esanez, hizkuntzaren funtzioak (*adierazkor funtzioa, erakuspen funtzioa, dei funtzioa, lotura funtzioa, estetika funtzioa, metabizkuntzazko funtzioa*), hizkuntza erabiltzeko mailak (*naturala ta artifiziala*), hizkuntzaren expresio formak (*deskripzioa, narrazioa, elkarrizketa, bakarrizketa*) eta adierazpideak aztertzeko ta ikasteko berebizikoa dela esan behar Lizardiren texto hau. Goazen, ba, azkenik, adierazpideak aztertzeraz.

Beharrezko ez diren adierazle guztiak kenduz, elipsisa da Lizardik (Lizardi inpresionistak) gehien darabilen adierazpidea. Bizkortasuna ematen dio elipsisak komunikazioari eta ahoz-ahozko hizketaren arintasuna ta bizitasuna. Gainera, batbateko sentimendu bizi, sakon eta azkarraren expresiobideak ez luzatzeko ere berebizikoa da elipsisa.

Esaldien elipsisa ikusten dugu berehalaxe *Etxe-barne bizia*-n, eta etendura puntuen bitartez adierazten du hori Lizardik: «*goia miatzatu-bearka...*», «*tarápata túun-ta...*», «*argatik argibideok...*», «*euskal-ikastolara dabilzanez gero!...*», «*anttak e baritu!...*», «*arkume otxanarenak bezain...*», «*nexkaa alabearrez...*», «*berak dakian xoko batera...*», «*aundia gerta zitekekan gure etxean!...*», «*neskatxa gazteentzako bigunbera-samarra nindukan...*», «*gure pakea!...*». Ahoz-ahozko elkarrizketetan gertatzen den bezalaxe ederki aditzen dira falta diren esaldiak ta ohi ez bezalako bizitasun bat hartzen du horrela narrazioak.

Beste alde batetik, esaldi nagusi ta menperatuen atxikidura, kateamendu ta luzamendua ere eten egiten du Lizardik lotura hizkien elipsisaz esaldi luzeak zatikatuz ta puntu artean edo puntu ta koma artean esaldi laburrok jarriz: «*Ikusi bezela, mutiko ttentte, xurigorri, piña diat; begiak aundi, gozo, pakezkoak dizkik: arkume otxanarenak bezain... Baña, itxuraz-bestez, eziñegon urduria dek. Aren aldamenen, iñor etzegnokek geldirik.*», «*Bazetorkidak, eta berriketa luze bat egin zidak. Ik ulertu al diok? Nik ere ez. Esperanto-modu bat asmatua dik, eta arekin aritzen dek.*» Aditzen elipsisa ere askotan nabari da: «*Ala bart, gurean*», «*Luzaroko ez, noski*», «*Mutikoa, au ere*», «*Nik ere ez*», «*gure pakea!...*». Nire ustez, elipsis hauetan datza, batez ere, Lizardiren pro-saren berezitasuna.

Anafora edo errepetizioz ere baliatzen da Lizardi zerbait argiago adierazi nahi duenean, seme baten ekina, esate baterako: «*Galderaz josiko natxiok... ea an zer jartzen duen; ea zergatik ura jartzen duan; ea zertarako jarri duan ura, ura jarri duanak; ea urrengo eguna igandea dan, ta ea zergatik igande ta ez ostiral; ea zenbat lo eginda sartuko dan...*» Edo seme baten izakera berdintsua adierazteko ere anaforaz baliatzen da: «*beti parre-antza, beti yaramon-eske, beti lerderyario, ta beti titirako pronto...*».

Konparazioak eta metaforak ere behin eta berriz erabiltzen ditu Lizardik deskripzioa edo narrazioa argitasunez eta kolorez jartzeko: «*bi kilker diruditela zeuzkak begiak*», «*erroen biurri-antxak eta ibilkera aundizkoak alako gizon-tankera parregarria ematen ziotek*», «*arkume otxanarenak bezain...*», «*esperanto-modu bat asmatua dik*», «*mutilletan ere, neskatxa gazteentzako bigunbera-samarra nindukan...*», «*estea sabeletik xintxilika bai'lerion*», «*eskuak eta ipurdiak, elkarrekikoan, oi duten ots berezia ere*», «*Yosapat-zelaiean epai-ondorengoa zirudiken*», «*txingor ttuntun-otsa*», «*leen-erauntsiaren oroitzez*».

Hurrei buruzko narrazioei dagozkien bezala, bustidura ta diminutibo adierazkorak ere erruz erabiltzen ditu Lizardik. Hona hemen bustidura adierazkorak: «*ttuntun-otsa*», «*muxugorri begibeltx*», «*biurri-antxak*», «*mutiko ttentte, xurigorri*», «*otxanarenak*», «*xudur-piporta, gaixto-irri*», «*nexka gaxoa*». Eta hona hemen diminutibo adierazkorak: «*mutiko*»,

«biribiltxoan», «barexeago», «tatartxoa», «azukre-koxkor bat», «neskatxa», «aurtxoena», «gizontxoa», «gaurkoxe».

Deklinabideko plural hurbil adierazkorra ere beste askok ez bezala darabil Lizardik, gertaera ta kontaketa hurbilduz: «argatik *argibideok*», «atsegin zeok *umeokin*», «ixo, *gazteok*», «*guzion* yardun ta ots *arteon*», «artean *aundiok*», «*gurasook* zaartu arren».

Eta, azkenez, Txomin Agirreri buruz esandakoa esan behar Lizardiren joskerari buruz ere, hau da, ondo ta oso naturalki betetzen dituela Seber Altubek jarritako joskera legeak. Ikus: M. Zarate, *Euskal literatura (Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak)*, Bilbao, 1977, 29. Orr.).

Imitagarria benetan Lizardiren prosa!

BARBIER, PROSISTA OLERKARI

Beti entzun izan dut «bertzaldeko» prosa hemengoa baino landuagoa dela, dotoreagoa. Eta prosista batzuren literatura lan batzuk irakurri ondoren, horrelaxe dela esan behar nik ere.

Egia horren sustraia hontan datza, ene ustez: izakien Egia ta Ederra literatura bidez birsortzeko teknikak sakonkiago ikasi dituzte «bertzaldeko» prosistek ta letren balioa ta musika ta esaldien ritmoa hobekiago ezagutzen dituzte; labur esanda, prosistarik onenak poetak ere izan dira, ta (konturatuta edo konturatu barik) olerkigintzako ritmo, rima, eten, geldiune, adierazpideak eta abar prosaratu egin dituzte, poesi kutsu atseginez prosa lurrunduz.

Beste batzuren artean, Jean Barbier (1875-1935) izan dugu prosistarik jatorrenetariko bat.

Irakur dezagun bere literatura texto bat.

Antxitxarburuko buhamiak

«Donapaleutik heldu zira Donibane-Garazirat buruz. Donazaharren sartzean berean ezkerretarik ikusten duzu etxe-moltzo bat: herrixka bat bezala egiten dute egoitza horiek, eta hori dute Antxitxarburu deitzen. Etxeak arras apalak dira, frango fundituak, biziki okerrak. Hetan bizi da jende ibilkari mota berezi bat, buhamien kasta.

Gertatu zautzuia xinaurri-mukurru baten zirikatzea? Zure makilaren punta sartu dakozuneko, ukumiloa bezain ttipiko mokor hortarik harritzeko da nolako xinaurri-elementia ateratzen zautzün, ezker, eskuin, harat-hunat ibilki.

Antxitzarburun areagoko zerbait hautemanen duzu. Urbil zite borta batetara. Ez duzu ez jotzerik, ez helatzerik. Zure urratsa laster senditua da: haur mukuzu tropa bat gainean duzu, batek eskua heda, bertzeak sakela, bertze batek boneta (balin badu segurik, zeren gehienak buruhas baitabilta, neska ala mutiko). Ai, orduan urrikari zitut, bidaiant gaixoa! Ezin aintzina joan, ezin gibelerat itzul.

Haurreria guzia laparra bezala lotua zaitzu alde guziatarik, pusaka, tiraka, «amoina» garrasian errepikatuz. Leihoen-gibelek begi beltz batzu zuri so irri maltzur batekin. Ez bide dakozute gizon edo emazte hoierik laguntzarik galde eginen umetarik salbatzeko?

Orduan ez duzu ihesbide bat baizik: har zure moltsa, sos zombait ahurrerat bil, eta aurdik urrun ahala urrun gibelerat: haurrak trumilka laster eginen dute norik sosa eskura.

Arte hortaz balia, zoazi, zoazi ahal bezain fite, ez daukitzun berriz jin setiaterat. Izan zitez apez ala auzapez, ezar ezazu zure difinitatea sakelan, eta emazu ihesari ohoin baldurti bat bazine bezala.» (1).

Ipuin baten antzeko egitura du (Barbierren *Ixtorio mixterio* ipuin sortan agertzen diren ipuinen antzekoa), hots:

1) Protagonistaren prezentazioa (lekutzea ta egoera baketsua).

2) Protagonistaren egoera aldatzen duen gertaeraren bat.

3) Egoera estua ta larria.

4) Egoera hori zuzentzeko ekintza baten beharrezana ta laguntzaileen premia.

5) Ekintza ta protagonistaren egoera baketsua berriz ere.

Protagonista Barbier bera da, geu gara, edozein da kon-taketa hontan (aditz erak aztertzerakoan ikusiko dugunez).

Donazaharren dago protagonista. Herriaren sarreran. Etxe moltzo baten aurrean. Ijitoen hauzune nabarmenean. Pelikula bat egiteko kamara dirudi Barbierren lumak. Hiru-lau tomarekin pelikularen barnean sartzen gaitu.

(1) Jean Barbier, *Antxitzarburuko buhamiak 1895ean*, Erakasle-k bilduriko *Euskal alorretik...* Iorategian, (?), 1970, 62. orr.

Gertaera azaldu baino lehen, bide ondoko inurri pilo bat erakusten digu, berehalaxe jazoko den gertaeraren sarrera ta irudi bezala. Eta bat batean, gertaera; ta estu ta larria ijitoen haurreria erdian: «haur mukuzu tropa bat gainean duzu, batek eskua heda, bertzeak sakela, bertze batek boneta...»; «ezin aintzina joan, ezin gibeleterat itzul»; «haurreria guzia laparra bezala lotua zaitzu alde guziatarik, pusaka, tiraka, «amoina» garrasian errepikatuz».

Laguntza bila protagonista. Alperreko bilaketa: «ez bide dakozute gizon edo emazte hoierik laguntzarik galde eginen umetarik salbatzeko?». Bakarrik egin beharko du protagonistak egitekoa; ez dago beste ihesbiderik: «ez duzu ihesbide bat baizik...», «arte hortaz balia, zoazi, zoazi ahal bezain fite...». Eta protagonistaren egoera baketsua berriz ere.

Ahoz ahoko kontaketatik gertatzen den legez, esaldi motzak darabilzki Barbierrek ta esaldi nagusi asko ta menperatu gutxi. Jakina, honek bizitasun, isurtasun ta bizkortasun gozagarri bat ematen dio kontaketai.

Beste alde batetik, eta ahazko ahoko kontaketatik gertatzen den legez berriro ere, aditz formen eta deklinabide atzizkien elipsisak ugari dira: «batek eskua heda (tuko dizu), bertzeak sakela (hedatuko dizu), bertzeak boneta (hedatuko dizu)...»; «ezin (zaitezke) aintzina joan, ezin (zaitezke) gibelerat itzul»; «nolako xinaurri-elementia ateratzen zautzun, ezker (retarat), eskuin (etarat), harat-hunat ibilki.» Ta honek ere arintasun bat ematen dio narrazioari.

Gainera, aintz esaldi paraleloki jarriarik daude: «etxeak arras apalak dira, frango fundituak, biziki okerrak»; «ezin aintzina joan, ezin gibelerat itzul»; «har zure moltsa, sos zombait ahurrerat bil, eta aurdik urrun...» (kiasmoaren adierazkortasun ta edertasunez baliaturik josita). Teknika honek ere ba du bere garrantzia ta eragina narrazioaren higiduran.

Hasieran esan dugun bezala, esaldion laburtasun, elipsis eta paralelismoaren sustraia Barbier olerkariarengan egongo da agian. Hain zuzen ere, prosazko literatura texto hontan olerki kutsua nabari da. Hara adibide batzuk:

Ai, orduan urrikari zitut
bidaian gaixoa!

(10)
(6)

Ezin aintzina joan,	(7)
ezin gibelerat itzul.»	(8)
«laparra / bezala	(6)
lotua	(3)
zaitzu alde guzietarik,	(9)
pusaka, / tiraka,	(6)
«amoina»	(3)
garrasian errepikatuz.»	(9)
«Arte hortaz balia, zoazi,	(9)
zoazi ahal bezain fite,	(9)
ez daukitzun berriz	(6)
jín setiatzerat.»	(6)

Esaldion joskera aldetik ere ba du Barbierren texto honetik jakingarririk asko. Lehenengo ta behin, ondo betetzen ditu galdegaiaren legeak: «*herrixka bat bezala* egiten dute egoitza horiek, eta *hori* dute *Antxitxarburu* deitzen.» Eta estilistika mailako legeak ere bai: «*hori* dute *Antxitxarburu* deitzen».

«Los vascos orientales se valen con frecuencia de un giro especial, muy expresivo, para recalcar aún más el carácter inquirido de los miembros de oración. Consiste en desarticular la flexión perifrástica invirtiendo sus componentes a fin de hacer seguir el nombre verbal al terminativo auxiliar; véase en los siguientes ejemplos:

«Han» *zako* lotzen bizkar-hezurrari. (En vez de «Han» lotzen *zako*...)

El miembro «Han» colocado inmediatamente antes de la flexión auxiliar *zako* alcanza un relieve particular muy acomodado a su carácter de inquirido.

«Hola» *lezake* gobernamentuak ororen ona *bila*.

En esta oración los términos de la flexión verbal *bila lezake* no sólo aparecen invertidos, sino separados por la interposición de otros vocablos de la misma oración. Igual sucede en los dos siguientes ejemplos:

«Makurtu huntaz» *gira* halere huntan *mintzatuko*.

«Hetaz» zen itz hori *erraten*.

En el ejemplo siguiente, la flexión perifrástica es compleja; su desarticulación se produce en la misma forma que en los ejemplos anteriores, o sea, trasladándose el nombre verbal propiamente dicho (*izan*) al último lugar:

Orratzak baino ariak «luzeago» *behar du* izan.

Aunque con menos frecuencia, también recurren a ese giro los vascos occidentales.» Altubetar Seber, *Erderismos*, 2. arg., Bilbon, 1975, 14 orr.).

Aditz perifrastikoen flexioak banandu ta joskera aldatzea bakarrik ez dela esango nuke nik, baizik eta flexioak banandu, joskera aldatu (atzekoz-aurrera jarririk) eta galdegai berri bat exartzea (galdegai baten ordezt bi jarririk), esaldiak adierazkortasun eta argitasun berri bat har dezan bi galdegairekin. Beste alde batetik, euskal literatura osoan klasiko-turik dugun ezezko esaldi batzuren joskera mueta baiezko esaldiei ezartzea baino besterik ez da hori.

Esate baterako, «Atzo ez nuen ikusi zure aita» esan beharrean «Atzo ez nuen *zure aita* ikusi» esaten dugu, beste adierazkortasun ta higidura bat emanez esaldiari. Eta baiezko esaldi bihurturik: «Atzo nuen *zure aita* ikusi». Altuberen beraren adibideak erabiliz: «*Hola lezake* gobernamentuak *ororen ona bila*» («*Hola bila lezake* gobernamentuak *ororen ona*»ren ordezt); «*Makurtu huntaz gira*, halere, *huntan mintzatuko*» («*Makurtu huntaz mintzatuko gira*, halere, *huntan*»ren ordezt).

Barbierrenganatz, hona hemen adibide batzuk: «Ez bide dakozute gizon edo emazte hoieri *laguntzarik* galde egiten *umetarik* salbatzeko?»; «ez daukitzun *berriz jin* setiatzerat»; «eta *hori* dute *Antxitxarburu* deitzen».

Aditz forma aldetik ere oso interesgarri iruditzen zait *Antxitxarburuko bubamiak*. Ipuinak kontatzean eta ahoz ahozko elkarrizketetan (edozein hizkuntzatan) maiz erabili ohi den bezala, bigarren pertsonari dagozkion aditz formak darabilzki Barbierrek, elkarrizketa kutsu bat emanez textoari. Gainera, lehen esanda daukagunez, aditz forma horiek jartzean, Barbier bera bihurtzen da protagonista (konnotapen maila batean, lehenengo pertsonaren —idazlearen *ni*-aren— *desdoblatze* bat izan daitezkeelako aditz forma horiek); geu ere bai (denotapen mailan, geu jartzen gaituztelako protagonista gisa aditz horiek); beste edozein ere bai (aditz forma horiek, beste konnotapen maila batean, hirugarren pertsonaren in-pertsonaltasunaren ezaugarri direlako). Ikus: M. Zarate, *Euskal literatura (Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak)*, Bilbao, 1977, 121 orr.).

Horrela, hiru ikuspuntu bezala dituela esan genezake narrazio honek:

1) «Ez *du* ez jotzerik, ez helatzerik. *Nire* urratsa laster senditua da» (konnotapen maila, idazlearen ni-aren ikuspuntua).

2) «Ez *duzu* ez jotzerik, ez helatzerik. *Zure* urratsa laster senditua da» (denotapen maila, «elkarrizketaren» ikuspuntua, protagonista geu garelarik).

3) «Ez *du* (*batek*) ez jotzerik, ez helatzerik. *Bere* urratsa laster senditua da» (konnotapen maila, inbertsonaltasunezko ikuspuntua).

Adierazpide legez, protagonistak egin behar duen ekin-tzaren premia gorri ta presa adierazteko, multzokatu egiten ditu aginterako aditzak: «*bar zure* moltsa, sos zombait ahurre-rat *bil*, eta *aurdik* urrun...»; «*zoazi*, *zoazi* ahal bezain fite, ez...»; «*ezar azu* zure difinitatea sakelan, eta *emazu* ihesari...».

Eta aditzak bakarrik ezezik, hitzak ere (hotsitzez baliatuz batzutan) multzokatu egiten ditu inurrian antzeko ijitoen bat bateko erasoaldi ta harrapalada adierazteko: «*ezker*, *eskuin*, *barat-hunat* ibilki»; «*pusaka*, *tiraka*, «*amoina*» *garrasian errepikatuz*».

Zer besterik? Irakur ezazu berriz *Antxitxarburuko buharniak*, azter ezazu zeure erara ta idatz ezazu horren antzeko narrazio bat. «Euskal literaturaren eginkizuna, behar beharrezkoa eta ber-bertatik ekitekoa, ezin hobeki agindua daukagu: larreko hizkuntza noranahiko egin, jakite-hegoz jaso, soin zaharrari gogo berria eman eta gogo horretan izar urdinetarainoko asmoak sortarazi.» (K. Mitxelena, *Mitxelenaren idazlan autatuak*, Bilbao, 1972, 29. orr.).

«Goazen lehen bait lehen Lizardik bere maitearekin amest bideetan barrena egin zuen bidaldi luzea berritzera. Bizitz lege zorrotza hauze baita: besteren ederra bereganatzen ez duena bestek besterenganatzen duela.» (*Ibidem*, 38. orr.).

IRATZEDER, KANTUZKO EUSKAL MISTIKO KRONIKARIA

Ez da erraza lau hitzetan gizon bat zer den esatea. Baina horixe dela uste dut nik Iratzeder olerkaria: kantuzko euskal mistiko kronikaria. Horrela agertu zait bere idazlanak banan banan irakurri ondoren.

Lehenengo ta behin, Iratzederren olerki sortak kantatzeko egina dela dirudi, kantu ritmo, rima ta neurri bat dutelako olerkirik gehienek, euskal bertsoek eta abestiak duten bezala. Eta, hain zuzen, anitz kantu-letra egindakoa da Iratzeder («Editions Ezkila»ren zuzendaria denez gero) eta, laster ikusiko dugunez, entzumen zolia du letrak ahozkatzen edo kantatzen direnean sortzen duten hots lakarra edo leuna, adierazkorra edo arrunta bereizteko.

«La phonétique basque, elle, ignore les *pénultièmes longues*: pas de *désinences féminines*, rien que des *finale*s fortes. Cette inexistence de *pénultièmes longues* constitue, à notre avis, le handicap fondamental contre toute tentative de psalmodie en basque qui prétendrait utiliser tel quel la genre psalmodique du R. P. Gelineau. Par ailleurs, nous avons déjà fait observer dans le LIMINAIRE que les Basques sont réfractaires au chant de la PROSE: ils réclament des textes qui soient non seulement *rimés*, mais encore mesurés quant au nombre des syllabes et *rythmés* selon un jeu donné de «césures».» (X. Diharce (Iratzeder) — G. Lerchundi, *Salmoak*, Bilbao, 1964, 17. orr.).

Ba daki, bai, Iratzederrek zer diren *Goxoa* ta *Neurria* ta *Sua*.

«Mendiz bertzaldeko Eskual-Herria
Ezin geiago zait xoragarria.
Badu bihotzeko Su pizgarria,
Zainetan indarra, soan irria.

Alde huntako Eskual-Herria
Etzait gutiago maitagarria.
Eztu bertzean den suzko-jauzia,
Bainan bai: Goxoa eta Neurria.»

(*Mendiz bertzaldeko...*)

Bigarren, euskal mistiko bat da Iratzeder, euskalduna ta euskaltzalea delako, Euskal Herria kantuz eta egitez (otoizka ta aitzurka —«ora et labora»—) maite duelako eta Jainkoarekiko maitasunean maite duelako. «La experiencia mística cristiana no consiste propiamente en una negación del mundo ni en el encuentro con el todo infinito, sino en un asumir el mundo en el encuentro amoroso con el Dios personal.» (K. Rahner — H. Vorgrimler, *Diccionario teológico*, Barcelona, 1966, 441. orr.).

«Maiz doazkit pertsu xortak bihotz barnetik gairdika,
Ene fraide anaiekin nabilalarik aintzurka.
Batean bat, bertzean bi, badoazkit maiz gairdika,
Goiko zerbait misterio xorta bakotzak baitauka.

Bai, bizi naiz Jauna baitan, bizi naiz ezin gehiago
Haren maitez, denen maitez, ixili-ixila bainago...»

(*Ai, zeruan!*)

Eta, hirugarren, kronikari bat da Iratzeder, bere bizitzako, bere familiako, bere gizarteko ta bere Euskal Herriko gorabeherak direlako bere etorriaren iturri, eta kronikariek egiten duten antzera bere olerkien azpian fetxa jartzen duelako beti. Non idatzi duen olerkia, nola abestu daitekeen eta gainerako zehaztasun bat edo beste ere jartzen ditu olerki batzutan.

«Gerla-ezkila zinez jo ondoan.
3-9-39 Donibanen»

(*Begiak*)

«9-8-40
Anaiaren ehortz-egunean»
(*Alargun*)

«1-10-49
Airea: «Mutil koxkor bat».
(*Eskual-anaiak!*)

Argibidezko sarrera hau egin ondoren, goazen, ba, Iratzederren olerki bat aztertzeraz.

«*Itsasoan*

Itsasoan, itsasoan,
Uhain zabal zoroan,
Urrunerat itsasoan
Zurekin maiz nindoan.

Ez zen han neurrik,
ez zen han mugarik!
Zu kapitain, ni lemazain,
Ez zen han gu bezain
Bihotzez alairik.

Urrunerat itsasoan
Zurekin maiz nindoan.

Ai, hango solasak,
Kantuak, ametsak!
Uhain zoroaz, amodioz
Betez han betikotz
Elgarren bihotzak.

Itsasoan, itsasoan,
Uhain zabal zoroan...

Geroztik nun gaude?
Zu hezur, ni fraide:
Zu zeruan, ni munduan,
Biak bat kantuan,
Eskualdunen alde.

Itsasoan; itsasoan...
Jainkoaren itsasoan,
Bozkario zabal eta osoan.

29 / 10 / 50" (1)

(1) Iratzeder, *Argiz argi*, Urt (Lapurdi), 1969, 34. orr.

Fetxa jartzen du; baina ez beste oharrik. Eta fetxak berak ere ez du, kasu hontan, ezer argitzen, lehenago hil zen norbaitekin olerkariak egiten duen «elkarrizketa» bat delako olerki hau.

Nor ote du Iratzederrek orain hezur bihurturik dagoen itsasgizon hori? Nor du hildako lagun maite hori? Gerratean hildako bere anaia ote da? Baiezkoan nago. Hain zuzen ere, kronikari batek zehaztasun asko ematen ditu han, hor eta hemen, eta Iratzaderrak ere horixe egiten du.

Hona hemen, ba, beste olerki batzutan ematen dizkigun zehaztasunak.

«Eskuratu dut atzo arrebaren hitza
Ikasi baitaut anai baten heriotza.
Azpian eman zautan: «Zure Mayi» eta
Nigar bat... ezin gordez pena horren gaitza.
Gaixoak! zertan zaizte Ama eta Aita.

Michel, nere anaia suhar eta hauta,
Berri beltz hori ezin sinetsia baita,
Zato, ager zakizkit, egidazu irri.
Zato lehen bezala dugun biek kanta;
Bi bozetan lot gaiten zure kantu horri:

«Ttipi ttipitik...» bainan bakarrik naiz ari;
Ahantzi ote zaitzu, oihuz nago zuri.
Zure anai leialaz, Michel, oroit zaite.
Itsasoan arrauka, mendietan kurri
Elgarrekin joaitea hain ginuen maite!

Orai denak ahantzi zaizkitzu, ba ote?
Bihotzek ahanterik sekulan ez dute:
Ixilik oroit zaude; ez zaitu ahantzi
Ez eta ahantziko zu ganat jin arte,
Zuri esker delakotz nere karra bizi.

Zuk dautazu Herria hola maitarazi,
Zure gogotik, zure karretik datortzi
Nere amets zabalak, pertsulari karra.
Hiltzekotan hiltze hau zinuen merezi:
Herriaren zaintzale, etsaier begira.

Goizean 19-7-40
Larresoron.»
(Hila da)

Argi dakusgu hor anaiaren heriotzaren berri ta elkar-
tasunezko lehen atsegingarriaren orointzapan atsekabetsua:
«Zato, lehen bezala dugun biek kanta»: «itsasoan arrauka,
mendietan kurri / elgarrekin joaitea hain ginuen maite!»

«Etsaia lanopetik heldu zen goiz hartan,
Eta zu bazinoazin denen aintzinean;
Bet-betan tiro batek jorik bularretan
Erori zira oihuz, odola burrustan...»

(Ixilik jautsi zinen)

Handik hamar urtetara herriratu zuten «kutxa bat he-
zur-errauts», «hil errauts ixila» zen anaiaren gorputza.

«Gerlan bil anaiaren
gorputza herriratu.

Ixilik jautsi zinen

«Ixilik jautsi zinen etxetik bidera,
Larrungo mendiari nigarrez begira...
Adi-ka zagokizun amaren daldara.
Bainan itzuli gabe ixilik joan zira.

Adi-ka zaitzu ama leiorat atera,
Ikusi nahiz handik azkengo agurra:
Bihotza urtzen duen azkengo so hura...
Bainan itzuli gabe gerlarat joan zira.

Zoin maite zinuen zuk eskualdun xokoa,
Larrunpeko zelaiak eta itsasoa!
Heier emanen zinen gogotik osoa...»

Bere anaiaren oroitzapenetan egindako olerki honen ardatza itsasoa da. Donibane Lohitzuneko itsasoan dago olerkaria (bere jaioterriko itsasoan), bere anaiarekin itsasoan emandako egunak itsasoaren higiduraz gogoratzen, eta, kristau fedearen argitan, Jainkoaren itsasoan ere ba dago, bozkariozko itsaso zabal eta osoan. Oroitzapenen ikuspuntua fedearen ikuspunturatuz, lehengo, oraingo ta geroko bizitza elkartu egiten ditu lirikotasun samurrez.

Hildako bere anaiak bezala, maite izan du beti itsasoa Iratzederrek.

«Arbasoen kar beroak
Erretzen nau ta zorutzen.
Itsasoa! Itsasoa!
Hire amets gaitz zoroak
Dault gogoan su ezartzen.

Nunbeit bizi Itsaslapur,
Uhainetan zabal, nausi!
Itsasoa! Itsasoa!
Ez deusetaz izan beldur,
Deus mugarik ez ikusi!»

(*Itsaslapur*)

«Oi, itsaso zabal zabalaren zabala!
Leihorretik maiz nindagon ezin asez hari so.
Maiz nindagon, amets zoroz irakitan odola,
Noiz ote nindoaken itsasoz itsaso.

Haur-haurretik ohakoan ardura naiz lokartu,
Itsas-aizeak fereka, tirain basak kantari.
Haren atsaren musuan naizelako handitu
Bihotzez beha nago itsaso-amari.

Gixontzean lagunekin zenbat aldiz gan naizen,
Beteliku bat harturik, arrauetan, dena su:
Uhainez uhain nindoan, Donibane ttipitzen
Urrunean ikusiz urgoi ta dohatsu.»

(*Arrainzale anaiak...!*)

«Apez jauntzi suharretan
Niri nausi, denen mutil,
Itsasoa! Itsasoa!
Nahi nuke uhainetan
Amodioz gazterik hil.»

(*Itsaslapur*)

Eta Jaungoikoarengana darama itsasoak beti Iratzeder berehalaxe, «Jainkoaren betearen beteaz bete» nahirik irritsetan dagoen olerkari mistikoa.

«Zainetako nere karra,
Sutan dautak joan gogo.
Itsasoa! Itsasoa!
Zabal, zabal ta azkarra,
Aipatzen duk Jaun Goikoa.»

(*Itsaslapur*)

«Itsasoa!

Zerk du, ba, zure baitan xoratzen gogo?
Zabal zabala zare, muga gabekoa:
Gogoratzen dautazu gure Jaun Goikoa.»

(*Itsasoa*)

Horrexegatik, bere anaia Michel gogoratzean, Jainkoarengana darama Iratzeder fedeak, eta nahiz eta hura «hezur» bihurturik ikusi haragizko begiekin, «zeruan» ikusten du fedezko begiekin.

«Geroztik nun gaude?

Zu hezur, ni fraide:

Zu zeruan, ni munduan,
Biak bat kantuan,
Eskualdunen alde.»

Bizirik dago bere anaia Jainkoaren baitan eta (zerua ta mundua elkartuz: «nun gaude?») berarekin ari da orain ere

Itsasoan; itsasoan...

Jainkoaren itsasoan,

Bozkario zabal eta osoan.»

Bi itsaso azaltzen diren gisara, bi zati ditu *Itsasoan* olerkiak. Lehenbiziko bost ahapaldiak osotzen dute lehenengo zatia ta beste biak bigarrena. Lehena ta oraina dira bi zatiok (eta aditzak ere horrelaxe daude: lehenaldian eta orainaldian —«nindoan», «zen» eta «gaude»—). Bosgarren ahapaldiaren azkenean agertzen diren puntuak adierazten dute bi zation etendura (itsaso batetik besterako aldakuntza).

«Itsasoan, itsasoan,

Uhain zabal zoroan...

Geroztik nun gaude?

Zu hezur, ni fraide.»

Izenburuan eta lehenbiziko ahapaldian (hiru aldiz) agertzen da, sarrera ez-titsu ta itsaskor bezala, olerkiaren melodiaren tema: *itsasoan*. Gero, behin eta berriro (behin hirugarren ahapaldian, bi aldiz bosgarrenean eta hiru aldiz, lehenengoan legez, azkenengoan) errepetitzen da.

Lehenbiziko ahapaldia ta azkenengoa izan ezik (sarrera ta azkena) paraleloki estrukturaturik dago *Itsasoan*.



Lehenbiziko ahapaldiak 8-7-8-7 silaba ditu ta amaiera berdina dute lau bertsoek: a-a-a-a.

Bigarren ahapaldia, laugarrena ta seigarrena berdin berdinak dira egitura aldetik. 6-6-8-6-6 silaba dituzte ta rima aldetik: a-a-b-b-a. Ahapaldion hirugarren bertsoek rima dute, gainera, barnean ere («rima al mezzo»), Etxapareren olerki batzuek duten antzera. Eta rima mueta horiek arintasun bat ematen diote olerkiaren higidurari.

Hirugarren ahapaldiak eta bosgarrenak ere egitura berdina dute (lehenbizikoaren errepetizio bat baino besterik ez dira). 8-7 silaba dituzte ta rima berdina: a-a.

Azkenengo ahapaldiak 8-8-11 silaba ditu ta amaiera berdina dute hiru bertsoek: a-a-A. «Jainkoaren itsasoan, bozkario zabal eta osoan» bertsoek ere zabaldu egin dira.

Baina, hala ta guztiz ere, ez dago hortan olerki honen ritmo bereziaren eragindura, beste bi gauzatan baizik.

Lenengo ta bat, lau ta hiru silabako zatiketa zehatz bat du olerki honek (bertso batean izan ezik) eta zatiketa horrek ematen dio itsasoko uhainen ritmo berezi hori. Eta lehenbiziko ahapaldia ta azkenengoa ere egitura berdinez daude zatiketa hortan. Begira:

Itsasoan,	(4)
itsasoan,	(4)
uhain zabal	(4)
zoroan,	(3)
urrunerat	(4)
itsasoan	(4)
zurekin maiz	(4)
nindoan	(3)
Ez zen han	(3)
neurritik,	(3)
ez zen han	(3)
mugarik.	(3)
Zu kapitain,	(4)
ni lemazain,	(4)
ez zen han	(3)
gu bezain	(3)
bihotzez	(3)
alairik.	(3)

Urrunerat	(4)
itsasoan	(4)
zurekin maiz	(4)
nindoan.	(3)
Ai! Hango	(3)
solasak,	(3)
kantuak,	(3)
ametsak!	(3)
Uhain zoroaz	(4)
amodioz	(4)
betez han	(3)
betikotz	(3)
elgarren	(3)
bihotzak	(3)
Itsasoan,	(4)
itsasoan,	(4)
uhain zabal	(4)
zoroan...	(3)
Geroztik	(3)
nun gaude?	(3)
Zu hezur,	(3)
ni fraide:	(3)
Zu zeruan,	(4)
ni munduan,	(4)
biak bat	(3)
eskualdu-	(3)
nen alde	(3)
Itsasoan;	(4)
Itsasoan...	(4)
Jainkoaren	(4)
itsasoan,	(4)
bozkario	(4)
zabal eta	(4)
osoan.	(3)

Beste alde batetik, sarreran esan dugunez, ba daki Iratzederrek letren hotsen balioa bereizten; ba daki zein den bustiduraren indarra maitasuna adierazteko; ba daki zein den adierazpideen edertasuna.

«Xo! xo! Jainkoa zurekin
xinkuli kuli xinkulin
Xo! xo!
xinkuli kuli xinkulin
nere maiteño xoxolin
Xo! xo!»

(*Xinkulin*)

«Ene ttiki-ttikiñoa,
osoki Otto iduri;
zato fite, maiteñoa,
eta pott eman Ottori.»

(*Ilobaño*)

«Usna gure eskaintza, gure deiak adi
eta zoazi, oi Ortzi, haur odolez hordi.
Irrintzin zuri, Ortzi, oihu eta jauzi!
Izan gain hartan nausi, bainan zoazi, zoazi...

Ortzi!!! Ortzi!!!

Atabal, sistu, orro ta jauzi.

Ortzi!!! Ortzi!!!

Hedoeiz hedoi karraskan zoazi,
mundua nahiz errauts-arazi...

Ortzi!!!»

(*Fededunen arbasoa*)

Ba daki Iratzederrek leuntasuna ta arintasuna adierazteko (itsasoko olatuen leuntasuna ta arintasuna adierazteko, kasu hontan) berebizikoak direla albeolareak (*l, n, r, s* ta *z* letrak ahozkatzean sortzen diren hotsak), eta *n*-ren hotsa, batez ere. Ba daki, beste alde batetik, *i* bokalaren hotsak sortzen duen ozentasun ta argitasuna zein den (erraz ikus dezakegu hori olerki hontan, *i* bokalaren orde *u* bokala jarri ondoren; ilundu ta moteldu egiten da olerkia berehalaxe). Ta, horrexegatik, 48 *n* ditu *Itsasoan* olerkiak, 41 *i*, 26 *z*, 14 *s*, 13 *r* eta 9 *l*.

Horreraz gainera, errepetizio edo anaforen pilaketak ere beste ritmo bat (ritmo gorabehera gozatsuak ritmo normalaren barnean) ezartzen diote olerkiari ta, batez ere, kontraposiziozko anaforen pilaketek.

«Ez zen ban neurririk,
ez zen ban mugarik.
Zu kapitain, ni lemazain,
Ez zen ban...»

«Zu hezur, ni, fraide:
Zu zeruan, ni munduan...»

Horra hor, bada, Iratzederren adierazpide berezi batzuk ta aztertu dugun olerkiaren sakontasun ta edertasuna.

«Goazen, goazen guziak txistuz eta kantuz:
Pertsulariak pertsuz, dantzariak oihuz,
Eder-minez gaudenek elgar Jainkoratuz.»

(*Eder-mina*)

**KIRIKIÑO, GERTAERA BARREGARRIEN
KONTALARI TREBEA**

«La brevedad y la aparente intrascendencia de los cuentos de «Kirikiño», mezcla de historia y de fantasía, no deben hacer olvidar sus excepcionales dotes de narrador que le han permitido dibujar pequeñas obras maestras sobre temas serios o intencionadamente humorísticos.» (L. Michelena, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, 1960, pág. 155).

Euskal Herri osoan idazle ezaguna ta gertaera barregarrien kontalari trebe ta aparta izan dugun Kirikiñoren (1866-1929) texto bat azter dezagun orain.

«Gaztela-mutilen» pasadizu bat da, Kirikiñok berak 1928.eko urtean Donostian eman zuen hitzaldi batean irakurria. Hara:

«Bein, Burgos probintziako uri baten, Durango inguruko mutil aldra bat ebilen zubi barri bat iragiten.

Orain eztakigu zergaitik, bertako alkateak etzituen mutillok maite.

Domeka arratsalde baten, erriko plaza zabalaren erdian egozan mutillak barriketan. Euren ondora urreratu zan txakur eder bat. Alkatearena zala esan eban batek. Eta, au entzunik, Abadiñoiko Asensio Sagastasoloak arrikada andi bat emonda bialdu eban txakurra, txilioka.

Laster etorri jaken erriko aguazilla esaten alkatearen aginduz guztiak erriko etxera joateko.

Joan ziran, ba, Eta alkateak itzaldi garratza egin eutsen, gogor eskaturik esateko nork jo eban txakurra.

Erantzun eutsoen eurek ezekiela; txilioak entzun zituztela, baña ez ebela ikusi nork arría jaurti eban; eurek eze-gozala txakurra zaintzen; eurei ezeutsela ardurarik bape txakurragaitik eta bakean izteko eurei txakur kontu areekaz, txakurrari batenbatek emondako arrikadea gora-bera munduak ezebala ikararik egingo ta.

Alkatea, mutillak bildurtzearren, euren izen-abizenak artzen asi zan eta papelean ipinten.

Orretan ebilzala, txandea eldu jakon Asensiori be, ta alkateak itandu eutson:

—¿Cómo te llamas?

—Asensio.

—¿El primer apellido?

—Txakurra.

—¿Y el segundo?

—Jodabena.

—¿Asensio Txakurra Jodabena?

—Sí, señor, eso.

Au entzunik, barre purrustadaka asi ziran lagunak, eta alkateak zarraparra handía atara eban.

—¡De mí no se ríe dengún nació en el mundo! Yo sus aseguru que sabré quién de usotros ha apedreao al perro, aunque no lo quieráis decir, y llevará su merecido. ¡Lo he de saber!

—Ya te hemos dicho a usted. ¡Tanta copla...! —esan eban Asensioek urteeran, eta guztiak barre zantzoka urten eben, bape bildurtu barik.» (1).

Teatrolan barregarriak dituzten bezala, hiru parte ditu pasadizu honek: *Aurkezpena* (Burgosko hiri batean ari dira lanean Durango inguruko mutil batzuk eta, igande arratsalde batean, Asensio Sagastasoloak harrikada bat eman dio mutilok maite ez dituen alkatearen txakurrari), *korapilozko lotura* (Alkateak, aguazilaren bitartez, dei egiten die aiantamentura joateko, ta gero, isildu gabeko erretolikaz agirika egin, bere txakurra nork jo duen esateko gogor eskatuz. Mutilok ihesbideka erantzuten diote. Orduan, mutilak beldurtzeko, izen deiturak hartzen hasten da alkatea) eta *deslotura*

(1) Bustintza tar E, *Abarrak*, Zornotza-Amorebieta (Bizkaia), 1930, 172. orr.

(«Egiazko» irtenbide barregarri bat datorkio burutara Asensiori ta horrela bukatzen da alkatearekiko autua).

Baina kontatzen den gertaera bat denez gero, ahoz ahoz edo idatziz (eta ez errepresentazioz), lehenbiziko parte biek eta hirugarrenak idazkera ezberdina dute. Lehenbiziko zati horietan ez da bakarrizketa edo elkarrizketarik agertzen, zeharretara idatziak daude (zeharbidezko idazkeraz), *aurkezpena* ta *korapilozko lotura* gehiegi ez luzatzeko, narrazioa arindu ta arinago heltzeko hirugarren parteta, parterik garrantzitsuenera, parte honen gertuera besterik ez baitira aurreko biok. Eta hirugarren partean, errepresentazio txiki bat baltz bezala, aldatu egiten da idazkera, aldatu egiten da hizkera, aldatu egiten dira aditzak (hirugarren pertsonetatik bigarretetara, lehen-alditik orain-aldira). Galdera ta erantzun bizi-biziak, koloretsuak, adierazkorrak agertzen dira, hitzez-hitzez jarriarik (lehen zeharretara, orain zuzenetara), indar, bizitasun, gatz eta barregarritasun gehiago emateko narrazioari.

Prosista olerkaria dela Barbier esan dugu lehen «Ikus: *Barbier, prosista olerkari*). Ba Kirikiño, bertsolarien teknika bat gogotan harturik, prosista bertsolaria dela esango nuke, bere «azken puntuko» (pasadizu horren hirugarren parteko) ateraldiaren sakontasun, zorrotzasun eta gatzaren prestaera baino ez direlako bere «aurreko puntuak» (pasadizu honen lehenengo parte biak). Begira Kirikiñoaren beste adibide laburrago bat:

«Jente asko dago emen diruagaitik euren burua, euren guraso, euren Herri ta Jaungoiko laztana bera be, Judasek lege, salduko leukezanak: San Ogerleko baiño beste santurik ezagutzen eztabenak.»

Nork ez luke esango hori entzunik edo irakurririk, «prosazko bertso» bat ez denik? «Prosazko bertso» herrikoï bat ez denik? Hontan ere, herrikoï izatean ere, bertsolari kutsua du Kirikiñoek, eta bertsolariak herriari (herri xehari gehienetan) kantatzen dioten lege ta herriko euskaraz, berak ere herriari idazten dio ta herriko euskaraz. Hain zuzen ere, berak esaten duenez, «gaurko euskaldunak, eurak direan lege artu bear dira, ta ez ibili atxean beorraren billa. Itxi daiguzan, orain bein-beiñean, berba zaarrak, iñok ezaututen eztabezanak eta berba barri asmauak, eta jarraitu daigun geure

euskera nastutxuagaz: Nai ta anka barik egon, bizi daitela Simon».

Erdara ere erabiltzen du Kirikiñok noizpehinka bere kontaktetan, euskaldunen erdara barregarria. Izan ere, euskaldunok (erdara dakigulako guztiok edo, ohitura txar baten eraginez edo), erdaraz eta euskaraz kontaktzen dugu pasadizu bat, pasadizu hori erdaldunekin izan badugu. Adibidez: «Bai, medikuaren etxera joan ginen gure Katalin eta biok, eta «¿Cómo viene hoy?» esan zidan haren neskameak. «Me dijo para venir hoy, ¿no?» esan nion nik orduan. Eta gure Katalinek, gorri-gorri eginda, albotik, «Jakín dut nik...» esan zidan. «Jakín... zer? Erantzun nion haserreturik. Eta neskameak «Vamos a ver...».

Kirikiñok ere, ba, bere herrikoitasunak eraginda edo, horrela kontaktzen ditu batzutan gertaerak. Txakurraren gertaera hortan, ostera, nahi ta nahi ezko izan du horrela kontaktzea, euskaldunen erdara barregarri. Hain zuzen ere, galdu egingo zuen, bestela, bere grazia eta erdaldunentzat ulertezina den «Txakurra Jodabena» (jo duena) ateraldiaren hitz jokoa-ren indarra. Beste alde batetik, teknika berdina darabil erdaldunen erdara berezia erabiltean ere, eta erdaldunen herri-herriko erdaraz baliatuz, erdaldunen erdara bera ere barregarri bihurtzen du: «¿De mí no se ríe dengún nació en el mundo! Yo sus aseguru que sabré quién de usotros ha apedreao al perro...»

Ipuin kontatzaileen klitxeak hartu («Bein...», «laster etorri jaken...», «joan ziran ba», «orretan ebilzala...») ta bera ere narrazioan sartuz («orain eztakigu zergaitik...»), hiru-lau pintzelada zehatzez lekutzen du gertaera barregarri hori, ta errudunek alkatearen aurrean egiten duten zeharkako defentsaren argumentuak zeharkako esaldiz eta anaforaz josten ditu, narrazioari aparteko arintasun ta interesa emanaz («eurek ezekiela...», «eurek ezegozala...», «eurei ezeutza-la...», «bakean izteko eurei...»). Argumenturik behinena ta inportanteena, jakina, azkenerako utzi du («txakurrari batenbatek emondako arrikadea gora-bera munduak ezebala ikararik egingo ta»).

Kirikiñon ere nabari da ezezko esaldietako joskera mueta berezia, hau da, ezezko esaldi horietan osagarriak sartzen direnean, *ex zaizkiela osagarriak atzetik jartzen*, aditz lagun-

tzailearen eta aditz nagusiaren bitartean baizik, galdegai baten ordeze bi ezarriz, esaldiak adierazkortasun eta argitasun berri bat har dezan: «bertako alkateak *etzituen mutillok maite*», «munduak *ex ebala ikararik egingo ta*». Ikus: I. Laspiur, *Joskera*, JAKINen, 31-32, Oñate (Gipuzkoa), 1968, 49. orr.

Horra hor, ba, gertaera barregarrien kontalari trebea dugun Kirikiño, bere aldiko euskaldun analfabetoak irakurtzen jarri zituen idazlea. «Nunca hasta ahora se vio a los vascos acuciados de aquella manera por las ganas de leer un libro. Y es que Kirikiño supo llegar a las entrañas del pueblo. Mientras otros escritores andaban como topes bajo tierra, o bien en la estratosfera, sin alcanzar nunca el alma vasca.» (L. Villasanté, *Historia de la literatura vasca*, Bilbao, 1961, 332. orr.).

Beste aldi eta kultura bateko idazlea izan arren, imitagarri dugu hiriko euskal kultura sortzean eta aringarri gure giro serio ta astun hontan. Izan ere, berak dioskunez, «betibeti auteskundeak edo erri-zuzentzak edo horrelako gauza benak erabagi barik, ondo da noiz edo bein gauza arintxuak, barregarriak erabiltzea be, norbere gogoari atsedean (deskantsu) apur bat emoteko. Arazo astunak erabili oi dabezan gizon guztiak egiten dabena da, noiz edo bein olgeta batzuk egin, arazoak alde batera utzita, eta ori egiñaz atsedean aundia artzen dabe. Guk be gaur orixe egin bear dogu, olgeta batzuk esan ta barre batzuk egin. Barre egitea osagarria da, barrerik egiten eztauna galdua dok.»

F. BILBAO, HIZKUNTZA BIZIAREN GATZA

«Idazteak bereztasuna eskatzen du, etorria, jarioa, eta orretarako izkuntza biziaren ondorea izan bear du, ezpainetan darabilgun izkeraren ume. Euskeraz itzezin lehenbizi, eta idaztea gaineko zerbait bezala izan dadilla. Baiña itzegiten dugunetik idazten dugunera alde ikaragarria badago, edo idatzi bai eta itzezin ez egiten badugu, orrela gure literaturari benetako jatoritasun ori kentzen diogu. Gezurrezko zerbait billakutzen da. Ezta jator, ezta autentiko.» (L. Vi:asante, *Bizitzatik urbil*, IV. EUSKERAN, Bilbao, 1959, 111. orr.).

«Gure erriko berbetearen mardoa ikusi ta ikasi gura badozu, emen egin daikezu ondoen, ispillu baten legez. Euskaldun askoren aotan, euskerea ez ete doa gaur makalduaz, zimelduaz, kolorea galduaz, gaza-geldo-motx eta indar barik geldituaz? Benetako euskaldun osoaren berbeteak zelako giarra ta mamin gizona daukon jakiteko, libru gitxi topauko dozu au baiño egokiagorik.» (L. Villasante, F. Bilbao-ren *Ipuin-barreka* liburuaren hitzaurrean, Bilbao, 1959, 8. orr.).

Villasantek esana betez, herriko hizkuntza bizia ta herriko hizkuntza biziaren gatza libururatu du Felix Bilbaok. Ikus dezagun.

«Ezkontza-auste bat

Bazan ba matrakia etxe aretan! Mutillek! Auzoko txakur eta katu guztiak alkarren kontra asita be, eztot uste Lorentzorenean izaten zan baiño zarata aundiagorik atarako leukienik.

Familia izango ebela ugaria? Ez, irakurle. Ez euken semerik bat bera be. Lorentzo ta Toribi zirean guzti onen egille. Senar-emazteok, ezkondu zireanetik, ez dakit bakezko egun bat igaro ebenik. Joseuss! A zan eztabaida ta errierta eginbearra! Egunean ordu pare bat igaroko eben, gitxienez, alkarri trapuzar eta zer esan guztiak arpegira botaten. Lorentzok Toribigaitik ganora ta ardura bako alpertzat bat zala. Toribik Lorentzori diru-galtzaille, mozkorti galdu bat zala...

Bestaldeko Paulak-eta baueken konziertu ta musikaririk asko joandako urtietan. Ia gogait eginda be baegozan-da.

Paula-ta gogaituta beraz? Geiagotxuago egoezan gure matrakalariok. Baten baiño sarriago emon eutsen gogoak bestala biziko zireala bakoitza bere bidetik, ezkontza ausita. Nork, baiña, orrenbesterako bularririk? Etzirean ausartuten. Baiña egunean baiño egunean eztabaida ta matraka gogorra-goaik eukezan-da, azkenean, bai. Nai ta mundu guztiak jakin bear izan, ezkontzea ausi ta bakoitza bere bidetik joateko burubidea artu eben.

Ta nora joango zirean ba ezkontza-austearen billa? Abadearengana, jakina. Irribarrez artu ebazan Don Pedrok.

—Ezkontzearen austea nai dozue orduan?

—Bai, Jauna. Ezkondu ginduzan legez, eskontzea ausiteko almena be badaukala Berrerek entzun dogu-ta.

—Ez zarie zoriontsu alkarren laguntasunean?

—Zoriontsu? Inpernuko demoniñoak geiago jakoz, Jauna.

Ta Lorentzo asi jakon emaztearen «birtuteak» azaldu ten. Toribi mutik geratu? Bai ondo be! Laster itxiko eban narru gorrian Lorentzo gizajoa, Don Pedrok, berbia artuta, ixildu ezpaebazan:

—Ondo dago, ondo dago, ene semiok: biok dozue arrazoirik naiko. Ondo baiño obeto egin dozue ezkontza ausitera etortegaz. Eleizpera joan-da, an itxaron eidazue apur baten. Laster joango naiatzue.

Don Pedroren berba oneik oso poztu ebezan gure Lorentzo ta Toribi. Alkarregazko askatasuna! Olako zorionik!

Abadeak esan eutsenez, eleizpera joanda, alkarren ondoan belaunikatu zirean, ezkondu zirean egunean lez. Etorri litekean Don Pedro ezkontza-austea egitera.

Etorri be baetorren ba! Eleiz-jantzi ederrez eta ospatsu etorri be. Sakristaua ekarran aurretik kurutzeagaz. Alboan mutiltxu bi argi banagaz. Ta berak eskuetan liburu bat, ur bedeinkatu-ontzia ta isopua ekarzan.

Eleizpera etorkean Don Pedro ikusi bazendun, irakurle, zeuk be txapela kendu ezeze, errespetoz belauak lurrean jarri be egingo zenduzala ziur nago. Baiña eleizpe atan egonda, Don Pedroren burutaziñoak ezagutu bazenduzan, barre-zantzua ugari izango zendualakoan be banago.

Ezkontzako Sakramentua ausi? Lorentzo ta Toribi, buztarrian dagozan idi bi legez, askatu? Bai ondo be! Ezkontzako Sakramentua olgeta bat da-ta! Leziño on baten bearra euken areik, ez besterik.

Ta ez ardurarik izan, irakurle. Beingoan artuko eben Don Pedroren eskuetatik.

Sakristaua kurutzeagaz aurrean ta mutiltxoak ondoan ebazalarik, Gotzai Jaun batek baiño be ospatsuagoki emon eutsan asikeria funtziñoari Don Pedrok: «In nomine Patris, et Filii...». Gero, eleiz liburua idigita, marmarozka, latifiekko zeozer irakurten ebalakoa egin eban, minutu bi inguruan edo. Otoitzak amaitu ebazanean berbalditxo bat be egin eutsen orren burubide ona artu ebela-ta zorionak emonaz. Eta orain etorren ezkontza austeko zeremoni edo egin bearrekoa. Eleiz-liburuak ez ekarrela? Neu be orretan nago. Baiña Don Pedrori ez eutsan obeagorik buruak emon. Zer ete zan berau? Eleizpe atan egon baziñan, irakurle!

Don Pedrok busti eban isopua ur bedeinkatu ontzian, eta «Ez zaitez bildurtu, Lorentzo; ez da ezer: bedeinkaziñotxu bat...», kaska! emon eutsan buruan isopuagaz. Gero, barriro isopua ur-bedeinkatuan bustita, beste kaskarreko bat Toribiri. Gero, barriro Lorentzori. Urrengo Toribiri. Oneri bat, orreri beste bat, geroago eta abiada eta indar aundiagoz, kiska ta kaska, jo ta ke... Ene mutillek! Zelako bedeinkaziñoak zirean eurok! Burua erdibitu bear eutsen-da.

Ta zer? Don Pedro gelditu? Baita zera be! Bere egin bearrari leña ekion: kiski ta kaska, emonalean...

—Jauna, baiña noiz amaituko dau Berorrek ezkontza-auste au?

—Ai seme-alabatxuok! Min artuten dozue? Ondiño iraugo dau ba apurtxo baten.

Ta larregi be bazala? Neuk be alan uste dot, irakurle. Baiña Don Pedro ezan, antza, gure iritxikoa: kaskarrekoka jarraitu eban, senar-emazteerí negar eragiteragiño ta geia-gotxuago be bai.

—Ai ene, ai! Don Pedro: amaitu bei ainbat arifien funtziñoa. Ai, ai, ai!...

—Min artuten dozue orduan? Jakin eidazue ba, enetxuok, jakin bein betiko: Ezkontza ezin ausi daiteke arik eta biotatik bat il arte.

—Ezkontza austeko biotarik bat il bear? Eleiz-funtziño au orren gogorra bada, oba dogu, Toribi, etxera joanda, ezkondu giñanean agindu genduanez, bakean eta luzaro bizi.

—Goazen, Lorentzo, goazen ainbat arifien!

—Bai, seme-alabatxuok: olan egiten badozue, bizitza onetakoa, ta gero inperua be aldenduko dozue zuekandik. Ta zerua lortu be bai, enetxuok!

Arrezkeroztik Paula bestaldekoak-eta, ez eben denpora askorik igaro Lorentzoneko matrakak entzuten. Senar-emazteok ondo ikasi eben, antza, Don Pedoren leziñoa.» (1).

Herritik jatoriko ipuin bat dugu hau. Hain zuzen ere, Behe-Nafarroako Aezkoan entzun zuen Resurrección María de Azkuek, Iriberriko Maximino Iziz-en ahotik. Hara nola:

«Bi Oroz-Betelutar, zenbait urtetan ezkonduik zaude-nak, elkarrekin ezin biziz, artsalde apal batez, ilun nabarrean, beren apez jaunarengana fan zire, gau erranez:

—Jauna, zuk elizaz ezkondu gindituzun bezala, gure ezkontza laxatu ta autsi daukezula xakin dugu. Gau egin balin bada, elkarrengandik lekutu ta berez bizi nai ginduke.

—Ez al duzie bakerik elkarren artean?

—Bakea? Infernua bezalatsukoa dugu.

Apezak, irria ezpainetan zuela.

(1) Felix Bilbao, *Ipuin-barreka*, Bilbao, 1959, 145. orr.

—Bai, ene maiteak, —erran zakote— orain infernua bezala bizitzeko ta zuren samurtasun ta asarrekin infernua geroko irabazteko obe duzue ezkontza len baino len autsi. Etorri zitezte biar mezara, ezkontza goizean bezala ta eliza-atarian egon. Nik bear direnak einen ditut.

Biramun goizean, meza-ekzilak xo zuenean, ezkondu gaiek beren aide-aixkidekin eliza-atarira bildu zire. Apeza, tresna ederrak xantzirik, eliz-mutila, gurutzearekin aitzinean zuela, agertu ze: baita, bi ezkonduak bere ondoan belaunikarazirik, asi ere egin ze marmarozka liburutik latinez leitzen zuelakoan ta berealaxe gizonari buruan eman zako isipuz kaska..., geroxeago emazteari bertze bat. Kaskak azkar ta usutzen asi zirenean, nigarrez senar-emazteak galde egin zute:

—Gure ezkontzaren laxatzeko otoitz goiek anitz irauen al dute?

—Nik au baizik eztakit bertzerik: bietatik bat iltartio ezkontzak irauen duela.

—Goazen bada etxera ta ezkondu ginenean itz eman bezala, bakean ta luzaro bizi giten —erran zako emazteari senarrak.

—Gori einez kenduko duzue orai ta geroko infernua.

Au erran ta apeza eleizara mezaren erratera sartu ze.» (R. M.^a de Azkue, *Euskalerraren yakintza (Literatura popular del País Vasco)*, 2. tomoa, 1942, 401 orr.).

Zer egin dio Bilbaok ipuin horri? Eraberritu ta apaindu, baserri zahar bat egiten den antzera. Berriztatzaileak berak dioskunez; «...on dagitsuela nire irudimenak orniduriko ipuiñok. Zeuretzat idatzi dodaz. Maitekiro, joranez. Batzuk neure burutik atarata. Geienak, gaiez, or-andik artuta.» (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, Bilbao, 1959, 10. orr.).

Ipuin orijinalaren egitura ez du funtsean aldatu, baina sarrera berri bat jarri dio eta epilogo bat ere bai. Bateko sarrera bizi koloretzu ta indartsu hori «captatio benevolentiae» egoki bat da.

Ipuin orijinala hirugarren pertsonan idatzita dago, elkarriketak izan ezik, jakina. Ipuin berriztatua, ostera, lehenengo, bigarren eta hirugarren pertsonan idatzita dago eta elkarriketak ere luzeagoak ditu. Ahoz-ahozko kontaketa egin ohi den antzera, irakurleari berari egiten dio hitz narradoreak, narrazioa eten antzera eginez eta narradorea ta irakurlea

elkarganatzuz: «Eleizpera etorkeran Don Pedro ikusi bazendun, irakurle...», «Eleizpe atan egon baziñan, irakurle!»... Lehenengo pertsona darabilenean ere, ahoz-ahozko kontaketa batean egiten den antzera, gogoeta labor eta biziak egiteko darabil, kontaktetari elkarrizketa kutsua emanaz: «ez dakit bakezko egun bat igaro ebenik», «ziur nago», «neu be onetan nago», «neuk be alan uste dot, irakurle. Baiña Don Pedro ezan, antza, gure iritxikoa».

Gainera, zehaztu, konkretatu, egiten du Bilbaok ipuin orijinala, pertsonaiei izenak ezarriz, lehenagoko baserritarren ohitura bati dagokionez, hau da, jaiotegunean egutegian agertzen zen izena jartzea umeari: *Lorentzo, Toribi, Paula...*

Senar-emazteen egoera ta ezkontza haustea bera ere askoz hobeto lekutu ta egokiagotu du Bilbaok, eta narrazio denbora luzatu ta gertaera denbora laburtu egin du (orijinalean bi egun, ordubete edo Bilbaoarenean). Gertaera denbora eta narrazio denbora zer diren hobeki ulertzeko, ikus liburu honetan bertan: *Txillardegi, hiriko bizkuntzaren eragile*.

Esanak esan, hala ere, Bilbaoren ipuinaren baliorik handiena beste orrazketa edo apainketa batean datza.

«Nun dago ba ipuin oneen balioa? Nere ustez, izkerearen jatorrasunean. Izkera arraia, bizkorra, bizi-bizia ta biurri-antzekoa dabe. Bizkaiko euskerearen una ta mamiña erakusten deuskuela esango neuke. Alkar izketeen batez be, zelako bizi-tasuna, eta zelako esaerak, erriko berbetearen kolore guztiekaz jantziak!

Gaia beste nunundik artu dabenean be, bere modura egosten daki, eta soñekoa barriztauta urteten dau bere eskuetatik.

Nik eztaikit zergaitik dan, baiña Bizkaiko euskereak badau grazia berezi bat ipuñietarako. Beste eskualdeetakoak be gogo onez autortuten dabe au. Baditu gure euskalkiak urtenaldi biurriak, esaldi bizkor eta sarkorrek, besteetan biltzen ez direan bezelakoak. Eta ganera, Kirikiño aundiaren lana dau gure euskereak; bearbada, oneri zor deutsa bizkaie-reak bere fama au.» (L. Villasante, F. Bilbaoren *Ipuin-barrereka* liburuaren itzaurrean, 6. ta 7. orr.).

Lehenengo ta bat, euskaldun jatorrek behin eta berriz esan ohi duten legez (eta gure «euskal erdaraz» esaten dogun *ya* legez) baiezkosaldietan hainbeste *ba* erabiltzeak ematen dio aparteko gatz eta jatorrasun bat Bilbaoren euskarari:

«Bazan bamatrakia etxe aretan!», «baeukon konziertu ta musikarik asko», «ia gogait eginda be baegozan-da», «almena be badaukala Berorrek entzun dogu-ta», «baetorren ba», «barre-zantzoa ugari izango zendualakoan be banago», «larrigi be bazala».

Bigarren, hainbeste aldiz *be* (ere) erabiltzeak ere, herriko hizketa biziaren aparteko gatz eta jatorrasuna ematen dio: «Ia gogait eginda be baegozan-da», «bai ondo be!», «Etorri be baetorren ba! Eleiz-jantzi ederrez eta ospatsu etorri be», «zeuk be txapela kendu ezeze, errespetoz belauinak lurtean jarri be egingo zenduzala...», «baita zera be!», «geroko inpernua be aldenduko dozue zuekandik. Ta zerua lortu be bai».

Hirugarren, euskaldun jatorrek beren hizketetan erabiltzen duten bezala partitiboa erabiltzeak: «eztot uste Lorentzorenean izaten zan baiño zarata *aundiagorik* atarako *leukienik*», «ez euker *semerik*», «konziertu ta *musikarik* asko», «olako *zorionik*!», «ez *besterik*», «mutiltxoak ondoan *ebazalarik*», «ez eutsan *obeagorik* buruak emon», «ez eben denpora *askorik* igaro», «biok dozue *arrazoirik* naiko».

Laugarren, diminutibo adierazkorrek erabiltzeak: «*Geiagotxuago* egozan gure matrakalariok», «*mutiltxoak* ondoan», «*berbalditxo* bat be egin eutsen», «*bedeinkaziñotxu* bat», «ai *seme-alabatxuok!*», «*geiagotxuago* be bai», «*enetxuok*», «ondifio iraungo dau ba *apurtxo* baten».

Bosgarren, bizkaieraz hain sarri erabiltzen den plural hurbila erabiltzeak: «*senar-emazteok*», «gure *matrakalariok*», «ene *semiok*», «*biotatik*», «*biok* dozue», «ai *seme-alabatxuok!*», «*enetxuok*».

Seigarren, hainbeste herri-esaeraz narrazioa jostek: «egunean baiño egunean», «laster itxiko eban narru gorrian», «ondo baiño obeto», «etorri be baetorren», «zeozet irakurten ebalakoa egin eban», «buruak emon», «ez zaitetz bildurtu», «kaskarreko bat», «Lorentzorenean», «Paulak-ta», «leña ekion», «emonalean», «min artuten dozue», «kaskarrekoka», «ainbat arifien», «bein betiko», «orren gogorra bada», «jo ta ke».

Eta zazpigarren, galderak, ekklamazioak eta hotsitzak ere, hizkuntza biziaren aparteko gatz eta jatorrasuna ematen diote Bilbaoren euskarari: «Mutillek!», «Joseuss!», «Paula-ta gogaituta beraz?», «Nork, baiña, orrenbesterako bula».

rrik?», «Ta nora joango zirean ba ezkontza austearen billa?», «zoriontsu?», «Toribi mutik geratu? Bai ondo be!», «alkarregazko askatasuna!», Ezkontzako Sakramentua olgeta bat da-ta!», Zer ete zan berau?», «kaska!», «kiski ta kaska», «ene mutillek!», «ta zer?», «baita zera be!», «ai ene, ai!».

Ba ditu «hutsak» ere Felix Bilbaok, deklinabide ta aditz aldetik batez ere. Baina «huts biziak», herriarenak dira, hizkuntza benetako komunikabide bezala erabiltzen duen herriarenak. Eta «geroago ta ziurrago nago erririk barik euskera salbatzerik ez dogula. Errianganako lokarriak apurtzea, akademismu utsezko euskera batera jotea litzake, ta akademismu utsa izango litzake euskeraren eriotza. Bizia bai da izkuntza guztien muiña ta izate guztia. Izkuntzak, izkuntza bezela, ez dau beste zentzunik bizia baino.» (J. San Martín, *Zirikadak*, Zarautz, 1960, 7. orr.).

TXILLARDEGI, HIRIKO HIZKUNTZAREN ERAGILE

Giro berri baten hasierako idazleatariko bat denez gero, sarrera luze bat merezi du Txillardegik bere texto bat aztertzen hasi baino lehen.

Ez dut uste orain arte euskal literaturaren edo euskal hizkuntzaren historian 1956.eko euskaltzaleen Arantzazuko batzarrea (Ikus: *EUSKALTZALEEN BILTZARRA (Arantzazun, 1956-IX-14, 15 eta 16 garreanean)*, *EUSKERA I-ean*, Bilbao, 1956, 163-304. orr.) aipatu denik edo, inoiz aipatua izan bada ere, garrantzi handirik eman gabe egin izan da.

Ez dakit nik zergatik (Han izan nintzelako ni ere...? Bihotzean zartada handi bat eman zidalako ta begiak zabaldu zizkidalako...? «Uhain berri» baten lehenbiziko bultzada izan zelako...? «Uhain zaharreko» eta «Uhain berriko» idazlerik asko hantxe ezagutu nituelako...?, baina beti izan dut interesgarritzat batzarre hori ta zeharkako aipamen bat baino gehiago merezi duela uste dut.

Gerra zibila bukatu zenetik ez zen halako batzarrerik egin, irabazleekiko beldurrez zeudelako euskaltzaleak (Nola ez, ba, euskara galtzaile gaiztoen hizkuntza mespreziagarria bai zen ta debekatua ta zapaldua!). 1956. urtean beldur isil itoa lasaixeago zegoen (*beldur isil itoa* ordurako *beldur itoa* bihurtu bai zen) eta beharrezkoa iruditu zitzaien euskaltzaleei batzarre bat egitea guztiak elkartzeko.

«Jardun auek zergatik edo zertarako? Euskal urduritasuna sentitzen degun guztiok elkartzeko, edo bata bestea-

rekin al dan neurrian urreratzeko. Denok degu yoran berdiña, kezka ta oiñaze berdiña, gure mintzoaren kezka ta oiñazea, alegia. Euskera ondamentitik gorde ta begiratu, euskera bizirik atera nai degu guztiok [...]

Orregatik bear zan onelako billera bat euskaltzaleen artean egin, elkar ezagutzeko, elkar berotzeko, asmoz ta jakitez jarraitzeko. Elkarrekin egotetik, bata besteakin itzegitetik beti sortu oi dira mesede ta etekin aundiak: urrutí xamar bizi ziranak, edo bizi zirala uste zutenak, elkartu, urbildu edo bata bestearen usteak bide erdira ekarri. Eta danok iritzi bateko biurtzen ezpagara ere (batzuetan komeni ere ezta egingo), behintzat adiskidetu ta elkarganatu egingo gera, ta aurrerantzean lagun urkoaren usteei lotsa ta begirune geixea-go erakutsiko diegu.» (L. Villasante, *Ongietorri-itzak*, EUSKERA I-ean, Bilbao, 1956, 166. orr.).

J. M. Barandiaran, M. Lekuona, Lafitte, Otxolua, L. Mitxelena, Villasante, S. Onaindia, J. Mirande, Berriatua, J. San Martin, A. Irigoyen, P. Altuna, Zavala, Aresti, Gandiaga, J. Azurmendi... eta abar eta abar elkartu ziren gaurko jokabide ta kulturaren lehenengo bultzada izan zen batzerre hortan.

Hizlari batzuk erdaraz egin zituzten beren hitzaldiak. Baina ez entzule gazte batzuren salakuntzarik gabe, txistuka hartu bai zituzten haiek, euskaltzaleen batzarra hartan erdaraz hitz egiten hastean (Hain zuzen ere, euskaldunek euskaraz eta Euskaltzaindikoek erduzko euskaraz.).

«Beraz, euskera dugu bear-bearrezkoena, leen-leena ta beste guzien gain, euskaldun bizitzeko ezinbestekoa dugulako.

Beste erriekin ar-emanetan bizitzeko, erdera ere bear dugu gure bizirako; baiña erdera artzeko ez dugu, iñolaz ere, gure izkuntza au ezetsi ta utzi bear. Izkuntza bat baiño geiago jakitea bear dugu gure bizirako: Euskera gure izakera berezia eutsi al izateko; erdera beste erriekin ar-emanetan ari izateko.» (A. Urrestarazu, *Euskera ta euskal-kulturari buruz*, (*Karta idigia*), EUSKERA I-ean, Bilbao, 1956, 295. orr.).

Euskal idazleen garbizalekeria, herrizalekeria ta baserritarkeria salatu ziren lehenengo ta bat Arantzazuko batzarre hortan (Ikus: Lehen aipaturiko EUSKERA I-ean, 257-273.

orr.). Urte asko lehenago Altubek eta Lizardik esandakoa betetzeko asmoz seguraski:

«Aundiak dira, bai, gaur, gure izkera maite onen bizitza gaixotu au osatzeko jarkiten diran eragozpenak. Euskaldunok gure bihotzetan asmetan dogun beraganako suzko maitetasun aundiaren berotasun oso-osoa bear dau ez ilteko, Europako izkera zaarrena dogun gure euskera maite onek.

Baiña gure maitetasun ori, ez bedi itsua izan; maitetasun itsuegia, sarri, maite dogun gauzearentzat, laguntasun ordez eragozpen izan oi da ta, mesederen ordez kalte.

Maitekeri itsu orrek, euskerearen bizitza edo izatetasunaren goitik, beronen edertasuna, zelakotasuna, imini oi deusku sarri, eta zentzunbakokeri orrek bide okerretik eroan ginaikez...

Maitetasun benetakoak obe dogula dirausku geure euskera au ingelandatarren izkerea bezela erderatiko itzez burutik eta oiñetara josita, baiña osasun sendoz bizirik ikusi, latin izkerea bezela, eder eta txukun baiña ilda aurkitu baiño.» (S. Altube, *Euskaltzain berriak, bere sarrerako egunean*, EUSKERA 1920-1921).

«Iri nagusi, giza-erlauntza:
zorapenezko aruntz-onuntza
sumabearra, jakintza,
sal-eros ekurugaitza,
gure elkar-indarrak itzuli bitza!
Ortzi oro ta egute oro
jaso, ikus-ala, ta abes gozoro...
Apaindu zernaitarako:
agi gai adirazteko
gizaki guzien alderdi ta asmo.
Ta, beeko gaiok agor ezkeroz,
Iguzkik ezin urtuzko egoz
(Ikar-ek ez bezelakoz)
goazeman zerura igoz,
izar urdiñetarañoko asmoz.»

(*Eusko-bidaztiarena*)

Gero, ikerlan batzuk irakurri ondoren, euskara (zernahitarako gai izan zedin) kultura maila batetara jasotzeko biderik egokienak zeintzuk izan zitezkeen eztabaidatu zen.

«Egiñik dagoen kultura baten aurrean aurkitzen gera; eztago begiak itxiterik. Ez gaude gure zokoan hermetiko eran sarturik. Eta kultura goragoko baten aitzinean gauden ezker, ba-dakigu gure egingoa zein den: edo kultura ori asimilatu, edo il. Eta kultura bat asimilatzeak eztu esan nai itzak artu bear direnik, ez; itzaren azpian ta sakonago datza kontzeptua. Goragoko kulturak dakarzkian kontzeptuak, oiek guganatu bear ditugu. Kontzeptu oiek, kanpotik ekarritako itzekin edo euskal sustraiezkoekin bear ote diran adirazi, ori beste auzi bat da. Bearbada, batzuetan bide bat, eta, besteetan beste bat jarraitzea izango da onena.

Antziñatik erakutsi digu euskerak kanpoko gaiak asimilatzeko duen indarra. Bearbada, indar orri ezkerak iraun du egun arte. Latiñetik batez ere eta erri-bidez artu duenaren ezaugarriak markaturik dakarzki ta. Guk ere asimilatze-indar ori ez dezagula ukatu edo aaztu. Eta burnibide estu-mearraren gaiñetik, saiatu gaitezela burnibide zabala egiten. Burnibide estua dialektuak dira, burnibide zabala, aldiz, literatur-izkuntza (la lengua literaria). Literatur-izkuntza normalizatua, unifikatua, tink ezarria eta aldakaitz biurtua. Au bear dugu euskaldunak. Erri arruntaren izkeraren ondoan, euskaldun ikasiena (euskerak popular y euskera culto).» (L. Villasante, *Gure eginbearrak*, EUSKERA I-ean, Bilbao, 1956, 267. orr.).

Ikusi dezakegunez, euskara batuaren arazoa ere ikutu zen: «Literatur-izkuntza *normalizatua, unifikatua*...». Gipuzkera osotuaren aldeko jarri zen Urrestarazu: «Ba-dugu guzti onen alboan dagoen beste auzi aundi bat: Euskeraren batasuna. Au ere ez da egun bateko lana, ta oni buruz iritzi batzuek ezagutzen ditugu. Guretzat Garitaonaindia ta Azkue apaiz jaun bizkaitarrena dugu egokiena: Gipuzkera osotuarena. Jakiña, ezin iñork iñori au edo beste iritzia indarrez arrezazi. Ontan norberak bere eskubidea izan bear, idazleak batez ere; baiña zillegi, bearra ta egoki euskeraren batasuneruntz eten gabe joan bear dugula esatea, nire ustez.» (EUSKERA I-ean, 297. orr.).

Gerratearen ondoko fenomeno nabarmen ta pozgarriaren lehenbiziko seinaleak ere Arantzazuko batzarre hortan agertu ziren, hau da, hantxe agertu ziren euskaldun berri edo ikasiak, Aresti aitzindari ta astintzaile zutelarik.

Txillardegi bera ere euskaldun berri bat zen, eta hantxe egon zen hara bidaldu zuen karta ireki baten bitartez (Ikus:

Karta idigia, EUSKERA I-ean, 245-250. orr.). Hona hemen karta hortatik jasoriko bi zati gogoangarri:

«Osakuntza aundia bear du euskerak gaurko bizikeran gai izateko. Egia esan, eta euskeraren sufijatzeari eskerrak, berritze ederra egin diteke euskera beretik irten gabe, ta au egin bear da al denetan.

Bañan asmakari ta kontzetu berri ugari ekarri dizkigu zibilizazioak, oso itz bereziakin batera, ta euskera «garbia» egiteko asmoa txatxukeri utsa da, izkuntza batek ere egin ez duena, eta gure izkuntzan gertatuko ez den gauza. Zein da, garbizaleen ustean, Europako izkuntza «garbia»? Batere ez; alere, euskerak «garbia» izan bear... Baztertu egin bear dugu etimologi-arrazakeria, elburu bakartzat au artuz: euskera maitea *euskaldunen mintzabide biurtzekoa*.

Eta au lortze arren, anarkiari alde egin, eta beste erriak eta gure asabak egiten zutena arretaz aztertu. Euskera garbia etzaigu ajolik, bizia baizik. Izkuntza bizieta ez dago garbikeririk. Ain zuzen ere, erdaldunak sortu zuten euskera «garbiaren» mitoa.» (247. orr.).

«*Balizko olak burnirik ez*. Ala dio esaera zaarrak, eta ondo esana gañera. Beste arotan egin genezakekena etzaigu ardua; gaur egin dezakegunez pentsatu bear dugu. Egin ditena egin, eta ezin ditena aaztu; ez dago onetaz beste aukerarik.

Eta gaur, nere ustez, bitara bil ditzakegu egin ditezken gauzak: 1^o) Gutxiengo edo minoria bat gertu. 2^a) Euskera *gaitu, batu ta osatu*.

Bi auker lortu arte, alperrik ari gera lanean; bi auker lortu ezker, berriz, lasaitu egin gindezke...

Onengaitik, auker dituzute nere aolkuak:

a) Nork bere aldetik euskera alik eta sakonen ikasi. Onetarako, euskaltzale famatuen lanez baliatu, antziñako euskal literatura azterkatu ta euskal erriarekin albait artueman estuenak euki.

b) Ba-dauden eskolak tajutu, alkatu ta eratu: aurrentzakoak eta euskaldun berrientzakoak.

c) Euskaltzaleen alkar-ezaguera biziagotu.

d) Orain ditugun euskal aldizkari ta erakundeak indartu.

e) Al bada, euskal jaiak egin. Onetarako, euskal teatroa zuzpertz.

Pozik ikusten dugu Euskaltzaindiaren piztutzea.

Erabakizkoa izan diteke oni guziari buruz Euskaltzaindiaren betekizuna. Bere bi adarrak odol berriz indarturik, abiadura ederra artu dezake, ta bi lan goragarri egin ditazke:

1º) Alegiñak bere babesean zuzendu.

2º) Bere aipu guziarekin eta ofizialki euskeraren batasuna zeaztu ta euskera «personala» ta euskal berrikeri guztiak ezetsi ta kondenuatu.» (249. orr.).

Horra hor, bada, sarrera luze hontan labor esanda, 1956.eko Euskaltzaleen Arantzazuko Batzarrea zer izan zen. Giro berri baten hasiera izan zen, 1958.eko, 1964.eko eta 1968.eko bultzadaren gertuera. (1)

Txillardegiren nobela bat, *Leturia-ren egunkari ezkutua*, 1957. urtean Bilbon argitaratua, izan zen Arantzazuko batzarrearen ondorengo frutituetarik bat.

«Nik ez dut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta *Leturiaren egunkari ezkutua* gizaldi berri baten eta gizaldi horren obren aitzindari gisa agertzen zaizkit. Ez dut uste oker nagoenik eta ez nuke inolaz ere oker egon nahi. Ate joka ditugu dagoeneko deus gutxi ezagutzen ditugun ondorengoak.

Gizaldien arteko borroka etengabea behin eta berriro kontatua izan da. Ez dute inoiz zaharragoek oso begi onez ikusten gazteagoen etorrera. Gezurra nioke, neronek, baldin banio ez dudala halako erresumin ixil baino bizi bat sumatzen. Begiak zabal zabalik izaten dituzte gazteek zaharragoen alde txarrak —hutsak, txorakeriak, itxurakeria batez ere— ikusteko. Badakite gainera bere dutela gazteek, zuzen ala oker, azken hitza.» (L. Mitxelena, *Leturiaren egunkari ezkutua-ren Hitzaurre-an*).

(1) Ikus: *Euskaltzaleen Biltzarra* (Bilbaon, 1958, Abenduaren 13 eta 14-an), *EUSKERAN*, IV, Bilbao, 1959, 93. orrialdetik 214.era; *Baiona'ko biltzarren erabakiak* (1964-eko Agorrilaren 29-30), *Jakin*, 18, 1965, 20. orrialdetik 28.era; *Euskera datziaren batasuna* (Ermua'n, 1968-ko Garagarrillaren 28-29-30'ean), *Jakin*, 31-32- 1968; *Arantzazu-ko Biltzarra* (1968, Urriaren 3,4 eta 5-ean), *EUSKERAN*, XIII, Bilbao, 1968.

Goazen, bada, *Leturiaren egunkari ezkutua*-ren zati bat aztertzer.

«Oi, zein dan ituna
beera-bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau.» (Lizardi)

Gizonaren ondamendia ezagutu ezker, nor ez du maitatuko? Pausurik bat ere eman gabe dijoazkit asteak.

Banoala sentitzen dut, baña nere bidea ezin ikus dezaket. Dena igarotzen zait egiñaletan, nigandik igeska gisan. Paris-aldia amaitzen ari zaidala nabaitzen dut ere, eta geldierazi naiko nuke denboraren igarotzea, arekin bai dijoa agian gizonari eman zaion gauza bakarra.

Beste batek urrutitik ikusiko banindu bezela ikusten dut nik nere burua, uriko kaleetatik paseatzen; oroimenean ikusten ditut oraingo lipar labor eta igeskor guziak, denborak edertu, ta olerki-kutsuz arrigarriz jantziak. Eta eldu egin nai diot guziari, ikara bizian; eta bein baño geiagotan atzitu dut eskuaz burnizko eskudela, edo beste edozein gauza ta zorabio arrigarri batek astindu nau.

Bidenabar... Illunpe batetik illunpe batera dijoan bidazti itsua naiz.

Itzarrik egin nuen bart amest. «Sacré Coeur»eko malladian izan nintzan arratsean, eta biziro egoki gelditu an berandu arte. Aurrean, urruti-urrutiraño, Parisko itsaso argitsua, ta bere gañean zerukoa, diz-diz ere bai. Ipurtargi multzoa goian eta beian. Nere atzean, eskillara luzearen korroizat, askotan maisetutako eliza zuri famatua, argiz edertua. Ikuskari bakana, alafede!

Gazte franko zegoen malladi zabalean exerita, ta ez oso gazteak ere bai, ta nik ere berdin egin nuen. Aurrean, erronka, bohemiaok, edo ez dakit nik zer ziran aiek, funtzio jatorra eskeñi ziguten: kantak, olerkiak, tronpeta edo gitarra jotzea, denetatik ikusi genuen. Baita dantza arrigarriak ere neska-mutil bik egiñak.

Etzait beñere aaztuko ango giro berezi ta alai.

Betbetan, ura sortu zan moduan, joan egin ziran gazteak Montmartre-runtz, eta altxa egin giñan gu ere ikusleok. Penaz, alegia... Bañan, agitz alegeratuta.

Parisko argi-itsasoak leen bezin geldirik zirauen eskillaren aurrean, urrutiko galda eskerge baten errauts epeldua bezelakoa.

Goitik, kamiñutik, elizari so une batez egondu ondoren, itxura guzietako turistak Montmartre-runtz.

Gaua zan.

Tximistada bat neritzan guziari.» (1).

Duela hoge ta bi urte euskaldun berri irautzaile ta aurrelari batek idatziriko textoa da hori, eta gaurko euskaldun «zahar» batena dirudi hizkuntza, gai ta gaurkotasun aldetik.

Egia esan, ba ditu (ere erabiltzean eta joskera aldetik, esate baterako) euskaldun berrien idazlanak izan ohi dituzten akats bat edo beste. Baina texto osoaren barnean huskeria bat da hori.

Arantzazuko batzarrean esana kontutan harturik, garbizalea da Txillardegi, baina ez garbikerizalea, eta «bohemioak», «funtzio», «tronpeta», «turista» ta abar erabiltzeko konplejorik ez du; beste alde batetik, herrizalea izan arren, arrunkeria edo arlotekeriarik gabeko hizkuntza landu bat darabil (deklinabideko atzizkiak, esate baterako: «gauza», «eliza» —a itsatsi ta guzti, behar den bezala—, «kaleetatik», «neska-mutik bik», «eskuaz», «ikusleok...), hizkuntza landu bat darabil nolako edo halako «euskal koine» bat egin nahirik euskera kultur hizkuntza bihurtzeko, ta elkartu egiten ditu, horrexegatik, bestaldeko euskalkiak eta hemengoak («dut», «agitz», «bidenabar», «multzo», «erronka», «so», «ikus» eta abar).

«Hizkuntza galetan eskarmenturik duenak aurki igerriko dio liburu honen egileak ez duela, gutxi entzun eta irakurri. Zaharrak eta berriak —liburuetan ikusiak, ez hiztegietan—, hitz arrotz eta jatorrak, jakintza hizkuntza eta herri esaerak nahastean irauli dizkigu. Ez dut esango, ez bailitzake egia ene ustez, Txillardegik bere mintzaera zeharo eskuratu duenik liburu honetan: halako gordin antxa aurkitzen zaio, osoro beldu ez den fruituarena. Ezin zitekeen bestela izan; ez ditu hitzak menderatu, hitzekin borroka bizian ari da. Ez

(1) J. L. Alvarez Eparantza (Txillardegi), *Leturia-ren egunkari ezkutua*, Bilbao, 1957, 132-33. orr.

baititu hitz politikak apainkiro elkartu nahi belarrien gozorako, hitz horien bidez adierazi baino arimaren zoko ilunetan izkututzen diren joera eta burutapen iheskorrak. Ez baita, batez ere, inoren oihartzun, ez baita besteren ahoz ari, bere baitaren baitatik baizik.» (L. Mitxelena, *Leturiaren egunkari ezkutua-ren Hitzaurre-an*).

Lehen pertsonan idatzia dago Txillardegiaren elaberri hori, eta alde hontatik ere aitzindari dugu Txillardegi, euskaraz lehen pertsonan idatzi izan den lehenengo elaberria berak idatzi duelako.

«*Leturiaren egunkari ezkutua*-n, lehen pertsonaren erabilkuntza, nobela osoan, etengabea da. Kontalaria, asma-kizun edo fikzio barruan dabil. Bere ixtorioaren kontalaria da Leturia. Bere esperientzia personalak kontatzen ditu, egunkari moduan. Eta nobelaren egiturari, funtzio edo zeregin bikoitza betetzen du: kontalari eta pertsonaia da. Esan nahi bait da, pertsonaia bera dela kontalaria, eta, alderantziz, kontalaria bera da asmakizuneko pertsonaia.» (K. Otegi, *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Bilbao, 1976, 124. orr.).

Lehen pertsona erabiltzean («*Banoala sentitzen dut*, baña nere bidea ezin ikus dezaket. Dena igarotzen zait egiñaletan, nigandik igeska gisan»), ezinegonez urduri dagoen bihotzaren aritmiaz ideiak, sentimenduak, gogaketak moldatuz, bihotz-kaden pareko esaldi laburrez josiz, gertaera eta kontaketa-aren arteko denbora (hirugarren pertsonan idazten duen kontalari orojakilearen denbora luzea) moztu egiten da ta bizitu narrazioa. Denboraren iheskortasunak Leturiari barnean ematen dion min etengabea lehen pertsonan adieraziz eta orainaldian gainera, gertaera denbora (Leturiaren gogaketa ta joan-etorrien denbora) eta idazketa denbora (ta irakurketa denbora ere bai, esango nuke) bat bilakatzen dira horrela gaurkotasun iraunkor batean.

Idazten ari den momentuan jadanik gertatua dena (berari gertatu zaiona) ere lehen pertsonan idazten du; baina, jakina, iraganaldian: «Itzarrik egin nuen bart amest. «Sacré Coeur»eko malladian izan nintzan arratsean.», «Tximistada bat neritzan guziari.»

Erabili hirugarren pertsona ere ba darabil paisaje bat edo jadanik gertatua dena (beste norbaiti gertatu zaiona) azaltzeko: «Parisko argi-itsasoak leen bezin geldirik zirauen

eskillararen aurrean», «Gazte franko zegoen malladi zabalean exerita» (ikus joskeraren jatortasuna), «Betbetan, ura *sortu zan* moduan, *joan egin ziran gazteak...*» (ikus, berriz ere, joskeraren jatortasuna). Paisaje baten deskripzioak izan dezaken astuntasuna arintzeko edo, besterik gabe, lau pintzeladatan hura pintatu ta beste zerbait azaltzeko, aditz jokoan elipsisera jotzen du maisuki batzutan: «Aurrean, urruti-urrutiraño, Parisko itsaso argitsua, ta bere gañean zerukoa, diz-diz ere bai. Ipurtargi multzoa goian eta beian. Nere atzean, eskillara luzearen koroatzat...»

Berriz etorriko ez den denboraren joate bizi ta azkararren arazo larri mingarria da texto horren tema. Ta lehen pertsona bakarrik ezezik, *denbora* hitza edo denbora konnotazio bat duten hitzak ere pilaka ditugu: «Beera-bear», «eguna», «gau», «dijoazkit asteak», «banoala», «igarotzen zait», «Paris-aldia», «igeska», «amaitzen», «geldi-erazi», «denboraren igarotzea», «dijoa», «oraingo», «lipar labor ta igeskor», «denborak», «dijoan», «bart», «berandu arte», «betbetan», «joan», «leen», «zirauen», «une batez», «tximista-da bat».

Aldiaren igarotze etengabeagatik gizonak betitik izan duen kezka ta samina agertzen dira Leturiarengan ere, Heraklitoren «panta rei» (joan doa dena) sorrarazi zuena, Bibliako Job-en «nire egunak korrikalariak baino arinago doaz, zoriona ikusi baino lehen joan dira» sorrarazi zuena, Virgilio-ren «fugit irreparabile tempus» «iheska doa berriro etorriko ez den denbora» sorrarazi zuena, La Fontaine'n «le tems, le grand voleur» (denbora, lapur handia) sorrarazi zuena, ta Lizardiren «Oi, zein den ituna / beera-bear au! / Nik ez nai eguna / biurtzerik gau!» sorrarazi zuena (eta aztertzen ari garen *Leturiaren egunkari eskutua*-ko kapitulu honen zerreran «leitmotiv» bezala jarria). Nobela hau idatzi zen aldi hartako existentzialismo giroaren eragina nabari da, gainera, Leturiarengan: «Illunpe batetik illunpe batera dijoan bidazti itsua naiz.», «Gizonaren ondamendia ezagutu ezker, nork ez du maitatuko?»

Benetako denbora (gertaeraren denbora), narrazio denbora (gertaera kontatzearen denbora) eta barne denbora (irudimenezko barne denbora psikologikoa) ageri dira texto honetan.

Batzutan, benetako denbora eta narrazio denbora ber-

dintsuak dira edo benetakoa baino luzeagoa narraziozkoa, momentu bateko bizipen eragingarri ta gogoangarri bat azaltzerakoan gehienetan gertatu ohi den legez: «Banoala sentitzen dut, baña nere bidea ezin ikus dezaket. Dena igarotzen zait egiñaletan, nigandik igeska gisan. Paris-aldia amaitzen ari zaidala nabaitzen dut ere, eta geldi-erazi naiko nuke denboraren igarotzea, arekin baidijoa agian gizonari eman zaion gauza bakarra. Beste batek urrutitik ikusiko banindu bezela ikusten dut nik nere burua, uriko kaleetatik paseatzen; oroimenean ikusten ditut oraingo lipar labor eta igeskor guziak, denborak edertu, ta olerki kutsu arrigarritz jantziak. Eta eldu egin nahi diot guziari, ikara bizian; eta...». Zoragarria benetan irudimenezko bilekutze hori («Beste batek urrutitik ikusiko banindu bezela ikusten dut nik nere burua»), gizonak bere buruarekiko duen estrainiamendu harrigarria adierazteko. Zoragarria baita denboraren oroimenezko gelditzearen bizipen azalpena («oroimenean ikusten ditut oraingo lipar labor eta igeskor guziak, denborak edertu, ta olerki-kutsu arrigarritz jantziak»), *Ubi sunt* topikoaren berriztatze bat eginez (Jorge Manrique-ren «cualquiera tiempo pasado / fue mejor» bezala) eta, denboraren ikertzaile sakon izan zen San Agustinen antzera, igarotako denbora egon dagoela oraindik arimaren oroimenean aitortuz (Ikus: *Obras de San Agustín, t. II, Las confesiones (Texto castellano y latino)*, 3ª ed., Madrid, 1955, Libro XI).

Beste batzutan, ordea, benetako denbora eta narraziozkoa berdintsuak dira edo benetakoa baino laburragoa narraziozkoa, jazoerak azaltzerakoan gehienetan gertatzen den bezala: «Aurrean, urruti-urrutiraño, Parisko itsaso argitsua, ta bere gañean zerukoa, diz-diz ere bai. Ipurtargi multzoa goian eta beian. Nere atzean, eskillara luzearen koroatzat, askotan maieotutako eliza zuri famaia, argiz edertua. Ikuskari bakana, alafede! Gazte franko zegoen malladi zabalean exerita, ta ez oso gazteak ere bai, ta nik ere berdin egin nuen. Aurrean, erronka, bohemiok, edo ez dakit nik zer ziran aiek, funtzio jatorra eskeñi ziguten: kankak, olerkiak, tronpeta edo gitarra jotzea, denetatik ikusi genuen. Baita dantza arrigarriak ere neska-mutil bik egiñak...» Zoragarria benetan, berriz ere, protagonistaren barneko paisajea. Hain zuzen ere, barneratu egiten du paisajea Leturiak eta bere barneko bibentzien arauera azaldu, margotu. Eta «Sacré Coeur»eko mailadian egon

ziren gazteekin pasaturiko orduak bere bizitzako ilunpetan argialdi bat izan diren bezala, paisajea ere argialdi bat da gau ilunaren barnean («Parisko itsaso argitsua, ta zerukoa, diz-diz ere bai. Ipurtargi multzoa goian eta beian...», «eliza zuri famatua, argiz edertua. Ikuskari bakana alafede!», «Parisko argi-itsasoak leen bezin geldirik zirauen...»).

Baina «illumpe batetik illumpe batera dijoan bidazti itsuarentzat» gau itsuaren erdiko («gaua zan») tximista bat bezalako da argialdi hori, edo Bibliako Cohélet-ek esango lukeenez «huskeriaren huskeria eta dena huskeria.» Hona hemen barne denbora, gizonaren izpirituak, gogoak neurtzen duen denbora, benetako denbora luzatu edo laburtu egiten duena («Pausurik batere eman gabe dijoazkit asteak», «Tximistada bat neritzan guziari.»), gizonaren denbora («distentio ipsius animi» esaten duena San Agustin, hau da «arimaren hedakuntza»), erlojuaren orduak luzatu edo laburtu egiten dituen gizonaren denbora, *Pozordu eta Minordu* alegian agertzen den denbora:

«—Ni zu baiño luzeagoa naz, Pozordu.

—Luzeagoa...?

—Bai.

—Ez zara,

—Ba naz.

—Baiña ez al dakizu, Minordu, bardiñak garana? Esakerea danez: «ordua ordu».

—Bai, baiña...

—«Bai, baiña...», zer?

—Esan, esan, ia, gizoni...» (M. Zarate, *Ipuin antzeko alegi mingotsak*, Bilbao, 1975, 151. orr.).

Existenzialistek lau haizetara nabarmenki hedatu dituzten bibentzia horiek euskal idazle batek baino gehiagok izango zituen, dudarik gabe, eta Txillardegik baino aurreragotik. Baina idatziz azaldu Txillardegik egin ditu lehenengoz, izenari baino izanari lotuago egonik bere aldiko ideiak eta balioak erroteraino ikusmiratuz eta hiri giroko hizkuntza batez baliatuz.

«Ez dut esango *Egunkari* honen azken zatia baino ederragorik ez dela ondu euskeraz —*belles lettres* direlakoetatik agitz urruti gabiltza hemen—, ezta ere gai garaigorik ez dela ukitu. Baina, baldin neure iritzia estalkirik gabe agertu

behar badut, ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitorrak, horrenbesteko garraxi sarkorrik. Ez dugu sekula egin, hitz batean esateko, Leturiarena bezalako ibilaldirik gogo bideetan barrena.» (L. Mitxelena, *Hitzaurre-an*).

Baina hori egiteko, beharrezkoa zen hiri kulturaz eta hiri hizkuntzaz jabetzea. Eta nola, ez bait zegoen hiriko eskal kulturarik ez hizkuntzarik? Hiriko erdal kultura euskaratu ta euskaldundu beharra zegoen ta hiri kutsuzko euskara «berri» bat egin beharra horretarako. Ba horixe egiten ahalegindu zen Txillardegi hiri barnean lekutuz *Leturiaren egunkari ezkutua*: «Parisko argi-itsasoak leen bezin geldirik zirauen eskillararen aurrean», «Beste batek urrutitik ikusiko banindu bezela ikusten dut nik nere burua, *uriko kaleetatik* paseatzen», «*Sacre Coeur*»eko malladian izan nintzan arratsean», «Aurrean, erronka, *bohemiok*», «itxura guzietako *turistak Montmartreruntz*». Baserritik hirira bakarrik ezeze, Euskal Herri-tik ere kanporatu egiten da, euskal hizkuntza unibertsaldu nahirik. «Leturia bezalako pertsonai batek eta bere barnean bizi duen problematikak nahi-ta-ez eskatzen du horrelako ingurune bat, ez litzake hortik kanpo (nork imajina dezake Leturia giro baserritar batetan) justifikatuko. Argi dago, gainera, autorearen giro urbano hau nabarmentzen ahalegindu dela, haren jokabidea ez dela oharkabea izan. Obran agertzen diren zenbait motibok (formalistek hitz honi ematen dioten zentzuan) giro urbanoa azpimarkatzeko funtzioa dute soilik, ezin daitezke beste ikuspegi batetik esplika.» (I. Sarasola, *Txillar-degi eta Saizarbitoriaren nobelagintza (Irakurlearentzat gidaria)*, Bilbao, 1975, 14-15. orr.).

A. Irigoyonek proposatu zuen 1956.eko batzarreak arnasa berri bat eman zion euskaltzaleen beldur itoari ta, Irigoyonek berak esaten duenez, arnasa horrek jarri zituen euskaltzaleak giro berri baten atarian. Eta Leturiaren neguko heriotzan, Lizardiren guraria («leenaren muñak aldatu beza / baratz zaarra baratz berri») egia udaberritsu bihurtu zen hiriko lorategietan, euskal fenix zaharraren hautsartean. Eta lore haien itzaropenezko geroaz liluraturik, kantuka hasi zen poeta Basarteko unibertsitate berrizatuaren amets ikuspegiaren doinu zahar baten haizetan.

«Lore, loreño, lore
lerden eta alai,
moldearen kolore,
forma eta usai.

Ene hiriko kultura
erditze minetan,
moldearen mindura
pozezko loretan.

Lore, loreño, lore
lerden eta alai,
moldearen kolore,
forma eta usai.

Paperezko orrietan
hiri-lore anitz,
kale eta auletan
hiri-lorezko hitz.

Lore, loreño, lore
lerden eta alai,
moldearen kolore,
forma eta usai.

Hiri-lorezko hitzez
hiriko hizkuntza,
eragindura berdez
loreen bakuntza.» (1)

(1) M. Zarate, *Higidura berdez*, San Sebastián, 1977, 106. orr.

A. LASA TA «BELAUNALDI ERREAREN ERLIJO GIROA

«Jaungoiko guztiak ukatzen dituen
emakume bat naiz.

Atzo,
zeruko jaungoikoa ukatzen nuen,
gero
infernukoa, eta
gaur,
lurreko jaungoikoa ukatzen dut.

Dotrina guztien aurka altxatzen naiz.

Atzo,
zeruko pekataria nintzen,
gero
infernukoa, eta
gaur,
lurreko pekataria naiz.

Hutsunean igeri dabilen emakume bat izaten naiz.»

(1)

«Jaungoiko guztiak ukatzen dituen / emakume bat
naiz». Harrigarria benetan fededun eta jainkozale izan ohi
diren euskaldun emakumeetariko batek (hamazortzi urteko
neska batek) idatziriko baiezen nabarmen hau! Izan ere, ez

(1) *mikel lasa eta amaia lasa-ren Poema Bilduma*, Donostia, 1971,
21-22. orr.

dut uste horrelakorik inoiz idatzi izan denik orain arte (1965. urtean gaude) euskal literaturan.

Euskal literaturaren haurtzaroko Etxepareren guraria («Euskara, / habil mundu guzira») egia bihurtu da, baina alderantzurik, aldrebesturik, mundu guztia etorri baita, bat batean, euskarara, Euskal Herrira. Eta euskaldun fededunen ohiturazko erlijio giro sendoa eten egin da kanpoko haizetan arnasa hartu duen gizaldi berriaren ezinegenezko kezka garasitsuan.

Hizkuntza giroaren etenaren parean egin da erlijio giroaren etena ere. Bateratsu ta berdintsu egin dira: «belaunaldi erreak» berak egin baititu biak.

«Askotan esan da gure hazaldiagatik, «belaunaldi galdua» dela, «belaunaldi erre». Oker ez banago, Rikardo zena- ren esaldiak ditugu. Ni neu ere sinestuta nago halaxe garel. Gure aurretik bada belaunaldi bat, ajerik asko aurkitzen badiogu ere, gu baino askoz naturalkiago euskaldun izan dena, euskaldungoan sustraituago. Gure ondoren berriz ere beste halakoxe bat datorkeen esperantza dugu. Gu bien bitartean gaude, sustrairik gabe, euskaldun garen ebidentzia galduta, euskaldun garel nekez deskubritu behar izanda, gure euskalduntasuna dolorez landu beharrean, dakizun situazioaren umeak beti ere, ahaleginak egin arren. Sustraigabeko arbola zaingabeak, situazio malkarrean hazita, laihotzetan, ezin fruitu mardulik eman. Irautea ez da guti. Gure zeregina lurra lantzea eta hazi berria ereitea da, ondorengo altxumak sendo hazi eta fruitu hoberik eman ahal dezan. Edo zubi egitea gure aurrekoen eta ondokoaren artean.» (J. Azurmendi, *Zer dugu Orixeren kontra*, Oñati (Gipuzkoa), 1976, 17. orr.).

Azurmendik *euskaldun* edo *euskalduntasun*-ari buruz esandakoa bera esan genezake *fededun* (edo *kristau*) ta *kristautasun*-ari buruz ere, hark hitz haiek jarri dituen lekuan hitz hauek jarri ondoren.

Sustrairik gabe, gurasorik gabe jaio da belaunaldi berri hau eta, Amaia Lasak berak dioskunez, «etxeko lau horma ustel artean» (diktaturapeko erlijio ta politika giro triunfalistaren fariseokerian), eta bakardade leherkorraren «haitzaren zuloan bakarrik datza», seigarren mandamenduaren lozrotan (mandamendurik garrantzitsuena berori balitz bezala) eta segurantzazko itomenean (abstrakziozko emakumetasun

eta amatasunaren segurantzazko itomenean, Amaia- ren kasuan).

«Inork ez du mutikoaren haize mingotsa laztandu, itsasoa bera ere maria behera urrunduz joan da.

Mutikoak ba du ama, aita ere, bainan mutikoa haitzaren zuloan bakarrik datza.»

«Haurtzaroan gauza gaizto bat bezala erabili zuen;

haiek zikina zela zioten eta betiko lotarazi zuen, zenik ere ez jakiteko.

Mari Sorginaren emetasunak urte luzeak lozorroan zeramazkien, gorputzak mogimendu gabeko aide triste bat dantzatzen zuen
hoztasun urdinean.»

«Emakumetasunean, amatasunean galduak, libertatearen orde- z segurantzari helduak.

Ez emakume ez ama ez eme ezin izanik,

igarotzen genituen geure egunak.»

«Grina guztiak hilak ziren eta sentimenduak zapalduak. Nere garaiko gizartearen zentzua, zentzurik gabeko zentzua, odolezko hibaiek biztuko duten zentzu galdua.»

Baina «gazte gera, gazte, ta ez gaude konforme» belau- naldi berriak ezin du, inola ere, itokeria hori onartu, erdal kutsuzko erlijio ta politika giro zapaltzaile hori onartu. Ta gerratea ezagutu dutenen beldur isil itoa lehertu egiten da gerratea ezagutu ez dutenen ezinegonaren irakinean, giro berri baten gurari biziz.

«Nereak ez diren
lurralde hauetatik
ihes egin nahi nuke.

Nereak ez diren ur hauek
alde batera
utzi egin behar ditut.

Haitz sendoaren biribiltasunean
nere bizitzaren hitza
lortu nahi nuke.

Biribiltasunean
sendotasunean
haitzaren gainean

a

e

i

o

u

berri bat esan nahi nuke.»

Higuina ematen dion giro batean bizi den gazteriak
aeiou berri bat egin nahi du, gazte ausarten gehiegikeria ta
kontrakeria amorratuz.

«Jaungoiko guztiak ukatzen dituen
emakume bat naiz.»

«Doctrina guztien aurka altxatzen naiz.»

«Hoy nace un hombre nuevo, obrero de su propio des-
tino, que hace lo verdadero en su lucha con la naturaleza
como en sus relaciones con los otros hombres, que ya no
busca garantías en una divinidad porque no quiere otro fiador
que él mismo, y que tal vez no crea ya en la idea de Dios muy
simplemente porque ya casi no cree en las ideas. La signifi-
cación precisa del ateísmo moderno, bajo sus mil rostros,
consiste en abandonar el cielo de las ideas por la tierra de
los hombres.» (J. Lacroix, *Sentido y valor del ateísmo contem-
poráneo en Mundo moderno y sentido de Dios*, Madrid,
1947, pág. 74).

Sineskeriazko sineskizun eta guzti, gauza gehiegi sines-
tarazi diote, beharbada, gazteriarri, ideia gehiegi (Kristo ez
zen ideietan egoteko etorri, gizonen artean egoteko baino),

erlijiozko ta politikazko dotrina gehiegi ta egintza gutxiegi,
eta egiaren eta gezurraren nahasi-mahasian, ez du ia ezer si-
nosten, ez dio ia inori ezer sinesten. Baina ameslari ta abeslari,
aeiou berri bat egiten hasten da indarkeriaren eta gogorkeria-
ren menpeko irautza latz eta estuan.

«Ez, ez dut nahi,
ez, ez, ez,
ez holako
zibilizaziorik.»

Eta euskal poetisaren hitzak euskal profetisaren hitz
bihurtzen direlarik, «odolezko hibaiez» (estualdi ta larrialdi
gorriz, zauriz, heriotzaz...) «piztutzen dute gizartearen zen-
tzu galdua» belaunaldi berriko gazteok, zahar kutsua duen
guztia apurtu, erre, hondatu ta suntsitu gurarik eta heureta-
riko batzuk ere deslilura ta arrabiozko berriztatze hortan erre
ta galduz Euskal Herri berri baten oinarri dardartietan.

«Uhinak hondar tristean
ahantzi duten txirla baino tristeago.
Ez dakit nun dudan galdu
fede gozo haren gozoa,
ez dakit nun dudan galdu.

Ai, umetako fedearen
sinismen bigun haren misterioa...

Jaurtitzen zaitudan fede,
amagandiko arnas triste,
adio betiko.
Zurekin bizi naiz triste,
areago menturaz zu gabe!
Adio betiko, fede adiskide.»

(J. Azurmendi)

Amaia Lasaren poesia, belaunaldi berriaren ahalegin
eta iraultza hortan irakurri ta aztertu behar da. Eta, gainera,
1965. urteko mojen ikastetxe batzutako giroan (hamar urte-
tan egon bait zen mojen artean) aztertu behar dira Amaia-
ren izkribuak, Simone de Beauvoir-en izkribuen antzera. «El Dios
de Simone de Beauvoir no es, generalmente, más que el iti-
nerario de su huida de un mundo que la agobia con su estu-
pidez. Cuando la jovencita «formal», dichosa, y discretamente

arrogante» está harta de los tabúes sociales y familiares, cuando se siente abrumada por el vacío de la enseñanza que recibe, se venga por medio de Dios, se busca en El. He aquí la causa de que Dios esté «fuera del mundo» y sea un tanto irreal, distinto del «relojero celeste» y, a la vez, del Dios conservador de los valores burgueses, que ella rechaza con todas sus fuerzas.» (Ch. Moeller, *Literatura del siglo XX y Cristianismo*, V, *Amores humanos*, Madrid, 1975, pág. 197).

Beste guztioi ematen dizkigun bezala ta belaunaldi berri horren giro berezian, hiru musturreko eman dizkio jadanik Amaiari bizitzak: 1) Eguberrietako erregerik ez dago, 2) haur berriak ez dira Parisen sortzen, eta 3) bizitzaren zentzua-
ren galdera, hau da, «zein da nire bizitzaren zentzua?». Hirugarren musturreko honen minez eta erneguz ari da idazten, neskatilatasunaren biziegarri ta bizipozak eraginda ta erantzun pozgarririk ezin aurkiturik.

«Jaungoiko guztiak ukatzen dituen
emakume bat naiz.

Atzo
zeruko jaungoikoa ukatzen nuen,
gero
infernukoa, eta
gaur,
lurreko jaungoikoa ukatzen dut.»

Unamunok esana datorkit gogora: «Los que reniegan de Dios es por desesperación de no encontrarlo.» Eta gehienetan, esango nuke nik, ez dute Jainkoa ukatzen beste jainko batzuk baizik, eta ukapen hau beharrezkoa dela uste dut. Hain zuzen ere, benetako Jainko ez diren jainko asko «hartu» dituenak (eta guztiok hartu ditugu, asko edo gutxi), ukatu egin behar ditu sasi-jainkook: itxurakeria hutsezko katoliko desgizatuen jainkoa, giza-itxurako jainko zahar bizartsu konsolatzaila, jainko suminkor zigortzaila, agintari ta aberatsen lagun den jainkoa, jainko erlojerua, jainko farmazeutikoa, bere zeruan urruti bizi den jainkoa...

«Etxeruntz nijoela
pentsatutzen nuan:

Jainkoa ez da bizi
gizonen onduan,
urruti zegok ura
han bere zeruan,
gu bakarrik utzirik
umezurtz munduan!»

(X. Lete.)

«Uno de los principales oficios del ateísmo, tanto en el individuo como en la humanidad, es el de desantropomorfizar progresivamente nuestra concepción de Dios, el de negar una forma de Dios que permitirá después elevarse a una forma más alta.» (J. Lacroix, *O. c.*, pág. 53).

Horrela, benetako Jainkoarenganako askatasunezko bidea garbi eta zabalik dago, ta san Agustinen «melius scitur Deus nesciendo» (hobeki ezagutzen da Jainkoa desezagutuz) egia bihurtzen da, ta san Pauloren «Deo ignoto» (Jainko ezezaguna) Jainko ezagun bilakatzen: «Atenatarrak, arras jainko-zale ikusten zaituztet. Hortik nenbilerarik, zuen tenplo ta jainko imaginei begira, aldare bat aurkitu dut hitz hauekin: «Jainko ezezagunari». Hona hemen, ba, ni, ezagutu gabe adoratzen duzuen horren berri ematera etorria. Lur osoa eta han diren gauza guztiak egin dituen Jainkoa, zeru-lurren Jauna izanik, ez da eskuz egindako etxeetan bizi. Ez da gizon eskuz zerbitzatzen, deusen beharrik balu bezala, berak baitiote guzietan ematen hatsa eta gainerakoak oro. Harek atera du bategandik gizadi osoa, lur osoan bizi dadin, guzietan noiz eta non bizi finkatuz, guztiak Jainkoaren bila ibil daitezten, ea itsuka bederen aurkitzen duten, ez baitago gutariko bakoitzarengandik urrun. Haren baitan dugu, izan ere, bizitze, ibiltze eta izate. Zuen olerkari batzuek esan duten bezala: «Haren arrazakoak gara.» (*Apostoluen Eginak*, 17, 22-28).

Olerki hau idazterakoan, atenatarren antzera dago Amaia Jainko ezezagunaren ezaguerako atarian neskaitila samindu baten hasperenez («ukatzen ditut», «aurka altxatzen naiz»), eta (kristau askoren tradizionalakia geldiarengandik eztenkadaz urratuz) benetako bidetik doa benetako Jainkoaren bila. Izan ere, eskolastikoez esaten zuten «si apprehendis non este Deus» (aditzen baduzu, ez da Jainkoa). Baina benetako bidetik joan arren, biderdian gelditzen da. «¿No es religioso preferir no tener Dios que tener un Dios injusto?

¿No es anhelo religioso decepcionado el que habla en el apasionamiento de esa negación? La incapacidad para superar estos puntos inciertos obedece a la pobreza de la vida sentimental; pero también al desamparo del alma, que queda sola en la lucha de las concepciones. Un ánimo sencillo, cuyas más fuertes impresiones son las recibidas en la lucha por la vida, no puede trascender de esos puntos. Espera auxilio de Dios directamente y lo espera justamente en esta necesidad presente. Esto no es falta de religión, sino una religiosidad bien fundada; sólo que es una religión primitiva que se atiende literalmente y externamente a la palabra: «Llámame en la necesidad, que yo te salvaré.» (E. Spranger, *Psicología de la edad juvenil*, 8. ed., Madrid, 1966, página 356.) Eta, jakina, «el hombre sin Dios está inseguro en el universo» (X. Zubiri) eta «hutsunean igeri dabilen emakume bat» da Amaia.

Paraleloki jarritako hiru zutaberen gainean dago olerki guztia.

«Jaungoiko guztiak ukatzen dituen emakume bat naiz.

Dotrina guztien aurka altxatzen naiz.

Hutsunean igeri dabilen emakume bat izaten naiz.»

Poetisaren bizitzako bibentziak dira hiru zutabeok: 1)

Jainko guztiak ukatzen ditut, 2) Jainkoei buruz dauden dotrina guztien kontra nago, eta 3) nire bizitzan orain arte izan ditudan oinarriak suntsitu ondoren, hutsunean nabil oinarririk gabe.

Puntu hontara heldu garenez gero, oso interesgarria litzateke Amaiaren haurtzaroa ezagutzea ta olerki hau sikoanalisis bidez aztertzea. Eta hau bakarrik ezeze, Amaiaren olerki guztiak. Eta baita belaunaldi berri «errearen» obra guztia ere. Sikoanalisiaren argitan edo ilunetan aztertzea, literatura hori hobeki ezagutzeko argibide bat izango litzatekela uste dut. «Cuando miramos un poema psicoanalíticamente, se le considera como si fuera un sueño o como si algún paciente ideal, tendido en el diván, se hubiera puesto a hablar en pentámetros yámbicos. Pero, como en una explicación corriente, se procede paso a paso. Primero se busca el nivel general o los niveles de la fantasía asociada con el lenguaje. Por nivel entendemos las etapas familiares del desarrollo de la infancia:

oral, anal, uterina, fálica o edípica. A primera vista, yo [...]» (Norman N. Holland, *El «inconsciente» en la literatura: la crítica psicoanalítica en Crítica contemporánea* (obra escrita en colaboración), Madrid, 1974, pág. 163). Baina ni ez naiz nor hortarako ta oraingoz izankizun hutsean geldituko de azterketa hori.

Paraleloki jarritako hiru zutaberen gainean oinarriturik dagoela olerki hau esan dugu. Hiru zutabe horien bitarteko azalpen bezala ahapaldi bi jarri ditu Amaiak, paraleloki hauek ere ta mailaka josiak bere fede galtzearen prozesu-adierazpen bezala (*atzo, gero, gaur; zeru, infernu, lur; jaungoikoa, pekataria; nuen, dut; nintzen, naiz*).

Hiru zutabeak orainaldian daude (*naiz, altxatzen naiz, izaten naiz*) orainaldiko bizipenen adierazpen direlako. Erdiko ahapaldi biak, ordea, lehenaldian eta orainaldian daude (*nuen, dut; nintzen, naiz*), Amaiaren bizitzaren historiari dagokionez, eta bere edukatzaileen ekin mailukarian behin eta berriz entzun dituen hitzekin lotzen ditu aditzok (*jaungoikoa, zeru, infernu, pekatari*).

Atzo, gero ta gaur hitzek, semantika hedadurarengatik, denbora konnotazio berezia dute, ta *lehenago, geroago ta aspaldion* hitzen esanahia dute hemen.

Emakume kontzientzia duela adieraziz, *emakume* hitzarekin hasi ta bukatu du Amajak bere olerkia, emakumeak ere belaunaldi berriaren mogimendu ta literaturan sartuz erdiminetan dagoen gure munduaren barnean.

Amaiera legez, gogoko dudana belaunaldi berriko poetei maitasun higiduraz egin nien olerki bat.

Uhain berri etsipendua

Olerki berriaren
tristura
nire bihotzaren
mindura,

«Nire lurra, nire anaiak,
amesak nireak. Urteen zalapartan
orok galdu zuen
niretasunaren poza.»

«Jaungoiko guztiak ukatzen dituen emakume bat naiz.»

«Aski dut gaurkotz letani latza:
bibotz mindurak eragindako
lelo garratza.»

«Itsas-ontzi aintzinako kobrearen metal zabarrak
ez du ene itxura tristearen tristura
eta plaia-bondar-hustuak udazkenean
ez du ene etsipenaren zapora garratza.»

«Ez aingeruk eta ez arranok
hemen ez du jadanik
egitekorik ezer.»

«Hil zaigu dena,
eta poetak
uste
du

ezerk ez duela ezer balio.»

«Oi gure denbora hunen desolamendua!»

...eta beste mila
kinka hots,
poeten
makila
kaden
ta mingots.
Erdiminetan dagoen
munduaren
garrasiak
eta antsiak.
Kontzientziaren,
kontzientzipearen
ta kontzientziezaren
higiduraz
ta etsipenaren
kutsaduraz
sortuak.
Beranduko existentzialismoaren
kantuak.
Euskal izate zapalduaren
oramahaiian,
estuaren
estuan,
oratuak.

Euskalkeriaren
aurka
mailuka
landuak.
Erljiokeriaren
saminez
suminez
piztuak...
Gure olerki berria:
etsipenaren odol goitik larria.
Baina badute,
hala ere,
gure poetek,
luma amorratuaz
eta tinta garratuaz
idazten
duten
profetek,
badute,
antza,
zerbaiten esperantza,
idazten
jarraitzen
baitute.

Olerki berriaren
tristura
nire bihotzaren
mindura.» (1)

(1) M. Zarate, *Higidura Berdez*, San Sebastián, 1977, 37. orr.

A. URRETABIZKAIA TA SINTAGMA BERDINTSUAEN PILAKETA

Gai, forma ta hizkuntza aldetik, aldaketa handiak egin dituzte euskal poesian uhain berriko idezleek (Ikus: *G. Aresti ta euskal poesiaren eraberritzea* nire lehenengo *Euskal literatura* liburuan, Bilbao, 1977, 93-106. orr.). Euskal topiko batzuk ere aldatu egin dituzte, egiaren borobila beste alde batetik ikusiz eta aztertuz. Eta aldatu bakarrik ezezik, destopikotu ere egin dituzte topiko batzuk: euskaldunen ardozaletasunaren edo ardozalekeriaren topikoa, esate baterako.

Arantxa Urretabizkaia izan da topiko hori destopikotu duen idazleatariko bat. Hain zuzen ere, topikoturik ditugun euskal poesia ta kantu anakreontikoak beregandu ta horien alderantzi ta sustrai historiko ta mingotsa erakusten digu idaztankera ta adierazpide berezi batzuen moldeetan.

«Ene mementurik zorionsuenak
ardo usaiak
inguratzen ditu
ardo usaiak ito ditu
ardoaren kiratsak
masailtako azalaren azpitik
eskandalosoki
kantatzen zuen ardoak
sudurra
moretzen zuen ardoak
sabela

puztutzen zuen ardoak
 alkandoran
 malko formako kondekorazio miseriatsuak
 miseriaren eta hondamendiaren
 seinale
 odolezko malkoak
 eskuak trakesten
 begiak urratzen
 pausoa biguntzen
 adimena
 borondatea
 maitasuna kutsatzen
 itotzen zituen ardoak
 ardoaren kiratsak
 Gernikan
 edandako hautsak eta keak
 bildurrak eta zauriak
 garraisiak eta kexuak
 bustitzen zituen ardoak
 Santofiako
 lotsak eta esku lotuak
 baztertzen
 Burgoseko
 hotzikarak eta algarrobak
 Donostiako
 mesprezioak
 alkandora urdin mantxagabeak
 kopeta altxatuak
 esku ukatuak
 bizkar erainak
 beratzen zituen ardoak
 masailtako azalean eta esku zimeletan
 mendekuaren odolaren
 ordezkoa
 ahoan hitz desiratuen ordaina
 ordezkoa eta ordaina» (1).

(1) Arantxa Urretavizcaya, *San Pedro bezperaren ondokoak*, *Euskal literatura* 72-an (Elkarlanean egina), Donostia, 1972, 62-63. orr.

Berehalaxe konturatzen gara (idaztankerari gagozkio-
 larik) aurreragarri ez diren sintagmak (sintagmas no progre-
 sivos) paraleloki jartzea, elkarbidez multzokatzea, gogoko
 duela Urretabizkaiak.

«eskandalosoki
 kantatzen zuen ardoak,
 sudurra
 moretzen zuen ardoak,
 sabela
 puztutzen zuen ardoak»

Mendez mende, literatura guztietan agertzen da tekni-
 ka hori. Baina maisuki berrizatu dute 1927.eko gizaldiko
 erdal idazleek eta 1964.eko gizaldiko euskal poetek. Dá-
 maso Alonsok eta Carlos Bousoñok aztertu dute inork ondoen
 teknika hori (euskaraz ez du inork aztertu). Eta sarrerako
 argibide bezala, ez dut Dámaso Alonsoren beraren hitzak
 baino egokiagorik eta argiagorik inon aurkitu.

«Todas las series sintagmáticas posibles en la elocución
 humana pueden reducirse a dos grupos, que provisionalmente
 designaremos con los nombres de sintagmas progresivos y no
 progresivos. Si decimos *Pedro entró en el jardín, que era
 muy grande*, cada palabra desempeña una función sintáctica
 diferente; diremos que hay en esta frase una fluencia sintác-
 tica continua, progresiva. Aun el relativo *que* no repite, desde
 este punto de vista, el concepto *jardín*, pues representa una
 perspectiva sintáctica diferente. Pero si decimos *Pedro, Juan
 y Luis pasearon por las terrazas altas, aireadas, luminosas,
 por las avenidas largas y umbrosas, por los jardines aromados
 y recoletos; después volvieron a la casa*; la progresión sintác-
 tica está detenida por varias plurifurcaciones, que a veces se
 subplurifurcan de nuevo: *Pedro, Juan, Luis* desempeñan una
 misma función, la de sujetos; *por las terrazas...*, *por las ave-
 nidas...*, *por los jardines*, la de complementos circunstancia-
 les del predicando; y, en fin, en los tres grupos *altas-aireadas-
 luminosas, largas-umbrosas y aromados-recoletos*, las palabras
 que forman cada grupo repiten, dentro de él, una misma fun-
 ción adjetival modificadora, como complementos, respectiva-
 mente, de los sustantivos *terrazas, avenidas, jardines*.

Si (como le es tan grato y natural al espíritu del hombre,
 y la misma escritura parece en este caso favorece) cambiamos

ahora la fluencia temporal por la espacial, viene en seguida a la mente la imagen de un río: en el primer ejemplo de los dos que hemos dado se trata de un río que fluye veloz por un único cauce; en el segundo, el curso se demora subdividiéndose en brazos que pueden a su vez subdividirse. Al fin (*después volvieron a la casa*) todo resbala otra vez por un cauce único.

Llamo sintagmas no progresivos a esos momentos de la elocución que en todas las voces que los forman tienen una misma función sintáctica: así *Pedro, Juan y Luis*, o bien *altas, aireadas, luminosas*, etc. Pero llamo también series sintagmáticas no progresivas a las del tipo *por las terrazas...*, *por las avenidas...*, *por los jardines*, aunque *terrazas, avenidas, jardines* desarrollen por su lado, independientemente, tres progresiones sintácticas [...].

Si ahora, junto a nuestro segundo ejemplo colocamos este otro: *Pepe y María nos han mandado pasteles y caramelos*, que también contiene sintagmas no progresivos, vemos cuán de la lengua diaria es este último, cuán fuertemente especiado de literatura estaba aquél. En el que acabamos de enunciar, la lengua no hace sino adaptarse económicamente a necesidades prácticas; en el otro, el escritor aprovecha las posibilidades que la no progresión ofrece para completar conceptualmente, pero también para pintar, describir, evocar, para crear un ambiente. Las terrazas eran *altas, aireadas, luminosas*; los jardines *aromados y recoletos*, etc.; mientras que en la serie *por las terrazas...*, *por las avenidas...*, *por los jardines*, no solamente quedan especificados los lugares, sino que cada uno de estos miembros vitaliza, por decirlo así, a los demás; la atmósfera misma de aquel paseo vive en nosotros, su duración, su gravedad, su sencillez, su belleza. Un espacio espiritual se abre en la mente del lector, algo vibra —criatura nueva, emoción— dentro.» (Dámaso Alonso y Carlos Bousoño, *Seis calas en la expresión literaria española* (Prosa-Poesía-Teatro), 2ª ed., Madrid, 1956, págs. 25-29).

Aurreragariak ez diren sintagma berdintsuak pilakatzeak berebiziko indar adierazkorra du, ba, literaturan, eta nafora edo errepetizioaren (eta poesiako errepika ahapaldien) bariante bat baino ez da, herri-herrian sustraiturik dagoen adierazpide baten bariante bat: «Neskatoaren aurrean aurkitu zenean, gorri gorri gorri egin zen mutila»; «Heu baiz bi, heu,

txatxar burubandi hori, euskaldunen etsaia!»; «Hau diagu / pobrearen jakitea: / lanegin, lanegin, / lanegin ta hiltzea.» (J. Azurmendi). Azkenengo adibide hontan «Hau diagu / pobrearen jakitea: / beti lanegin (edo geratu gabe lanegin) / ta hiltzea» jarri balu Azurmendik, ez zuen hainbesteko indar adierazkorrik izango, naiz eta gauza bera argiago esan.

Arantxa Urretabizkaiak behin eta berriz darabil sintagma berdintsuen pilakatze teknika hori «bere-berea duen mosaicogilearen ttipitasun gusto paregabez» (J. Azurmendi, *Adan* 1975: *Azterketa saio bat*; J. Zulaikaren *Adanen poema amai-gabea*-n, Donostia, 1975, 113. orr.).

«kausa gloriosik gabeko
Jeanne d'Arc alpretaduna,
kainoirik gabeko
Agustina Aragoiko,
lumarik gabeko
Simone de Beauvoir analfabetoa,
ezpatarik gabeko
aingeru mendekatzailea.»

«Zihur nago:
ni jaio nintzenez
buruak
beste alde batetara bueltatuak zeuden
eskuak
beste norbaiterantz luzatuak
begiak
beste norbaitengatik malkotuak
kandelak
beste norbaiten izenean piztuak
kantak
beste norbaitengatik isiliak
ezpainak
beste norbaiten egarriz.»

«Eta zuk,
zangoak luzaturik,
eskuak gurutzaturik,
begiak hertsirik,
entzunean dautazu.»

«hitz esan gabe bat bezala
 hitz entzun gabe bat bezala
 hitz ulertu gabe bat bezala
 hitz pentsatu gabe bat bezala
 hitz arrotz bat bezala
 hitz ahaztu bat bezala
 aurkitu nauzu
 goizean»

Begira orain aztertzeraz goazen textuon ere nola darabilen teknika hori.

«ardo usaiak
 inguratzen ditu,
 ardo usaiak ito ditu»

«eskuak trakesten
 begiak urratzen
 pausoa biguntzen
 adimena
 borondatea
 maitasuna kutsatzen
 itotzen zituen ardoak
 ardoaren kiratsak
 Gernikan
 edandako hautsak eta keak
 bildurrak eta zauriak
 garraisiak eta kexuak
 bustitzen zituen ardoak»

«Donostiako
 meziprezioak
 alkandora urdin mantxagabeak
 kopeta altxatuak
 esku ukatuak
 bizkar erainak
 beratzen zituen ardoak»

Bere beste olerki askoren antzera, teknika hortaz baliaturik moldatu du Urretabizkaiak olerki osoa. Hain zuzen ere, poesia sikologikoarentzat berebizikoa da teknika hori. «A cada agresión paralelística, a cada oleada, a cada conjunto, la emotividad va creciendo hasta adquirir un temperatura equivalente a la que el poeta ha sentido.» (C. Bousoño, *Los*

conjuntos paralelísticos de Bécquer en Seis calas en la expresión literaria española, 2ªed., Madrid, 1956, página. 215).

Gainera, texto honek, jostera eskema berdinen errepetizioaren barnean, halako mozkorti baten errepika bezala, neurritz ere berdintsuak diren sintagma batzuk ditu barneko korrontearen ritmo neurrigabe ta etengabearen barnean.

«eskandalosoki
 kantatzen zuen ardoak
 sudurra
 moretzen zuen ardoak
 sabela
 puztutzen zuen ardoak»

«eskuak trakesten
 begiak urratzen
 pausoa biguntzen»

«edandako hautsak eta keak
 bildurrak eta zauriak
 garraisiak eta kexuak»

«kopeta altxatuak
 esku ukatuak
 bizkar erainak»

Baina ritmo mozkortiaren barneko aldaketarik handiena (ritmoa ta rima ere aldatu egiten baitira etengabeko korrontearen joanean) olerkiaren erdi ingurukoa da.

«eskuak trakesten
 begiak urratzen
 pausoa biguntzen
 adimena
 borondatea
 maitasuna kutsatzen»

«Esta transformación rítmica en la mitad de la composición es, con frecuencia, sumamente característica y responde muy bien a la realidad del trémulo movimiento interior.» (E. Spranger, *Psicología de la edad juvenil*, 8. ed., Madrid, 1966, pág. 96).

Punturik eta komarik gabe idazten du Urretabizkaiak barneko bakarrizketaren segidazko jarioa adierazi nahiez. Gaurko hainbat idazlek erabili duen teknika hau oso egokia

da olerki hontarako, ardoaren berriketa etengabe mozkortua adierazteko.

Esaldi aldetik ere berdintsu jokatu du Urretabizkaiak, segidazko esaldi korronte bat baita olerki guztia. Esaldi menperatuz, subordinatuz, beteriko esaldi luze luze bat dela esan genezake. Hain zuzen ere, korrontearen iturburu legez hasieran paraleloki juntagailurik gabe, lotura hizkirik gabe, dau den bi esaldi nagusietan («Ene mementurik zorionsuenak / ardo usaiak / inguratzen ditu / ardo usaiak ito ditu») zintzilikaturik daude esaldi subordinatu guztiak, gainerako esaldi guztiak, hordien letania baten antzera.

Azkenez (gaiari gagozkiolarik), poesia anakreontikoaren alderantzia, bestekaldea, da olerki hau. Ez da egin izan ardo ta ardoaren lilura atsegingarria aipatzeko, goratzeko, ardozaletasunaren sustrai mingots samingarria adierazteko bai zik, behinola Meléndez Valdés-ek (*Odas anacreónticas*, XXXIX) egin zuen antzera:

«El néctar que nos salva
de los desvelos tristes
con que negra la suerte
nuestro espíritu aflige.»

Euskal Herriaren historia ta oraingo egoera (1972. urte ingurukoa) eta bere egoera bat eginik, Arantxak ere gure zoritxarraren estalgarri bezala erakusten dizkigu ardo ta ardozaletasuna, zapalkuntza batetik sorturiko «miseria ta hondamendiaren» menpetik ihes egin nahi duten heroe kondekoragarrien bide legez, ardoaren kiratsa bezalako kontraposizio garratzez baliaturik.

«alkandoran
malko formako kondekorazio miseriatsuak
miseriaren eta hondamendiaren
seinale
odolezko malkoak»

Gernikan, Santofañ, Burgosen, Donostian (azken berrogei urteotako euskaldunen historiako gertaera laidagarri, negargarri ta gogoangarriak jazo diren lekuak), ardoak busti ditu «hautsak eta keak, bildurrak eta zauriak, garraisiak eta kexuak», ardoak baztertu ditu «lotsak eta esku lotuak», ardoak beratu ditu «hotzikarak eta algarrobak, alkandora urdin mantxagabedunen (falangisten) mesprezioak, euskaldun

abertzaleen kopeta altxatuak, esku ukatuak, bizkar era (g) inak (torturen oinazez). Ardoa izan da

«masailetako azalean eta esku zimiletan
mendekuaren odolaren
ordezkoa
ahoa hitz desiratuen ordaina
ordezkoa eta ordaina»

Ba dugu, Arantxa, bai, euskaldunok ardozaleak izateko arrazoirik. Ardo gozoaren lilurak bakarrik ez du sortu gure ardozaletasuna edo ardozalekeria. Ba dugu hortarako, gure historiari begiratu ez gero, beste arrazoi askorik eta tristerik.

«Ardo gozoaren lilura
euskaldunon sorgin,
ardozaletasuna gara gu
betirik...
«Zergatik?» diozu, txo?
Ba dugu hortarako
arrazoi tristerik.
Ardoaren zorabioan
galdu omen dugu
euskaldunon indarra,
ardoaren baleta
omen da
gure historia,
ardoaren hondarra
gure kultura...
Ardo gozoaren lilura
euskaldunon sorgin,
ardozaletasuna gara gu
betirik...
«Zergatik?» diozu, txo?
Ba dugu hortarako
arrazoi tristerik.
Opioaren ametsetan,
parrezko negarretan,
zapaldu ta zapaltzaileak
berdindu
ta gure atsekabeak
aldendu,

ardoak arantza
 larrosa
 bihurtzen du.
 Lau begi ta oinik ez,
 leheneratu
 gizon ta andre,
 ardoa dugu
 herri askatua,
 hizkuntza batua,
 tximino mundu
 drogatua.
 Ardo gozoaren lilura
 euskaldunon sorgin,
 ardozaleak gara gu
 betirik...
 «Zergatik?» diozu, txo?
 Be dugu hortarako
 arrazoi tristerik.» (1)

(1) M. Zarate, Higidura berdez, San Sebastián, 1977, 74. orr.

AZTERGAIAK

Orreaga

«Gaberdia da. Karlomano Errege Auritzberrin dago bere ekerzito guziarekin. Zeru illunean ez da ageri ez illargirik ta ez izarrik; urrutiraugar andiak distiatzen dute menditar-tean; Frantzesak kantatzen ari dira errian; Altabizkarko inguruetan sentitzen dira otsoen izugarritzko marruak, eta Euskaldunak sorrozten dituzte bitartean beren dardo ta aizkorak Ibañetako aitz eta arrietan.

Antsiarekin Karlomanok ezin du loa bereganatu; oiaren ondoan bere pajetxo batek irakurtzen du amoriozko kondaira bat; urrutixiago, Erroldan indartsuak garbitzen du bere Durandarte ezpat famatsua, eta Turpin azepizpiku onak erreza-tzen dio Jaungoikoaren Ama Santuari.

—Pajetxo neria! —dio Karlomano Erregek— Zer da gabazko ixiltasuna austen duen ots ori?

—Jauna! —erantzuten dio pajeak— Iratiko, itsasoa baiñon andiagoko, basoaren ostoa dira, aizia mugituak.

—Ah, gazte maitia! Eriotzaren deadarra diruri, eta nere biotza beldur da.

Gaba oso illuna da. Ez da zeruan ageri illargirik, ez izarrik; urrutiraugar andiak distiatzen dute menditar-tean; Frantzesak lo daude Auritzberrin; Altabizkarko inguruetan otsoak marruaz dira, eta Euskaldunak sorrozten dituzte beren dardo ta aizkorak Ibañetako aitzetan.

—Zer da ots ori? —galdetzen du berriro Karlomanok. Eta pajeak, errendituta loaz, ez dio erantzuten.

—Jauna! —dio Erroldan indartsuak— Mendiko ujola da, Andresaroko ardi taldeen beadia da.

—Intziri bat diruri —erantzuten du Errege Frantzesak.

—Egia da, Jauna —dio Erroldanek—, erri onek negar egiten du gugaz oroitzen danean.

Larritasunarekin Karlomanok ezin du loa bereganatu; lur eta zeruak argi gabe daude; otsoak ari dira marruaz Altabizkarren; Euskaldunen aizkorak eta dardoak diztiazten dute Ibañetako ariztarteetan.

—Ah! —suspiratzen du Karlomanok— Ezin det loa neregaratu; sukarrak erretzen nau. Zer da ots ori?

Eta Erroldanek, loak arturik, erantzun ez zion.

—Jauna! —dio Turpin onak— Errezatu zazu; errezatu zazu nerekin. Abarrots au Euskal-Erriko gerra kantua da, eta gaur da gure almenaren azkeneko eguna.

Eguzkiak argitzen ditu mendiak. Karlomano garaitua iges dijoa «bere luma beltz ta bere kapa gorriarekin». Aur eta andreak dantzatzten dira pozkidaz beterik Ibañetan. Artozarik ez da Euskal-Erriaren eta menditarren irrintziak eltzen dira zeruetaraño.» (1).

Nere burua

«Bil nadin barnera, mintzo bat entzuki,
argi bat izetuz, bihotza landuki.
Leze-barne huntan zer dut ikusgarri?
Bost aldiz nerera mintzo ozenak jo du!
Ni, berriz, etxetik hurrun nabilazu!
Ate-joka norbait. Erantzuna...: «Bego».
Iparra geldi da, legun dator ego,
hegatsetan dakar maitetasun bero.
Haren mintzoari muzinik norik egin?
Bide zoroak utz, etxera sar nadin.
Etxera sar eta zoko denak ilun,
begi-lauso hau noiz enegandik hurrun?
Egun zoroaren aztarnak itzali,
Deitzaile maitea, Zu zaitut iguzki.

(1) Arturo Campion, J. A. Irigarai-ren *Euskera eta Nafarroa-n*, Pamplona, 1973, 75. orr.

Ba dakust enegan izkutu hondarra:
barnean bizi dut Irutan Bakarra.
Berak bizi nau ni, Beronek naragi;
barne-muin hunetan Berau bekit argi.

Nigan hari duzu, Aitak sor Semea,
ta alkar maitatuki Biongandik duzu
Has Gurena. Jesus! Nire lo betea!

Ernai-iturria nigan daukadala
Jainkoaz hain antzu! Nondik naiz ibili?...
Aunitz esker! Jaunak egin baitit argi.

Ez zadan argi hau nik itzal, ez ere
edozein mintzori ta argiri jaramon:

emen daukat oro; etxe-barnen nagon.» (1)

Ameriketatik aitak semeari

«Ik eztakik zergatik utzi nian gure Euskalerri maite ori.
Amabost urte dituk laster eta ire aita zuztarrez ezagutzeko
garaya badek. Lau senide izan zinaten. Lenbiziko irurak,
bata bestearen ondorean, udaberriko goizlore batzuk bezela,
alkar ezagun ere gabe, il zitzaizkigun. I jayo intzanean, etze-
kiat nori otu zitzaion ik «benturako umea» izan bear uela,
Izeba Isabeli naski. Uraxe dek olako begizko ta sorginkeria
oriek beti gogotan dauzkana. Berak eramán induen, jayo ta
bateratsu, jayegun batean elizpera, lenengo agertzen ziran
gizaseme ta emakumea ire aitabitxi ta amabitxi izateko. Orre-
gatik aiz i Kaltzaundi ta amona Inaxiren besoetako semea.
Bizi ote dituk berak! Ik urte ta erdi izan baino lenago il uen
ire ama, nere emazte gaixoa. Norik esan Isabel ta Eladi aitama
batzuen aurrak zirala! Urte beteren buruan, norbaitek puz-
tuta, asi zitzaidan amona belarriak berotzen: Isabel emazte-
tzat artu bear nuela ta bear nuela: ni isilik. Bera uela iretzat
amagairik onena, etxandre aundia zala, egilea ta eragilea: ni
isilik. Etzaidak bein ere emakume ori biotzean sartu ta, ama-
ginarreba maite izan arren, nere burua maiteago nian; eta
bazkalondo batean (zearo oroitzen nauk), zearka-mearka ibili
gabe, ezetz esan niokan.

Geroztik egunak neretzat eguzkigabeak zitukan. Gorpu-
tza lokabe, baina gogoá atsekabez lotua nian eta auzo guztien

(1) Orixe, *Barne-muinetan*, Zarautz, 1934, 124. orr.

aomingainean irrigarri nindukan urte ta erdi ayetan. Nik alde egin bear. I uzteak biotza erdiratzen idan, baina erroren onizate gerokoak onerontz ekarri nindukan.» (1).

Errota-zuri

«Erreka ertzean altza,
ertzerago errotea;
inguruetan ederren
errotako alabea.
Marti-zozoa kantatzen
bidez goiko sagastian;
astotxu zaarra zamauta,
nekezka, aldapa erdian.
Erreka ondoko bolu,
—zuria goitik beeraño—
gordeta daukan pitxia
eztot ikusi gaurdaño.
Bolutxuko neskatilla,
—larrosa eder dirudi—
ibar osoan ezta iñor,
ai, zeu baizen maitagarri!
Epailla lenen-egunak.
—garia aspaldi erne zan—
oraindik ezta lorarik
ezkaratzeko arazan.
Neskatil zoragarria,
—emeretzi udabarri—
ire ibilkera jaiok
aundikiena dirudi.
Txakurrak zaunk etxaurrean,
—aatak errekan igeri—
neskearen ezpanetan
barrea loratu bedi.
Errotatxuko alabak
urrezkoa dau biotza;
ai, ederra! nok leikean
entzun zugandik baietza.

(1) R. M.^a de Azkue, *Ardi galdua*, Bilbao, 1918, 19. orr.

Mendi artean ibarra,
erretertzean errota:
bolu aretan euskotar
neska garbi bat gordeta.» (1)

Oillarra, katua eta igitaia

Basa-oillarra eta basa-katua etxeke oillar eta etxeke katu egiñak zituzten erri batean, aita batek iru seme zituan, eta iruetako bati katua eman zion dote, eta besteari oillarra, eta irugarrenari, berriz, igitai bat.

Eta irurak mundurik-mundu joan ziran. Eta illunabarean erri batera iritxi. Eta illundu bezain laister, erriko gizonak, eguzkiaren irteerako aldera joan, eta lurrari joka asi ziran. Eta zer ari ziran galde, eta eguzkia etorrazten ari zirala; bestela, bigaramonean etzala eguzkirik etorriko, alegia. Eta aiek, orduan, berak ba zutela gauza bat, gau guztian ala ari gabe, goizaldean eguzkia ekarriko zuana, eta joateko lotara. Eta esan ta egin, goizaldean oillarrak jo, eta andik bereala eguzkia. Eta zenbatean salduko zuten izi ura; eta onen bestean.

Eta bigaramonean, berriz ere, mundurik-mundu. Eta beste erri batera iritxi. Eta an, berriz, gari ebaiten arrizko aizkora batekin. Oso nekez. Eta orduan aiek, berak ba zutela erremienta bat, lan ura errexago egiteko. Eta igitaia artu eta ixtanpatean eun da bere aldiko sailla ebaki. Eta ea zenbatean salduko; Eta onenbestean...

Eta, berriz ere, aurrera, mundurik-mundu. Eta zijoazela, beste erri batean arratoi-plaga ikarragarri bat, eta erriko guztiak arrika eta makilka arratoi-eizan. Eta aiek orduan, berak ba zutela gauza bat, arratoi guziak bereala ilko zituana. Eta zakutik katua atera, eta begien itxi-iriki batean arratoi guztiak il. Eta ea zenbatean salduko zuten; eta onenbestean. Eta naiko diru artu, eta etxera pozik iru mutillak.» (1).

(1) Eusebio Erkiaga, *Milla euskal-olerki eder-ean*, Larrea-Amorebieta (Bizkaia), 1954, 707. orr.

(1) Imanol Lekuona.

Eguna berantz doa

«Oi, Bidazti Deuna, sar zaite neurera,
bertan dozu, bada, maitasun arrera;
bekidat bizitza
zure itza.

Idazki doneak azaldu daidazuz,
euren muin eztiak emon egiztazuz;
bel zure mintzoa
gozoa.

Ta barne guztia berotan dodala,
argi biur bekiz eriotz itzala;
dana jat atsegin
Zurekin.

Orain sakon dakust zure eriotz ori,
zergaitik daukazun biotz deuna gori.» (1)

1937, *Apirilak 26*

Zeus txikiaren haundi izan gura.
Agindu eroa. Indar frogantza.
Zezen hegalarien marruma dantza.
Infernua dator gure zerura.

Tximist lehertuen abiadura
haserre gorritan Gernikarantza...,
hasi da, hasi da hiri triskantza
eta garrasika dago mindura.

Garrasi larritan ama, umea,
aitaren gorputz hil buru gabea;
garrasika txori, lore, burdina,

harri, ohol, haize ta su irakina;
garrasiz herrian betiko lotsa,
askatasunaren betiko hotsa.» (2)

Treanean Parisera

«Treanean idazten dut au Parisako bidean. Laisterrean nabaitzen da aldakuntza: 140 kilometro bai orduan onek. Eta ariñago dakusat nik nere burua ere, trena bezela, berriz jaino izan banintz gisan.

(1) Lauaxeta, *Bizkaiko euskal idazleak* liburuan, Bilbao, 1970, 225. orr.

(2) Argitaratu gabe dodan neure liburu batetik jasoa.

Gorago bide daude emen odeiak, eta zabalagoa dirudi landak; muño txikiak islatzen dira bakarrik noizean bein, Gañerakoa, laua ta zabala da txit. Gogarago betetzen dira emen nere birrikak, eta zoriontsu naiz berriz.

Neure esku naiz. Itzaropenez betea dut gaurko eguna: ori idarokitzen didate belardi zabal berdeak eta tellatu grixak.

Piztu naizela dirudi. Aurraren eran ikusten dut dena, ots, arrituta, zoratuta, baikor...

Izkuntzaz aldatzeak ere inpresio ori bera uzten dit. Aurraren eran jarri bear dut: konprenitzeko alegiñak egin bear ditut, doñua alakotu bear dut ulertuko banaute, ta, dena dela, umekiro jokatu bear.

Orretan datza, nere ustez, bidegiteko atsegiña: jaino egiten da, ta umeak bezela miresten dira munduko gauza arrontenak. Eta zein dago zorionetik urbillago umea baño? Miresteko gauza da au; ta miretsi egin bear da edozein gauza bere xarman sartzeko. Berritasun orrek sortzen du olerkia, ain zuzen.

Bai. Zalantzarik gabe, jaino egiten da berriz txangotzen duena. Dena berria. Aurtzaroan bezela... Au lillura...!» (1).

Irribarre ta lore

«Maitea, ames daigun batera,
ikuste zoragarri bat ba jatorku
begien aurrera.

Ara, une batean,
bizitzak daukan ederra.
...Musker dago bazterra,
zugaitzak leer-bear.

Pozaren barria ugalduz
loreak apaingar.

...Lotskor eta bikain
kuruntzun-lorea:

birjin baten jantziaren
lotsea dirudi...

Ara non makatza:
un garbien bits zuria gorantza...

(1) Txillardegui, *Leturia-ren egunkari eskutua*, 111. orr.

Sortegun den, maitea,
izate orok barnean daukan
indar ta zoramen...
Izadi oro baitago bestan:
—gaur egubarri!—
ale asko sorturen
laztan bizitzari.
Poztu bitez, maitea, zure begiak,
Ederra baitogu jauregiz,
izadi guztia eliz,
solas gaitazan maitemin!» (1)

Zerura begira. Izar bat agertu.

«Illusentia. Udabarriko illuntze ixilla.
Lorategiko landara jaiobarrirei egarria kentzeko, urez
bustitzen nabil.

Izarrez bete dira zeruak, astiro-astiro.
Usterik ezean eta bat batean, izan barri bat agertu da.
Izar barri bat? Taupada txikia be eztausta emon biotzak!
Tirriñ... tirriñ... Telefonua deika.

Zuretzako da. Erritik deitzen deitsue.

—¿...?

—*Aita ilda.*

—¿...?

—*Ordulaurden bat dala.*

Bai, zeruetan izar barri bat.» (1)

Esperpento

Ihauteri da
ta ihauteri gauean
kale ixiletan barna goazela
ipar-aldeko hiri haundi honetan galdurik
burdelak ikusten
larehun pezetakoak ta hirurehunekoak
gure boltza urriarentzat naikoa ehunekoak.
Denak dira emakumeak
eta gorputz uxatuen xarma ustela bilatzen dugu.

Mauka ta mauka ar-emeak
izorkeria egiten eliz-zaharreko paret-bazterrean.

Berdin da bakardade honetan
arpegi ederrak hala itsusiak
emakume denen arpegietan
halako animalikeria somatzen dut
zoramena, arpegi-idorra, mirada fijoa.

Ihauteria da, ihauteri gaua,
ta inork ez daki bakoitzaren bakardadearen berri.
Argi bakoitza itzalean hiltzen da
agoni ixilean,
nola Kristo profanatu hori bilutsik
bide bazterrean hain desanparatuki etsia
agonian infernuetara jexia
hirugarren egunik gabeko Kristoa
sinisten idut.

Ta argiak milaka izanik ez dute argi egiten.
Tarteka gaua da jabe.

Hala gu hala gure bakardadean
ihauteri gabeko hirurak eta bost inguruan.» (1)

Patxi

«Patxi, gorputz lerdin horietako bat ez izan arren, lu-
zeran bederen tamainakoa zen; aurpegiak Greco margola-
riaren kuadro batetatik aterea zirudin: estu eta luzea, izpi-
ritukoia; hala ere, Patxiren gorputzak zerbait apartekorik
azaltzen bazuen, haren begiak ziren; begi berde-berdeak zi-
tuen, kristalezko begi berdeak, eta begiratzen zuten bakoit-
tzean, baziruditen besteren pentsamendua igartzen ari zirela;
begiratu sakon eta garbia. Hitz egiterakoan, berriz, bortxatu
gabeko irribarre bat agertzen zuen; umore handiko gizona,
Patxirengan umorea eta sakontasuna uztartzen ziren. Patxi,
ezkontzaren aurkakoa ez izan arren, mutilzahar iraun zuen
bizitza osoan; bere arrazoiak izanen zituen; gai honetz ez
naiz Patxirekin ihardun izan, eta ezinezkoa zait, horregatik,
haren arrazoiak hemen agertzea.» (2).

(1) Antonio Ilbaco, *EUSKERAN*, 1962, 347. orr.

(1) Bitaño, *Atalak*, Zarautz (Gipuzkoa), 1987, 84. orr.

(1) Mikel Lasa, *Poema bilduma*, Donostia, 1971, 69. orr.

(2) Juan Mari Irigoien, *Oilarren promesa*, Bilbao, 1976, 80. orr.

Iratzarri nahi nuke

«Uda bihotzeko eguzki bero,
zemento grisezkoa bloke zapalkor,
gas pozoitsuaren ke laino mozkor,
sorgin haizearen hauts dantza ero,

motor durrunda... ta zu egunero
infernu gris hortan, egunero hor,
arima grisdun lur pusketa lehor,
zure jaunen robot, baloi, numero...

Iratzarri nahi nuke zure barnean
lotan daramazun gizon poeta,
gizon aitzindari eta profeta,

izangokoaren ezerezean
zuregan dagoen gizon euskaldun,
iratzarri zeu ta zaure zeutasun.» (1)

Gizonaren erroak

«Bizi denak zerbait gisaz erroak baditu. Landarea bezala, gizona ere ez da bakarrik airetik bizi. Haren baitan odola mintzo da, eta urrunetik heldu da odola! Ez bakarrik ait'ametarik, baina aintzinagokoetarik ere bai. Eta erroez bestalde zer adarrak ez ditu! Gau eta egun, bera ohartu gabe, ingurina guzian indar hartzen eta ebasten ari dire, gelditu gabe. Eta ingurinan, zer kausitzen dute? Behar diren guziak. Eta gizon batek kausitzen ditu bera iduri anaiak, bai eta ere aspaldidanik elgarrekin moldatzen duten batasuna. Kausitzen du *Herria*... eta ez bakarrik bere begiez ikusten duen eremu tipia: eremu bat miletan zabalagoa, aspalditik biziak eta hilek moldatua duten *Herria*, bere begitarte, bere gogo, bere izaite bereziarekin.» (2).

Gure artzain etxolari

«Negu batez pentsatu dut elurrez elur joaitea,
ikusi behar nuela mendiko ene maitea;
gure etxola elur hotzak azpian zaukan ordea,
gizon bat zuen hila iduri, mihise xuriz gordea.

Egun onen erraiterat barnera sartu bainintzan,
ene bihotzak etzuen atsegin haundirik izan:
teilen artetik itaxura zarion nigarren gisan,
dohakabe bat bisitaturik bezala itzuli nintzan.

Gaur elurrak urtu ditu, zabaldu da primadera;
artalde ere berriz igan da mendi gainera;
ahal bezain maiz sartuko naiz, etxola, zure barnera,
nehoiz ukatu ez derautazun bake hortaz gozatzer.

Bainan gaur zer senditzen dut? Zer heldu da enegana?
Jazdanikan aurtenerat bortitza zaut mendi gaina;
geiago luzaz ez nitaik e izan lehengo artzaina,
bainan, etxola, ez, otoi, trista: utziko dautzut ordai-

[na.» (1)

Hitzak

«Literaturlariak hitza krezio gai du, eta eskuartean behar du hitza batean ore bezala, harri bezala, haga bezala; bestean haue bezala, trintxa bezala, haizkora bezala; etxegintzarako etxegai bezala behar du, edozein eginkizunetan hartarako behar den oro bezala behar du; iturriak ura bezala, soroak hazia bezala. Nahiz eta inoiz hitzen bat asmatu beharrean balitz ere, egotez hitzez ernaldu zahar egon behar du idazleak eta noiznahi erditzeko gertu. Ezin daiteke ibil une bakoitzean esankizunen adierazpide materialaren bila, hitz bakoitza sortu beharrez idaztaldi bakoitzean; jadanik erabakia behar luke hitzaren gorabehera hori eta ez luke formaren arazoa besterik hartu behar. Formaren arazoz aurrekoa, hizkuntza materiala, ondo berea behar luke idazleak eta soroaren lana besterik ez luke egin behar, erraiak aseberterik dituen iturri kantari eta kontariarena. Haria barruan duen soroari bezala, ura erraietan duen iturriari bezala, hitzak berez berez irten behar lioke idazleari, nahiz eta nekez, berez; gutxienik bederatzi hilabete osatua eta ondua, paperera orduko bere ahotsaren jabe duelarik hitz bakoitza; eta ez familia gehitu nahi duen bakoitzeko haurra inondik ekarri beharrez, semetzat hartu beharrez, bataiatu beharrez, ekanduko ez ote zaion betiko beldurrez. Baina horixe da euskaldun idazleonegoera oraindik; egungo literaturari da-

(1) Argitaratu gabe dudun liburu batetik jasoa.

(2) P. Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, San Sebastián, 1966, 26. orr.

(1) Xalbador, *Odojaren mintzoa*, Zarauz, 1976, 103. orr.

gokion bezperagoan bizi gara oraindik; bihar izango da bezpera, etzi oraindik eguna, Jainkoak nahi badu. Bitartean egun hartarako prestatuz joatea dagokigu, hizkuntza beraren barruan hiztegia ugalduez joatea, hazitarako garia bezala, hitzak ere hala; harri berdez erretzea, gaitzak jotako aleak galdaitezen eta gaitzik gabekoak indartu.» (1).

Enara!

Enara!

Hegoen uhaina
haizearen itsasoan.

Enara!

Abiadaren karabilka
udaberriaren argitan.

Enara!

Askatasunaren higidura
gizonen ostatuan.

Enara!

Egusentiko kantari
gure etxeko atarian,
momorroen ehiztari
gure etxeko alorrean...,
enara izan nahi nuke,
enara bizkor eta trebe,
gure Herriko atarian,
gure Herriko alorrean.» (1)

Tarte...

«Goiz argitsuan bai alperki entzuten dala il kanpaien nigar borobilla! Pentsaketan gelditu naiz, zalantzan erori, eta berriz pentsaketara biurtu.

Eguarte zaratatsu ontan kontraste gordiñegia da ametsen eta txorabio galduen artekoa! Mingarria benetan eriotz-oroi-pena jaiotzear dagon udaberriaren aurrean...!

Illen dangada gizona, zorigaiztoko berria bailitzan, erortzen da goizaren biotzean. Bere durundia naigabe baldanaz

(1) Bitoriano Gandiaga, *Uda batez Madrilén, Oñati* (Gipuzkoa), 1977, 76. orr.

(1) Argitaratu gabe dudana liburu batetik hartua.

datorkit. Erria giro goibel tristean aterpetzen da. Bozina ots luze bat aditzen dut. Askaingo esnezalearen «Ford» zaharra da, Gaur beranduegi dator eta, baserritarrak, ezinegenez, marmitak zubi ondoan utzirik, mandoekin Errietxeko arkupeira sartu dira...

Bèrriro illen dangada... Ixo! Ixilgiro...! Gogapeneta-rako aldi egoki ta more!

Il gaixoa! Nolako amets ausia! Biziak gezur galanta dirudi... Basoa bizi berriztearen ustez iltzen bada, gu ordea, udaberri gertu baten ilusiorik gabe, eta sarritan, bizia betebeterik eskuetan dugunean... Bai gogorra onelako, joanbe-rra!» (1).

XXVII

«eta nik,
bihotza haundia dudalako,
Euskal Herrira tipula janez etorri denari
bi musu eman nahi dizkiot
benetan ene anaia senti dadin.
eta nik,
gaita joaz
tristeziak betarik
etortzen denari
bertsoa kantatzen diot
Donostiako estazioan;
trenaren hots monotonoaren
konpasean
aritzen dira gaita eta bertsoa
batean.
eta egurrezko maleten pisua
kolkoan daramala,
nerea ere ez da hain makala,
presentatzen denari,
ene maleten pisua,
trajea ez dut diruz forratua,
berdintsu dela
esaten diot.» (2)

(1) Luix M. Mujika, *Bide giroak*, Bilbo, 1963, 160. orr.

(2) Mikel Arregi, *Hego haizearen konpasean*, Donostia, 1975, 99. orr.

BIBLIOGRAFIA

- AGUIAR E SILVA DE, Vitor Manuel, *Teoría de la literatura*, Gredos, Madrid, 1972.
- ALONSO, Dámaso, *Poesía española. Ensayo de métodos y límites estilísticos*, 2.^a ed., Gredos, Madrid, 1952.
- ALONSO, Dámaso, *Seis calas en la expresión literaria española, (Prosa-Poesía-Teatro)*, 2.^a ed. aumentada, Gredos, Madrid, 1956.
- ALONSO, Amado, *Forma y materia en poesía*, Gredos, Madrid, 1955.
- AZURMENDI, Joxe, *Iraultza sobietarra eta literatura*, Gero, Bilbao, 1975, 83. orrialdetik 112. era: *Kapitulu bat tartean: euskal poesiaren iluna*.
- AZURMENDI, Joxe, *Adan 1975: Azterketa saio bat*, Joseba Zulaikaren *Adanen poema amaigabea-n*, Kriselu, Donostia, 1975, 85. orrialdetik 146. era.
- AZURMENDI, Joxe, *Zer dugu ORIXEren kontra*, Jakin, Oinati, 1976.
- AZURMENDI, Joxe, *Zer dugu ORIXEren alde*, Jakin, Oinati, 1977.
- «BEGIARMEN», *Sei idazle plazara, I. Mitxelena, Aresti, Larresoro*, Jakin, Oinati, 1974.
- «BERGIARMEN», *Sei idazle plazara, 2. Azurmendi, Garate, Ansola*, Jakin, Oinati, 1974.
- CURTIUS, Ernst Robert, *Ensayos críticos acerca de la literatura europea moderna*, Seix Barral, Barcelona, 1959.
- DELOFFRE, Frédéric, *Stylistique et poétique françaises*, 2.^a ed., Société d'édition d'enseignement supérieur, Paris, 1974.

- (Elkar lanean), *El comentario de textos*, Castalia, Madrid, 1973.
- (Elkar lanean), *El comentario de textos*, 2, Castalia, Madrid, 1974.
- (Elkar lanean), *Diccionario de literatura española*, 4.^a ed., Revista de Occidente, Madrid, 1974.
- ETXEBERRIA, Martin, *Euskaldunen ipui harrigarriak*, Jakin, Oinati, 1973.
- GUIRAUD, Pierre, *La stylistique*, 6.^a ed., Presses universitaires de France, París, 1970.
- HATZFELD, Helmut, *Estudios de estilística*, Planeta, Barcelona, 1975.
- INTXAUSTI, Joseba, *Euskera batxiller-mutilllentzat*, EUSKERAN, VIII-IX, 1963-64, Bilbao, 1964, 408. orrialdetik 440. era.
- KAYSER, Wolfgang, *Interpretación y análisis de la obra literaria*, Gredos, Madrid, 1954.
- LASA, Mikel, *Nobela berria Hego Amerikan*, Etor, Bilbao, 1972.
- LAZARO CARRETER, Fernando, *Cómo se comenta un texto literario*, Cátedra, 11.^a ed., Madrid, 1974.
- LERTXUNDI, Anjel, *Garaiko handikien artean*, XABIER LIZARDI, *olerkari eta prosista* liburuan, Jakin, Oinati, 1974, 101. orrialdetik 124. era.
- LOPEZ-CASANOVA, A., *El análisis estilístico (Poesía y novela)*, Bello, Valencia, 1975.
- MONTES, Hugo, *Ensayos estilísticos*, Gredos, Madrid, 1975.
- MUJICA, José Antonio, *Testuak aztertzen*, Gero, Bilbao, 1978.
- OTEGI, Karlos, *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Gero, Bilbao, 1976.
- SARASOLA, Ibon, *Txillardegia eta Saizarbitoriaren nobelagintza (irakurlearentzat gidaria)*, Kriselu, Donostia, 1975.
- URKIZU, Patri, *Literatura eta kritika*, Lur, Donostia, 1970.
- WELLEK, René, *Teoría literaria*, 4.^a ed., Gredos, Madrid, 1966.
- ZARATE, Mikel, *Euskal literatura (Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak)*, Zugaza, Bilbao, 1977.

HIZTEGIA

- ABAILDU, guztiz nekatu edo ahuldu, zama (karga) handi bategatik, batez ere, agotarse.
- ABARROTS, abarren hots, ruidos de ramaje.
- ABES, abestu, kantatu.
- ABIZEN, deitura, apellido.
- ADATS, buruko ileen multzo luzea, cabellera.
- ADIERAZKOR, biziki eta argiro adierazten duena, expresivo. «Hitz adierazkorretan bakarrik erabili behar genuke bustidura».
- ADIERAZPIDE, hobeto adierazteko era, recurso expresivo.
- ADIMEN, inteligencia, capacidad intelectual.
- ADIÑA, adina (aina), bezainbat, beste, tanto como.
- AGIRIKA, agiraka, reprimenda.
- AGITZ, hagitz, txit, guztiz, oso, arrunt, muy.
- AGURO, agudo, arin, azkar, rápido.
- AHAIDE, familiako, etxeakoarteko, pariente.
- AHANTZI, ahaztu.
- AHAPALDI, estrofa.
- AINTZIN, ikus AITZIN.
- AIPAMEN, mención.
- AIPATU, aitatu, mencionar.
- AIPU, aipamen.
- AITOR, aitortu (autortu), atestiguar, revelar, confesarse.
- AITZIN, aurre, delante, antes. «Zure aitzinean nago», «Aitzinadanik dakit».

AITZINDARI, aurrelari, pionero.
AJE, gorputzaldi txarra, gorputzaren ondoeza, «clavo».
AJOLA, axola, ardura.
ALAFEDE, halafede, ciertamente, de verdad.
ALAKOTU, halakotu, hartara jarri, egokitu, acomodarse, adaptarse.
ALDAKAITZ, aldagaitz, nekez aldatzen dena, difícilmente cambiabile.
ALDAMEN, albo, ondo, lado.
ALDASKA, aldaka, retoño, vástago.
ALDERANTZIZ, beste modu batetara, iruntzietara, al contrario.
ALDRA, talde handi.
ALE, bihi, garau, fruitu, fruto, ejemplar.
ALEGIA, ipui, elezahar; hau da, hots, es decir.
ALMEN, ahalmen, ahaltsun, poder.
ALTXUMA, landarse, planta, vástago.
ALOR, soro (solo), landa, heredad.
AMOINA, erremusina, limosna.
AMOLTSU, maitasunez eta onginaiaz betea, amable, cariñoso.
ANITZ, asko, ugari.
ANTZALDA, antzaldatu, transfigurarse.
ANTZI, ikus ANTSIA.
ANTSIA, ardura edo arreta kezkatua, anhelu.
AÑA, ikus ADIÑA.
AOLKU, aholku, kontseju.
APEZ, apaiz, sacerdote.
ARAZA, arasa, alacena, armario.
ARAN, haran, valle.
ARBASO, asaba, antepasado, ascendiente.
ARI (izan), ibili, ihardun, ocuparse de.
ARATZ, puro, limpio, inmaculado.
AREAGO, gehiago oraindik, más aún.
ARRAI, alai, afable.
ARRAS, hagitx, oso, guztiz, muy.
ARRERA, recibimiento.
ARRETA, ardura, arta, atención.
ARROTZ, atzerritar, herbestetar.
ARRUNT, común, vulgar.

ASABA, arbaso, antepasado, ascendiente.
ASKI, nahiko, suficiente.
ATXIKI, lotu, heldu, itsatsi, eutsi.
AUNITZ, ikus ANITZ.
AUR, haur, ume, niño.
AUSART, ausarti, atrevido, temerario.
AUSI, hau (t)si, apurtu.
AUTATU, hautatu, aukeratu, elegir.
AUTESKUNDE, hauteskunde, elección.
AUTEMAN, arakatu, aztertu, averiguar.
AUTU, conversación, asunto.
AUZAPEZ, hauzapez, alkate.
AZEPIZPIKU, artzapezpiku, arzobispo.
AZPIMARKATU, azpimarratu, subrayar.
AZTAL, pantorrilla.
AZTARNA, huella.
BABAZUZA, txingor, granizo.
BAIEZPEN, afirmación.
BAIKOR, optimista.
BAITAN, barnean, barruan, -(ren)gan. «Gizonaren baitan dago beldurra», «Amaren baitara (amarengana) joan zen».
BAIZEN, bezain, tan...como.
BAIZIK, baino.
BAKAN, bitxi, arraro, aparteko.
BAKUNTZA, alkartasun, batasun, unión.
BALIZKO, supuesto, hipotético (de si fuese).
BARATZE, ortu, soro (solo), lorategi.
BARE, lasai, trankil, calma en la mar, tranquilo.
BE, ere.
BEHA, begira, begiratu.
BEGIRUNE, errespeto, miramiento.
BEDEREN, behintzat, behinik behin.
BEGIZKO, ojeriza, mal de ojo.
BEL, hel(du) bedi.
BEN, serio, formal.
BERAZ, horregatik, por lo tanto.
BERBA, hitz, mintzo.
BERAIZIK, apropos, brometan, adrede, en broma.
BERTZE, beste.

BESTA, festa, jai.
BEREBIZIKO, a propósito, escogido, especial.
BEREZI, bereiztu; aparteko, beren beregiko.
BERTZE, beste.
BEYONDEIZULA, bejondizula, enhorabuena, que aproveche.
BEZAIN, beste, baizen, a(d)ina. «Elurra bezain zuria»
"Tan blanco como la nieve".
BEZALA, legez (lez).
BIALI, bi(d)aldu, bidali, igorri.
BIGARAMON, biharamon, día siguiente.
BIDAZTI, viajero.
BIDAIANT, viajante.
BIDENABAR, bide batez, de paso.
BIDE, omen, ei, antza, parece que.»
BIGUNBERA, blando, suave, delicado.
BIKAIN, excelente.
BIL, bildu, batu.
BILEKUTZE, bilocación.
BILLAKATU, bilakatu, bihurtu, volverse, convertirse.
BIRAMUN, ikus BIGARAMON.
BIRIKA, pulmón.
BIUR, bihur, bihurtu.
BIURRIKERI, bihurrikeria, travesura, insubordinación.
BIZIPEN, bibentzia.
BONET, gorra, sombrero.
BOLU, errota, eihera.
BORTA, ate.
BORTXATU, forzar, violar.
BOZKARIO, poz, alaitasun.
BUHAMI, buhame, ijito, motxaile, bohemio, gitano.
BULTZI, tren.
BURNI, burdina.
BURUHAS, burutsik, con la cabeza descubierta.
BURUZ, hacia.
BURRUSTAN, asko, ugari.
DAKIKE, jakingo du.
DAIDITA, da(g) idit, egiten dut.
DAKUST, ikusten dut.
DALDARA, dardara, temblor.

DEBEKATU, galerazi (galazo), eragotzi.
DEDU, honra, decoro.
DESIRATU, desear.
DESLILURA, desencanto.
DESGIZATU, deshumanizar.
DEUS, algo, nada.
DIHULATE, dirutza.
DOHATSU, bienaventurado, feliz.
DOI, justo, exacto.
DIROENA, daramana, daroana.
DUNBATEKO, golpe.
EGITURA, estructures.
EGOITZA, bizileku, residencia.
EGUN, día; gaur, hoy.
EHORTZ, lurperatu, enterrar.
EHIZTARI, kazari, kazeru.
EKURUGAITZ, artega, urduri.
ELABERRI, nobela.
ELE, hitz, berba, mintzo.
ELEMENIA, gizatalde, jendatza, aldra.
ENARA, elai, golondrina.
EPAI, juicio.
ERAKUNDE, institución.
ERAGOZPEN, traba, obstáculo.
ERASOALDI, ataque.
ERAUNTSI, borrasca, tempestad.
EREMU, desertu, basamortu.
ERORI, jausi.
ERRAN, esan.
ERREPIKATU, berresan, repetir.
ERRUZ, asko, ugari.
ERTILARI, artista.
ESKERGA, haundi.
ESPARTIN abarketa.
ETEN, cortar, romper; corte, cesura.
ETSAI, arerio.
ETEKIN, provecho, fruto.
ETSIPEN, resignación, desesperación.
ETXOLA, txabola, cabaña, choza.
EZPAI, ezbai, duda, zalantza.

EZETSI, desaprobar, rechazar.
EZEZE, ezezik.
FAN, joan, ir.
FENIX, bere hautsetatik pizten den hegazti bat, ave mitológica que renace de sus cenizas.
FEREKA, laztana, caricia.
FINKATU, afianzar, apoyarse sobre.
FITE, arin, agudo.
FOLA, alkandoraren iduna, cuello de la camisa.
FRANGO, franko (franku), ugari.
FUNDITU, fundir.
FROGANTZA, aproba, prueba.
GAITASUN, aptitud.
GAITU, capacitar.
GALDA, galde(tu), preguntar.
GARAITU, vencer, vencido.
GELDO, persona de poca energía.
GERLA, gerra.
GERTU, dispuesto; cerca.
GIBEL, atze; hígado.
GINBAIL, sombrero.
GIZANDI, erraldoi, gigante.
GISA, manera, modo.
GOTZON, aingeru.
HAURREKO, umetako, haurtzaroko.
HATS, aliento; hedor.
HAUTATU, aukeratu, elegir.
HAURRERIA, umeteria.
HEGI, lugar retirado, línea de los montes.
HIGATU, zimeldu, bihurtu, ajarse, convertirse.
HITZ LAUZ, prosaz.
HITZ NEURTUZ, poesiaz.
HORDI, mozkor.
HORTZ, hagin.
HOTSITZ, palabra onomatopéyica.
IBAR, vega.
IDAROKI, iradoki, sacar, inspirar, oprimir.
IDOR, lehor, siku.
IDURI, irudi, begitandu, imajina.
IGAN, igon.

IGERI, uger, nadando.
IGITAI, sierra.
IHARDUN, jardun.
IHAUTERI, carnaval.
IKERLAN, trabajo de investigación.
IKUSKARI, espectáculo.
INGURINA, inguru.
INTZIRI, grito, jadeo.
IRAUZI, erauzi, extirpar, arruinar.
IRAULTZA, matxinada, revolución.
IRAULTZAILA, revolucionario.
IRUDIMEN, imaginación.
ISLATU, reflejar.
ISKANBILA, trapala, zirriparra, nahaste.
ITSASI, ezarri, lotu, adosar, pegar.
ITZALI, amatau, itzungi.
ITZULI, bihurtu, irauli, regresar, traducir.
IZETU, piztu, encender.
IZI, ehizi, pieza de caza; espanto.
JAIO, nacer; muy dado a, agraciado, con cualidades para.
JARAMON, kasu.
JARDUN, ihardun, insistir, ocuparse en, conversación.
JARKI, resistirse, oponerse, corresponder.
JAZDANIK, ihaztik, desde el año pasado.
JAUTSI, jaitsi, descender.
JAUZI, saltar, encolerizarse.
JOSKERA, sintaxis.
JUNTAGAILU, lotura hizki, conjunción.
KADEN, mustio, decaído.
KAIZU, calibre, dimensión.
KARRASKA, crujido, rechinamiento.
KARABILKA, serpenteo.
KAUSITU, hallar, acertar.
KILKER, txirritxirri, kilkir, grillo.
KIZKUR, contraído, pelo crespo y enredado.
KINKA, kenka, momento crítico.
KIRATS, hedor.
KOPETA, bekoki.
KUTSADURA, contaminación.
LAIDAGARRI, ignominioso.

LAIHOTZ, paraje sombrío.
LAR, gehiegi, sobera.
LAPARRA, sasi, zarza.
LASAPEN, lasaipen, tranquilidad, relajamiento.
LAUSO, nube o catarata del ojo.
LEGEN, lepra.
LEHENBIZIKO, lehenengo.
LEHERTU, errementatu.
LERDE, adurra, baba.
LEMAZAIN, piloto.
LEZ, legez, bezala.
LEZE, leize, sima.
LOKABE, lotu gabe.
MAIZ, sarritan, askotan.
MAIPOLIS, maripolis, chaleko o chaquetilla.
MALDA, aldats, aldapa.
MAUKA, mahuka, manga.
MAISEOTU, censurar, criticar.
MARRUMA, bramido.
MENDEKU, bengantza.
MESPREZIAGARRI, despreciable.
MINTZO, berba, hitz.
MIHISE, lienzo.
MOL TSA, boltsa.
MUKURRU, montón.
MUKUZU, mukitsu, mocososo.
MUZIN, mueca de disgusto.
NABARI, notorio, evidente.
NASKI, noski, bai ba, claro, sin duda, tal vez.
NEKAZARI, lurlangile.
NEROSKE, erosiko nuke.
NEHOIZ, inoiz.
OBORO, aboro, más.
OHARKABE, konturatu gabe.
OHOIN, lapur, ebasle.
OIHARTZUN, durundi, eco.
OINAZE, tormento.
OLGETA, jostaketa, diversión, esparcimiento.
OPARO, ugari, abundante.
OMEN, ei, bide, antza, parece que.

OROINTZAPEN, gomuta, recuerdo.
OTU, pentsatu.
OTTO, osabatxo.
PIPORTA, lodito.
POZOI, bereno, veneno.
PUSAKA, indarka, a empellones, empujándose.
SAIATU, ahalegindu, intentar, esforzarse.
SALAKUNTZA, acusación, denuncia.
SAMAR, pizka bat, un poco. «Kokolo samarra da hori»
'Ese es un poco bobalicón'.
SAMURTU, enter necerse, romperse, indignarse, enfadarse.
SEASKA, sehaska, kuma, cuna.
SETIATU, inguratu, rodear.
SO, begirada; *so egin* 'begiratu'.
SOLAS, elkarrizketa, jolas.
SORO, solo, huerta.
SORTA, txorta, ramillete.
SOS, diru.
SUHAR, bravo, fogoso.
SUKAR, fiebre.
SUMIN, furor.
SUNTSITU, ezereztu, deuseztu, desaparecer, destruir.
TAJUTU, eratu, egokitu, ordenar, arreglar.
TAMAÑA, tamainu, neurri.
TANKERA, era, itxura, traza, índole.
TATAR, torpe.
TENTE, zutik (zutunik).
TINK, irme, tinko, sendo.
TIRAIN, oleaje, resaca.
TOTEL, tartamutu, tartaja.
TRINTXA, cincel, formón.
TXIT, guztiz, oso, hagitz, arras, muy.
TRUMILKA, en tropel.
TXANGO, excursión, expedición.
UDARA, uda.
UGALDU, ugaritu.
UHAIN, uhin, olatu, baga.
UJOL, torrente, riada.
UKARAI, muñeca de la mano.
UKUMILO, ukabila, puño.

UNTZ, untzorri, hiedra.
 URGOI, tímido, reservado.
 URRATS, pausu.
 USNATU, oler.
 USUTU, frecuentar, multiplicar, acelerar.
 URRIKARI, erruki, piedad, compasión.
 XARMA, encanto.
 XARMANT, encantador.
 XINGOLA, cinta, corbata.
 YAS, jas, garbo, distinción.
 YORAN, joran, afán.
 YORI, jori, ugari, abundante, rico.
 ZANGO, berna, hanka.
 ZEHARO, guztiz, oso.
 ZILLEGI, zilegi, lícito.
 ZIN, juramento.
 ZUZPERTU, restablecerse, recuperarse.

AURKIBIDEA

Lizardi, euskal lirikaren ezaugarri	4
Lizardi, ta prosa landua	24
Barbier, prosista olerkari	37
Iratzeder, kantuzko euskal mistiko kronikaria	44
Kirikiño, gertaera barregarrien kontalari trebea	57
F. Bilbao, hizkuntza biziaren gatza	62
Txillardegi, hiriko hizkuntzaren eragile	70
A. Lasa ta «belaunaldi errearen» erlijio giroa	85
A. Urretabizkaia ta sintagma berdintsuen pilaketa	98
Aztergaiak	109
Bibliografía	125
Hiztegia	127
Aurkibidea	138

LADAVRU-IKASTEGIA

BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 19.388/91

Gaia.

Tokia.

COLECCION TRATADOS

- Iñaki Gorroño — 1/ Experiencia Cooperativa en el País Vasco.
Mikel Zarate — 2/ Euskal Deklinabidea.
Angel Goenaga — 3/ Uts: la negatividad vasca.
Adrián Celaya — 4/ Derecho Civil Foral de Vizcaya y Alava.
Adrián Celaya — 5/ Fuero Nuevo de Vizcaya.
Roberto Velasco — 6/ Financiación pública del desarrollo regional. Aproximación al País Vasco.
Mikel Zarate — 7/ Euskal Literatura. Azterbideak, azterketak, aztergaiak.
Manuel Ferrer — 8/ Las ciudades de Guipúzcoa y Vizcaya.
Andrés Precado — 9/ Euskal Literatura II.

COLECCION TRAZOS

- Angel Ortiz Alfau — 1/ En la ruta de Don Quijote.
Santiago Aizarna — 2/ La mujer de Lot.
Jorge C. Aranguren — 3/ Ultimas imaginarias.
José Luis Merino — 4/ Le doy galletas para saber donde le cae la boca.

EUSKAL NARRATIBA

- Mikel Zarate — 1/ Ipuin antzeko alegi mingotsak.
Txillardegi — 2/ Leturiaren egunkari ezkutua.
A. Zubikarai — 3/ Bale denborak.

MANUALES

- A. Mañaricua — 1/ Alava, Guipúzcoa y Vizcaya a la luz de su historia.
K. Mitxelena — 2/ La lengua vasca.
J. A. Aguirre — 3/ Veinte años de gestión del Gobierno vasco.
Mikel Zarate — 4/ Euskal Ortografia.
J. Cesar Santoyo — 5/ Vascos e Irlandeses.

IRRISKO XORTA

- Manu Ertzilla — 1/ Hitzik ainitz idatzi dut.
Amaia Lasa — 2/ Hitz nahastuak.
Xabier Iratzeder — 3/ Fededunen arbasoa.
Jesús Etxezarraga — 4/ Olerki solteak.
Xabier Azurmendi — 5/ Jesús.
Mikel Zarate — 6/ Bizipenen bultzadaz.

LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
Avda. Montevideo, 11
DURANGO